# Goienkaria

2008ko apirilaren 4a > Egubakoitza > VIII. urtea > 326. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


**"Pirinioak eta Kantabriako mendilerroa lotzen dituen pasabidea ibarrean dago"**



**Iñaki Aizpuru**
Botanikaria eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea > 09

**G2a** Gutxitu psikikoen dantza saioa Elgetan > 43-44

**ARETXABALETA**
Landetxea eta beste zerbitzu batzuk ipini nahi dituzte Urkulun > 15

**HEZKUNTZA**
Aste bukaeran Sistema Nazionala eskatzeko ekitaldiak egongo dira > 15

**ARAMAIO**
Kereila jarri diote alkateari AHTren gaineko galdeketa egiteagatik > 38

**INDUSTRIA** > BAILARAKO INDUSTRIALDEAK

## Epe laburrean zortzi industria eremu berri egingo dira bailaran

**EGUN 26 GUNE** Debagoienean 26 industria eremu nagusi daude eta horietako erdiak, Arrasaten eta Bergaran

**OÑATI** Industrialde berri asko egin dute azken urteetan eta dagoeneko agortuta daude industriara bideratutako lurrak

**ARETXABALETA** Basabe industrialdea herri erdialdean dago eta Udalak herritik kanpora atera nahi du > 02-03

**ARRASATE** > POLITIKA

## Zentsura mozioa bertan behera

PPk eta PSE-EEk babestu dute; EAJk, EAk, Aralarrek eta EB-Berdeek, ez > 05

### Mondragon kooperatiba hasi da irudi berria erabiltzen

Orain arte Mondragon Korporazio Kooperatiboa (MCC) zenak estreinatu ditu izen, enpresa-irudi eta lelo berriak: orain, Mondragon deitzen da, eta lelo berria *Gizatasuna lanean* da; espainolez, *Sentido humano*; eta ingelesez, *Humanity work*.

Irudi berria hiru modulutan banantzen da: lehenean, izena agertzen da; bigarrenean, *M* itxura duen ikurra; eta hirugarrenean, taldearen lau jarduerak. Irudi berria Mondragon taldea osatzen duten kooperatiba bakoitzaren irudian integratuko da. > 04




**AURKEZPENA** Arrasateko egoitza nagusiaren sarreran muntatu dute nortasun zeinu berriak erakusten dituen panela. XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








Merkatuko lehen markak
Gremioen koordinazioa
Mota askotako estiloak
Etxebizitzen errehabilitazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK

Telleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com

**INDUSTRIA** > IBARREKO INDUSTRIALDEAK

# Datozen urteotan zortzi industrialde berri eraikiko dira Debagoienean

**GUZTIRA 26 GUNE** Aramaion eta Leintz Gatzagan izan ezik, bailarako gainontzeko herrietan askotariko zabalera duten 26 industrialde nagusi daude

**BERGARAN** Larramendi poligonoko lanak martxan dira Gabonak ezkero eta Udalak epe laburrera Mekolalde eta Ipiñarri guneak egiteko asmoa du

**OÑATIN** Industrialde berriak beteta daude eta Amestoi, Zugaztui eta Urbietako guneak egin behar dituzte; eremu industriala agortuta dago

MIRIAN BITERI > BERGARA

Debagoienean industria asko dagoela jakina da. Enpresak edonon ikus daitezke bailarako herri gehienetan. Aramaion eta Leintz Gatzagan ez ezik, gainontzekoetan industrialdeak daude; udalerri txikienetan ere, eremu bat baino gehiago aurki daiteke. Horietatik batzuk Debagoieneko Industrialdea SA bultzatuak dira.

**ARRASATEN, GARAIA**

Arrasatek sei gune nagusi ditu. Horietatik, mugimendu handien dutenak Markulete eta Garaia Berrikuntza Guneak dira. Lehenengoan, bigarren fasearekin dabiltza eta bigarrenean, apurka doaz enpresa berriak sartzen.

Udaleko Hirigintza Saileko Arantxa Sanzek jakinarazi duenez, epe laburrean ez dute industrialde handirik jartzeko asmorik. "Dagoeneko finkatuta dauden enpresak eraikin berriak egiten ari dira, baina besterik ez dugu egin behar oraingoz". Bada, Plan Orokorrak Emaldi inguruko, Matz-Errekako eta Zalduspeko industria-maparen berrantolaketa aurreikusten du.

**BERGARAN, LARRAMENDI**

Bergaran ere, azkenaldian, gune asko garatu dira eta egun, Larramendikoa egiten ari dira. Eusko Jaurlaritzako Sprilur dabil hori bultzatzen. "Urte batzuetan garatuko den gune industrial garrantzitsuenetarikoa izango da. Guztira, 300.000 bat metro karratu izango ditu", dio Hirigintza teknikari Joseba Aizpuruk. Gabonak ezkero urbanizazio lanekin dabiltza; bi urte iraungo dute.

Udala Plan Orokorrarekin bueltaka dabil; hor beste egitasmo batzuk aurreikusita daude. Hori oraindik onartu barik dagoela eta, beraz, aldaketak izan ditzakeela dio. Oraingoz, industrialdeak egiteko bi kokapen daude: Mekolaldeko auzogunea eta Ipiñarri zerrategi ingurua.

Aizpururen esanetan, nahiko ondo saltzen ari dira pabiloiak Bergaran: "Batzuei gehiago kostatzen ari zaie egoeragatik edo kokapenagatik, baina azpiegitura aldetik ondo gaude, eta horrek ere laguntzen du". Beasain eta Durango lotuko dituen autobideak, gainera, erraztasunak emango dituela uste du.

**Arrasaten, Markuleten eta Garaia Berrikuntza Gunean enpresa berriak jartzen ari dira orain; beste eremurik egiteko asmorik ez dago oraingoz**

**Aretxabaletan Basabeko poligonoa herritik kanpo kokatu nahi dute eta Eskoriatzan, Torrebaso industrialdeko pabiloiak saltzeko arazoak dituzte**

**OÑATIKO LEHENTASUNA**

Oñatin ere industrialde asko egin dira eta Hirigintza zinegotzi Angel Biainek esan duenez, norabide bera jarraitzeko asmoa du Udalak: "Azken bost urteetan poligono berriak egin dira eta Migelenakoa, esaterako, beteta dago dagoeneko".

"Guretako industria lehentasuna da. Badakigu oso zaila dela kanpoko enpresak ekartzea, baina herrian daudenak mantentzen ahalegintzen gara. Hori lortzen ari gara", aipatu du. Horri erantzuna emateko, Amestoiko, Zugaztuiko eta Urbietako eremuak eraikitzen hasiko dira laster. Azken horretan hasi dira dagoeneko urbanizazio lanak egiten. Hamabi industria-nabe aurreikusita daude harako.

Horrez gain, bi industrialde gehiago egiteko asmoa dago. Baina horien berri emateko goiz dela dio Biainek.

**ARETXABALETAN, ARAZOAK**

Aretxabaletan aspaldian ez da ezer egin eta orain, Udalak industria-mapa berrantolatu nahi du. Gaur egun herrian dagoen industria eremua tokitik atera nahi du. Herritarrak egungo industriaren kokagunearekin kezkatuta daude eta Udalari jakinarazi diote. Hirigintza zinegotzi Edorta Mendietaren ustez, "arazo bat dago: herria handitu egiten dela eta Basaben etxeak eta lantegiak bata bestearen gainean daudela".

Erdigunean, diseinu, teknologia eta zerbitzu arloetako enpresak jartzearen alde dago. Berrantolaketa horren bidez enpresa asko mugitu beharko lirateke, hala nola MCC taldeko Copreci.



BERGARA Bergarako Labegaraieta industrialdean as

## Arrasaten eta Bergaran 13 eremu

Logikoa denez, Debagoieneko industrialde asko Bergaran eta Arrasaten daude kokatuta. Lehenenak zazpi eremu industrial nagusi ditu gaur egun: Osintxukoa, San Juanekoa, Uberakoa, San Lorentzo poligonokoa, Labegaraietakoa eta Elorregikoa.

Arrasatek sei gune garrantzitsu ditu: Ibarreta, Markulete, Garaia Berrikuntza Gunea, San Andres auzokoa, Zigarrolakoa eta Kataide.

## Oñatin agortuta dago eremu industriala

Oñatin jarduera ekonomikoak jartzeko eremu asko egin dituzte azkenaldian eta dagoeneko eremu industrial guztia agortuta duela jakinarazi du Hirigintza zinegotzi Angel Biainek.

Gauzak horrela, hemendik aurrera, lursail berriak topatu beharko dituztela eta horien sailkapena aldatu beharko dela aipatu du. Udalak "lehentasuna" ematen dio industriari, eta, beraz, zeregin horretan jarriko da laster.

## Coprecik toki falta du Aretxabaletan

MCC taldeko Copreci lantegiak leku premia du Aretxabaletan. Makina astunak ipintzeko toki barik geratzen dabil, makina horiek ezin direlako bigarren solairu baten edo gorago ipini. Hori dela eta, proposamen bat igorri du udalera. Arrasatetik Aretxabaletarantz joanda, herriko sarreran dauden lurretan kokatzea planteatu du. Meca zubi inguruan joango litzateke lantegi berria.

## Beasain-Durangoko lurrak aprobetxatu

Deskarga inguruko Ipurtikan egin gura du Antzuolak industrialde berria. Baina ingurumen aldetik arazoak egon daitezkeela onartu du Antzuolako alkate Pedro Iturbek. Batetik, handik pasatzen den erreka desbideratu egin beharko dela eta, horrez gain, gunea plataforma baten gainean egin beharko dela. Azken hori egiteko, Beasain eta Durango arteko autobiderako mugitu behar diren lurrak aprobetxatu nahi dira.

## Debagoieneko Industrialdea SA

Debagoieneko Industrialdea SA ibarrean industria ekimena eta inbertsioa eragin eta suspertzeko sortu zen. Aretxabaletako Industrialdea SA, Oñatiko Industrialdea SAren eta Bergarako Industrialdea SAren arteko bat egitearen ondorioz eratu zen. Dagoeneko hainbat poligono bultzatu ditu hiru herri horietan eta Arrasaten: Oñatin, Berezaon eta Zubillagan eta Aretxabaletan Basaben eta Zubillagan, besteak beste.




spaldiko enpresak jarduera ekonomia berriekin nahasten dira. GOIENKARIA

## Debagoieneko industrialde nagusiak

| HERRIA | EGUNGO INDUSTRIALDEAK | ETORKIZUNEKO GUNEAK |
|---|---|---|
| **ARRASATE** | Markulete | Matz-Erreka |
| | Ibarreta | Emaldi |
| | San Andresko eremua | Zalduspe |
| | Zigarrolako gunea | |
| | Kataide | |
| | Garaia Berrikuntza Gunea | |
| **BERGARA** | Osintxu | Larramendi |
| | San Juan | Mekolalde |
| | Ubera | Ipiñarri |
| | San Lorentzo | |
| | Candy ingurukoa | |
| | Labegaraieta | |
| | Elorregi | |
| **OÑATI** | Berezao | Urbieta |
| | Santxolopetegi | Zugaztui |
| | Zubillaga | Amestoi |
| **ARETXABALETA** | Bainuetxe | Kokapena zehazteke |
| | Basabe | |
| **ESKORIATZA** | Torrebaso | |
| | Aingeru Guardako gunea | |
| **ANTZUOLA** | Goizper eremua | Kokapena zehazteke |
| | Lizarraga | |
| | Matz-Erreka | |
| | Balzerseko eremua | |
| **ELGETA** | Pagatza | Eibar-Zaldibar-Elgeta |
| | Berraondo | |

Iturria: Debagoieneko Udalak

**ESKORIATZAN, ZORRETAN**

Debagoieneko gainontzeko herrietan ez bezala, Eskoriatzan arduratuta daude, Torrebaso industrialdean dauden pabiloiak eta bulegoak saltzen ez direlako. Eskoriatzako Industrialdea SAren egoera "oso txarra" dela onartu du Udalak. Azken urteetan oso salmenta gutxi izan dira eta ondorioz, 3,5 bat milioi euroko zorra du. Hala, egoera horri buelta emateko, aterabideak pentsatzen jardun du Udalak.

Martxoan Eskoriatzako Industrialdea SAko administrazio kontseiluak batzarra egin zuen horren harira. EAE, EAJ, EA eta EBko udal ordezkariek eta SAko gerente Clemente Belokik osatzen dute. Batzarrean hainbat proposamen egin ziren: gerente lanpostua kentzea; eskaintzaren gaineko publizitatea egitea; eta industrialdea Debagoieneko industrialdeekin elkarlanean kudeatzea. Proposamen horiek apirileko Udaleko osoko bilkuran eztabaidatuko dira.

**ANTZUOLAN, ITXOITEN**

Antzuolari dagokionez, industria betidanik "inportantea" izan dela esan du hango alkate Pedro Iturbek. Hala, aspalditik enpresa txikiak bilduko dituen industrialde berria egiteko egitasmoa dagoela aipatu du, Deskarga inguruan: Ipurtikan. Baina ingurumen aldetik oztopoak egon daitezkeela ohartarazi du.

Gauzak horrela, Sprilurrekin jarri dira harremanetan, horri leku alternatiboak bilatzeko asmoz. Herritik gertu bi tokitan daude eremu industrialak: Matz-Erreka kooperatiba ondoan eta, Bergaratik joanda, Antzuolako sarrera ondoko lurretan. "Eremu txikiak badira ere, kontuan hartzekoak dira", azaldu du Iturbek. Sprilurren txostenaren zain daude udaletxean. Hilabete barru iritsiko dela espero dute.

**ELGETAN, SALGAI**

Elgetan ere indartsu dabiltza. Pagatzako bigarren fasea bukatu zuten 2006an. Hasierako 100.000 metro karratuei beste 81.000 gehitu zaizkie. Dagoeneko enpresa handi bat dabil hor lanean, Surfesa, eta txikiagoak diren beste bi eraikitzen ari dira.

Gainera, herrian, Berraondokua eta Bergararako bidean Iburuerreka poligonoak daude. Bere garaian industria jarduera ekonomikoa izan zen azken horretan; baina gaur ez dago mugimendurik han. Oraingoz, Udalak ez du eremu gehiago bultzatzeko asmorik, Pagatzan oraindik partzelak daude-eta saltzeke.

**ARAMAION, PLAN OROKORRA**

Aramaion ez dago gunerik. Hango alkate Asier Agirrek azaldu du han ere Plan Orokorrarekin dabiltzala: "Hemendik urte eta erdira onartuta egongo da eta horrek industrialdea izango du markatuta". Horren ezaugarriak zehazteke daudela dio eta gehitu du helburua dela herriko jarduera ekonomikoen kokalekua izatea eta herri gunetik hurbil egotea.

Leintz Gatzagan, azkenik, ez dute eraikitzeko asmorik. Egun ez dago lantegirik; Jakion kontserben enpresa baino ez.



**LEKU FALTA** MCC taldeko Coprecik toki premia du Aretxabaletako Basabe poligonoan. MIRIAN BITERI




**SARRERAN** Mondragonek Arrasaten duen egoitzaren sarreran ipini dute enpresa-irudi berria. XABIER URTZELAI

**KOOPERATIBAK** > MONDRAGON TALDEA

# Mondragon kooperatiba taldea hasi da irudi berria erabiltzen

'Mondragon. Gizatasuna lanean' izena, leloa eta irudia estreinatu ditu taldeak

Maiatz bukaeran egingo dute aurkezpen ofiziala, iazko datuak ematearekin batera

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Orain arte Mondragon Korporazio Kooperatiboa, MCC, zenak estreinatu ditu izen, enpresa-irudi eta lelo berriak: orain, Mondragon deitzen da, eta lelo berria *Gizatasuna lanean* da; espainolez, *Sentido humano del trabajo*, eta ingelesez, *Humanity at work*. Irudi berria aurkezpen modura erabiltzen hasia da talde kooperatiboa dagoeneko: hala, Arrasaten, Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekuan duen egoitza nagusiaren sarreran muntatu dute nortasun zeinu berriak erakusten dituen panela.

Irudi berria, gainera, Mondragon taldea osatzen duten kooperatiba bakoitzaren irudian ere integratuko da; prozesu hori maiatzaren 1ean hasiko da, eta urte osoa hartuko du.

**KOOPERATIBA GUZTIEN IRUDIAN**

Mondragonen *TU Lankide* aldizkarian azaltzen dute ikur bakoitzaren esanahia.

Irudia hiru modulutan banantzen da. Lehenengo moduluan, izena agertzen da; Mondragon aukeratu dute "gure esperientziaren giza-identifikazioa jatorri geografikoarekin batera gordetzeko". Bigarren moduluan, M itxura duen ikur bat du irudi berriak. Elkarlanean dauden eta elkarri eskua emanda dauden bi pertsona irudikatzen ditu hizki horren irudiak. Horren azpian, modulu berean, lelo berria agertzen da. Azkenik, hirugarren modulu bat dago, eta hor, taldearen lau jarduera arloak agertzen dira: finantzak, industria, banaketa eta jakintza; laugarren horren barruan daude hezkuntza eta ikerketa.

Hori formatu orokorra da, baina, beste modu batzuetan erabili ahal izateko, beste hiru formatu sortu dituzte: oinarrizkoak M-a eta leloa erakusten ditu; bigarren batek, aurrekoa eta Mondragon hitza; eta hirugarren bat lau modulukoa da.

Irudi berria Mondragonek argitara ematen dituen komunikazio-oinarri guztietan agertuko da aurrerantzean: paper komertzialak, txartelak, diaporamak, webgunea... Azken horri dagokionez, Interneteko helbide berria du taldeak: *www.mondragoncorporation.com* helbidea hartu dute, eta *humanityatwork.com*, *sentidohumanodeltrabajo.com* eta *gizatasunalanean.com* helbideek ere hara eramango dute.

**IAZKO EMAITZEKIN, POZIK**

Enpresa-irudi berria ofizialki aurkeztuko du Mondragonek maiatz bukaeran egingo duen prentsaurreko baten. Urtero bezala, aurreko ekitaldiko emaitzak eta balorazioa jakinarazteko egingo du prentsaurreko hori; litekeena da maiatzaren 27an izatea.

Iazko ekitaldia, oro har, "ona" izan dela esaten dute arduradunek. Hainbat datu jakinarazi dituzte. Hala ere, kooperatiba batzuetan, auditoriak oraindik bukatzeko daude, eta baliteke datu batzuk zertxobait aldatzea.

Industria arloaren salmentak %4,4 igo ziren –7.172 milioi euroko salmentak izan zituzten–, lantaldean 876 langile sartu ziren, eta emaitzak aurreko urtekoak baino %20 baino altuagoak izan ziren. Industria eta Banaketa arloen salmenta bateratuak 16.000 milioi eurokoak izan ziren. Banaketa arloa %18 hazi zen, batik bat, Caprabo erosteagatik.

Finantza taldeak ere bilakaera ona izan zuen. Euskadiko Kutxaren zerga aurreko emaitzak 208,9 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtekoak baino %18 altuagoak. Lagun-Arok, errenta aldakorrean, 14,6 milioiko emaitza garbiak izan zituen. Mutualistak %1 hazi ziren, eta 30.476 izatera iritsi ziren. Lagun-Aro Aseguruetan, primak %10,1 hazi ziren, eta errentagarritasuna 24,8 milioikoa izan zen.

Horrez gain, 2007an ia 15.000 lanpostu sortu zituzten; urte bukaerarako, Mondragonek 97.000 langiletik gora zituen.

Bestalde, iaz kooperatiba berriak sortu ziren; mundu osoan, 68 filialekin bukatu zuten urtea; Txinan, Kunshan-eko industriagunea inauguratu zuten…

Dena ona ez dela ere onartzen du taldeak. Hala, Jose Mari Aldekoa Batzorde Orokorreko presidenteak *TU Lankide* aldizkarian azaltzen duenez, "negozio batzuek zailtasunak dituzte; merkatua aldatu egin da, eta orain dugun ongizateari eustea oso zaila izango da. Beharrezkoa izango da aldatzea, gauzak beste modu batera egitea, denon ahaleginarekin eta konpromisoarekin; baina, nahi badugu, egin dezakegu".

IRITZIA

## Olins adituaren iritziz, aldaketa ona

Wally Olins Saffron Consultants taldeko zuzendari orokorra eta marka kontzeptuaren inguruan nazioarteko adituak txalotu egin du Mondragonen irudi berria. "*Mondragon* hitzak, taldearen proiektu bateratua adierazteaz gain, MCC hizkiek baino gehiago bereizten du". Aldaketarekin, taldeak "kontsistentzia eta sendotasuna irabazi ditu: kontsistentzia, taldea bateratzen duen eta harro sentiarazten duen mezu bakarra dagoelako; eta sendotasuna, mezu bakar horrekin giza proiektu horren irudi zehatzago bat emango delako", dio Wally Olins-ek *TU Lankide* aldizkariak egindako elkarrizketan.

DATUA

**16**

**MILA MILIOI EURO**

Mondragonen Industria eta Banaketa arloek, batera, 16.000 milioi eurotik gorako salmentak izan zituzten iaz, 2006an baino %10 gehiago. Banaketa arloa %18 igo zen, Caprabo erosteagatik.

ESALDIA

**"Banaketa arloan, aurreikuspenen %109an bukatu dugu; hor, Caprabo aukera estrategikoa zen, eta orain, optimizatu egin behar dugu"**

**Jose M. Aldekoa** > Mondragon

**POLITIKA** > ZENTSURA MOZIOA

# Bertan behera geratu da EAEren aurka aurkeztu gura zuten zentsura mozioa

EAJ, EB-Berdeak-ZUTIK, Aralar eta EAk ez dute mozioa babestu; PPk, ostera, bai

Bilbon egindako agerraldian, EAJko Urkulluk ETAk esandakoa gaitzesteko eskatu dio EAEri

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE
Arrasateko Udalean PSE-EEk aurkeztu gura zuen zentsura mozioak ez du aurrera egin. Sozialistek EAE udaletik kentzeko mozioa aurkeztu gura zuten; erabaki hori hartu zuten, EAEk Isaias Carrascoren hilketa gaitzetsi ez zuelako. Baina zentsura mozioa aurrera eramateko beharrezkoa zuten gehiengo osorik ez dute lortu sozialistek. PSE-EEren mozioak aurrera egiteko 11 boto behar ziren; eta aldeko bost boto besterik ez dute izan (PSE-EEren lau eta PPren bat).

Hedabide guztiek jaso dute Arrasateko zentsura mozioaren albistea azken egunotan. Paperezko egunkari eta digitalek era desberdinean tratatu dute Arrasateko albistea. Batzuek garrantzi handiagoa emanez, azalean ere kaleratuz eta editorialetan aipamena eginez.

**EAJ ERABAKIGARRIA**
Jeltzaleek Arrasaten dituzten lau hautetsien iritziak erabakigarriak ziren balantza alde batera edo bestera makurtzeko. EAJren Gipuzko Buru Batzarrak martitzen goizean jakinarazi zuen ez zuela babestuko Arrasateko PSE-EEk EAEren eta Ino Galparsoro alkatearen kontra bultzatu behar zuen zentsura mozioa. Eguazten arratsaldean, berriz, Bilboko Sabin Etxean EBBk egindako bileran, Iñigo Urkulluk esan zuen ETAk agirian esandakoak gaitzetsi ezean, EAEko hautetsien dimisioa eskatuko duela EAJk.

Ezker Batua-Berdeak alderdiko lehendakaritzak Donostiako bileran hartu zuen erabakiarekin –mozioa babestearen aldekoa– kritiko agertu dira Joseba Ugalde eta Ander Rodriguez, Ezker Batuak-Berdeetako zinegotziak eta Zutik-eko Julia Monje. Jakinarazi dute martxoaren 17an egin zutela bilera bi alderdietako militanteekin, eta bietan, aho batez, PSE-EEren proposamena baztertzea erabaki zela.

Aralarrek hasieratik esan zuen ez zuela babestuko sozialisten mozioa. Orain, bere egunean egin ez zena zentsura mozioen bitartez egitea iruzur politikoa dela gaineratu dute Aralarreko kideek.

Hasiera batean hainbat hedabidetan EAk alde bozkatuko zuela argitaratu bazen ere, EAk ezezkoa eman du, Arrasateko Udaleko oposizioko taldeen artean batasunik egon ez delako. Eusko Alkartasuneko herri batzarrean aho batez hartu zen erabakia. GOIENKARIA Ino Galparsoro Arrasateko alkatearekin harremanetan jarri da baina momentuz ez du adierazpenik egin gura izan.


**LOREAK** Isaias Carrasco hil zuten ondoan loreak, atentatu biharamunean. GOIENKARIA

**PP: BORONDATE FALTA EGON DA**
Zentsura mozioaren alde egin duten bakarrak popularrak izan dira. Maria Jose Usandizaga popularren Gipuzkoako presidentea triste agertu da mozioak aurrera egin ez duelako Arrasaten. Salatu du askatasuna gailentzeko borondate falta izan dutela hainbat taldek eta herriak "faktura" pasako diela.

## ALDERDIEN IRITZIAK

**PSE-EE**

### "Atentatuaren aurrean gaitzespena ez da nahikoa"

Miguel Buen Gipuzkoako sozialisten idazkari orokorrak hitz gogorrak izan ditu Eusko Alderdi Jeltzalearen kontra.

"Horrelako zentsura mozioek ez dutela laguntzen normalizazio politikoa lortzen. Eta herritar baten hilketa ez gaitzesteak zertarako laguntzen du?", adierazi du Buenek EAJren jarreraren aurrean. Gaineratu du Arrasate herri gobernaezina izango dela, edo gobernu bakoa.

**EAJ**

### "Pedagogia soziala eta politikoa landu behar dugu"

EAJren ustez, zentsura mozioa babesteak ez luke normalizazio politikorako jokaleku berririk irekiko.

Egibarrek adierazi zuen Galparsoro alkateak "dimisioa" eman behar zuela. Gaineratu zuen zentsura mozioa baino eraginkorragoa dela pedagogia soziala eta politikoa lantzea. Eguaztenean, ostera, Urkulluk esan zuen ETAk esandakoak gaitzetsi ezean, EAEko hautetsien dimisioa eskatuko dutela.

**EB-Berdeak-Zutik**

### "Herritarren emozioekin jolastu gura izan dute"

Ezker Batuko bi zinegotziak ez dira bat etorri alderdiko zuzendaritzak hartutako erabakiarekin.

"Hilketa zitala eta mespretxagarria izateak ez du esan gura edozerk balio duenik", gaineratu dute bi zinegotziek. Uste dute legitimoa dela sozialistek aldaketa eskatzea, baina herritarren hitza errespetatu behar dela gaineratu dute. Mozioaren bidez errentagarritasuna lortu gura izan dutela adierazi dute.

**Aralar**

### "Mozioak ez du herri honen arazoa konponduko"

Aralarrek beste behin adierazi du ETAren garaia agortua dagoela eta ez duela ezer berririk ekartzen herri honek bizi duen gatazka konpontzeko.

Arrasateko EAEren jarrera politikoki "salagarria" dela esan du Oxel Erostarbe Gipuzkoako koordinatzaileak. Hala ere, gaineratu du Arrasateko herria dela legitimitatea eman eta kentzen duena, eta hori hautestontzien bitartez egin behar dela.

**PP**

### "Izan duten jarrerak eragina izango du EAJrengan"

Maria Jose Usandizaga Gipuzkoako popularren presidenteak esan du Arrasaten gertatutakoaren ondoren, batzuek ez dutela indarrik batu gura izan "askatasuna" gailentzeko.

Modu horretan, EAJren jarrera salatu dute Gipuzkoako popularrek. Gaineratu du hauek egun tristeak direla demokratentzat eta, batez ere, euskal gizartearentzat. Horrek ondorioak ekarriko dituela esan du amaitzeko .

**EA**

### "Oposizioko taldeen babesik gabe ez dugu onartuko"

EAk ere ez du babestu PSE-EEren zentsura mozioa, Arrasateko Udaleko oposizioko taldeen artean batasunik egon ez delako. Eusko Alkartasuneko herri batzarrak martitzen iluntzean hartu zuen erabaki hori. Amaia Larrañaga alderdiko presidenteak jakinarazitakoaren arabera, 20 lagunetik gora elkartu ziren eta aho batez berretsi zuten alderdiaren exekutibak lehenago hartutako erabakia.

SEIN
grupo • taldea
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran
ARRASATE • TEL.: 943 712 425 • FAXA: 943 71 22 98 | ARETXABALETA • TEL.: 943 71 24 11 • FAXA: 943 71 20 04

**ETXEBIZITZAK** > ENERGIA AURREZTEKO NEURRIAK

# Eraikinak isolatuz energia aurrezteko proiektua bultzatu du Suradesak

Elgetako eta Aretxabaletako eraikinetan egin dute lehen proiektua

Isolamendu egokiak ez dituzten etxeetan egingo dituzte obrak, beste kapa bat emanda



**ERAIKINA** Domingo Iturbe kaleko 3. zenbakiko eraikina laugarren fasean dago. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldunditik 140.500 euroko dirulaguntzak lortu ditu Suradesak Debagoieneko etxebizitzetan energia aurrezteko lanak aurrera eramateko. Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuak emandako diruarekin Elgetako eta Aretxabaletako hainbat etxetan proiektu aitzindaria egiten dabiltza. Proiektua Elgetako Salbador kaleko 30. zenbakian, Torrealde kaleko 7, 8, 9 eta 10. zenbakietan eta Domingo Iturbe kaleko 3. zenbakian eta Aretxabaletako Santa Krutz kaleko 16 eta 18. zenbakietan dabiltza egiten.

**ETXEAK ONDO ISOLATU**

Ekimena Suradesak bultzatu du eta Roberto Martinez Suradesako presidenteak azaldu duenez helburua "etxebizitzen energia kontsumoa" murriztea da. Horretarako, isolamendu egokiak ez dituzten etxebizitzetan eraikinak dituzten birgaitze beharrak zehaztu behar direla azaldu zuen. Ondoren, energia aurrezteko egin behar diren lanak zehaztuko dira; eta, azkenik, eraikina behar bezala isolatuko da, fatxadan beste kapa bat emanda. Neurri horiekin, berogailua gutxiago erabiliko litzateke; eta, ondorioz, kontsumoa eta energia aurreztu.

**AURREZPENA ERLATIBOA DA**

Suradesako kudeatzaile Luis Laskurainek hauxe gaineratu zuen: "Energiaren kostuak duen goranzko joera ikusita, neurri horiekin asko aurreratuko dela uste dugu". Zenbateraino aurrez daitekeen galdetuta, Laskurainek azaldu zuen oso zaila dela zenbateko bat zehaztea. Izan ere, "familiaren bizitza moduarekin" zerikusia duela gaineratu zuen. Hortaz, aurrezpena erlatiboa izango da. "Beste herrialde batzuetan, Alemanian esaterako, %60ko aurrezpena izan dute isolatutako etxeetan", azpimarratu zuen Laskurainek.

Datuak obra egin aurretik eta ondoren jasoko dira. Horrela, etxe bakoitzeko kontsumo aldaketa zenbatekoa izango den zehaztuko da. Suradesa Elgetako eta Aretxabaletako eraikinetan egiten dabilen proiektua lau fasetan banatzen da: lehenengo fasean, aparailu zehatz batzuekin etxebizitzako tenperatura eta hezetasuna neurtuko dira; bigarren fasean, hobetu beharreko puntuak jasotzen dituen proiektua egiten da; hirugarrenean, proiektuan zehaztutako isolamendu termikorako obrak egiten dira; azkenik, laugarren fasean, tenperatura eta hezetasun datuak berriro ere biltzen dira, lehenengo faseko datuekin alderatzeko.

Proiektuko eraikin guztiek lehenengo fasea pasa dute. Domingo Iturbe kaleko eraikina laugarren fasean dago. Fatxaden isolamendu eta birgaitzeari buruzko informazioa eskuratzeko deitu Suradesako 943 79 33 99 eta 943 79 06 45 telefonoetara.

**HEZKUNTZA** > EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLAK ANTOLATUTA

# Hezkuntza Sistema Nazionala eskatzeko ekitaldi nagusia bihar, Bergaran

Ekainaren 21ean onartuko den Euskal Curriculuma izango da ekitaldien ardatz nagusia

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeko martxoaren 31n hasi zen kanpaina Bergarara iritsiko da bihar. *Herriz herri, egunez egun, urratsez urrats* lelopean, Euskal Herriak Bere Eskolak (EHBE) hainbat ekitaldi iragarri ditu; besteak beste, hitzaldia, jolasak eta kontzertua. Bestalde, Arrasaten eta Aretxabaletan ere hainbat ekitaldi egingo dituzte gaur eta bihar (ikus ondoko taula). Horren harira, herritar guztiak gonbidatu dituzte. "Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da helburu lortzeko", diote antolatzaileek.

**EUSKAL CURRICULUMA**

Bergaran bihar egingo duten ekitaldi nagusian, ekainaren 21ean onartuko den Euskal Curriculuma izango da ardatz nagusia: "Euskal Herriarendako egun historikoa izango da. Curriculum propioa izango dugu-eta", azaldu zuten EHBEko kideek, martitzenean, Bergarako kultura etxean egindako agerraldian.

Euskal Herriak hezkuntza sistema propiorik ez duela azpimarratu zuten, eta kanpainaren aldarrikapen nagusia honakoa da: "Hezkuntzaren gaineko erabakiak guk geuk hartzeko eskubidea izatea".




**ANTOLATZAILEAK** Argazkian, Bergarako ekitaldiko antolatzaileak. M.B.

## Egitaraua

**Arrasate, hilak 4**
17:30ean, jolasak Seber Altuben
19:00etan, ekitaldia Kulturaten

**Arrasate, hilak 5**
18:30ean, kontzertua
19:30ean, triki-betso poteoa

**Bergara, hilak 5**
12:00etan, hitzaldia Jose Luis Elkororekin, udaletxean.
17:30ean, jolasak Munibe plazan.
19:00etan, ekitaldi nagusia Munibe plazan.
23:00etan, Emon taldearen kontzertua Pol-Pol tabernan.

**Aretxabaleta, hilak 5**
Eguerdian: kalejira eta argazki herritarra

**TURISMOA** > BARTZELONAKO TURISMO FERIA

# Debagoiena Bartzelonako turismo ferian

Apiril erdialdera egingo den ferian 75 herrialdetako erakusmahaiak egongo dira

Debagoienaren eskaintza turistikoak ere izango du bere txokoa Gipuzkoako erakusmahaian

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Apirilaren 17an, 18an, 19an eta 20an, XVII. SITC (Kataluniako Turismoaren Nazioarteko Erakustazoka) turismo feria ospatuko da Bartzelonan. Guk ere izango dugu ordezkaritza bertan. Eusko Jaurlaritzak jarriko duen erakusmahaiak atal desberdinak izango ditu, eta Gipuzkoako probintziari dagokion erakusmahaian Debagoiena egongo da ordezkatuta. Ordezkari moduan Ana Heriz Mankomunitateko turismo teknikaria izango da bertan.

Gipuzkoak ipiniko duen erakusmahaian, gure eskaintza turistiko guztia erakutsiko die bertara hurbiltzen direnei: mendi ibilbideak, ibilbide kulturak, Arrikrutz... Azken finean, zerbitzu turistikoen inguruko informazioa emango da. Turismo azoka horren helburua "komunitate desberdinek dituzten produktuen promozioa egitea da, informazioa eskainiz, produktu hauek turista talde desberdinei zuzenduz: turismo kulturala egin nahi dutenei, naturako turismoa...", adierazi digu Ana Heriz turismo teknikariak.


**ARRIKRUTZ** Debagoieneko eskaintzaren barruan egongo dira kobak.

**FERIAKO DATUAK**

Turismo feria hori Montjuic inguruan egongo da. Guztira 56.000 m$^2$-ko lurzorua. Bertan, 75 herrialde ezberdinetatik joango diren 1.500 erakusmahairen eskaintzak ikusi ahal izango dira. Ferian egongo diren sektoreen artean, hauek aipa ditzakegu: bidaia agentzia eta bitartekariak, turismo gastronomikoa, formazio eta zerbitzu turistikoak, nautika eta abar.

> ERREPIDEAK

## Aldundiak bi milioi euroko inbertsioa egingo du Bergaran

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2 milioi inbertituko ditu Bergaran, GI-627 errepidean konponketa lanak egiten; Zerrajerako lantegia dagoen biribilgunetik hasi eta Hondartzako ordainlekuko biribilgunea dagoen tokiraino. Hain justu, tarte horretan, lau kilometro konponduko dituzte guztira.

Lanak ondorengoak izango dira: errepidearen egitura birgaitu eta bi zubiren eta azpiko bi pasabideren euste sistemak egokitu. Era berean, 2,8 kilometrotan zehar hormigoizko arekak egingo dira, 1,50 metro zabaleko zortzi zati, eta baita luzera txikiagoko beste batzuk ere. Azkenik, lau kilometro horietan zehar dauden hogei kutxeta berregiteaz batera, sostengurako harrilubeta bat egingo dute, eta lurreko seinaleak berriro margotuko dira.






**EUSKAL PRESOAK** > GOSE GREBA

# Xabier Arregi bergararra gose greba mugagabean Fontcalent-eko espetxean

Xabier Arregi apirilaren 1ean hasi zen gose grebarekin euskal presoek jasaten duten egoera salatzeko

**J.Z.** > BERGARA

Fontcalenteko (Alacant) espetxean dauden hamaika preso politikoek gose greba mugagabea hasi dute. Horien artean, Xabier Arregi bergararra dago. Martxoaren 17tik 23ra espetxeak ematen zien jana hartzeari uko egin zioten eta apirilaren 1ean gose greba hasi zuten.

Askatasunaren esanetan, hau da gose greba hastearen arrazoia: "Bakartze politiko argia da espetxe honetan aurrera eramaten dutena. Horren aurrean, bertan dauden preso politikoek nahikoa dela esan dute eta borrokaldia abiatu dute egoera hori gehiago luza ez dadin". Askatasunak zera gaineratu du: "azken urteotan espetxe honetara gero eta euskal preso politiko gehiago eramaten dituzte, eta horrekin batera bizi baldintzek okerrera egin dute; egun muturrekoak diren egoerak ematen ari dira".

**GARZONEK AUZIPETUA**

Garzonek, bestalde, asteon amaitu du 2002an Batasunaren aurka abiarazitako sumarioa. 41 lagun auzipetu ditu, "erakunde terroristako kide" izatea egotzita. Auzipetuen artean Jose Luis Elkoro bergararra dago –aske gaur egun.


GOIENKARIA

## 12.000 metro koadroko lantegia inauguratu du Ulmak Legazpin

Eguaztenean egin zuten Precinox lantegiaren inaugurazio ekitaldian, zinta moztu zuten Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Ana Agirrek, Ulma Taldeko zuzendari orokor Txomin Gartziak (ezkerrean) eta MCCko Presidente Jose Mari Aldekoak (eskuinean). Haiekin batera egon ziren Sotero Plazaola, Legazpiko alkatea; Arantza Tapia, Mugikortasun eta Lurralde Antolamendurako diputatua; Inazio Agirre, Ulma Packageko gerentea; eta Fernando Gorostidi, Precinoxeko gerentea.

## gure artekoak

**C5** > Citroen etxea merkaturatu berri duen azken autoaren publizitate kanpainan buru belarri dabil. Arrasateko Chapime tailerreko Victor Blazquezek azaldu dizkigu C5 autoaren berritasun nabarmenenak.

**Victor Blazquez** > Talleres Chapimeko salmenta arduraduna

# "Euroncap neurketan lortu daitekeen maila altuena du"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Auto berri-berria da Citroen etxeko C5a; martxoan merkaturatu zuten eta oraindik publizitate kanpainarekin hasi barik daude. Aurreko modeloa baino zortzi zentimetro zabalagoa da autoa. Diseinuari dagokionez ere aldaketa batzuk izan ditu; oraingo autoak diseinu deportiboagoa du. Bi karrozeria ezberdinetan merkaturatu dute: Berlina eta Tourer.

Motorrari dagokionez, gasolinazko hiru aukera (127 zaldi potentziatik 215 zaldi potentziaraino) eta dieselezko lau aukera daude ( 110 zaldi potentziatik 208 zaldi potentziaraino).



Victor Blazquez C5 autoa erakusten. A.E.

**EURONCAP ZIGILUA**

Europa mailan egiten den Euroncap testa oso emaitza onekin pasa du C5 berriak. "Bost izar lortu ditugu; hau da, lortu daitekeen maila altuena", gaineratu digu Victor Blazquez salmenta arduradunak. Test horren bitartez, autoaren segurtasuna neurtzen da. "Gaur egun merkatuan dauden segurtasun neurri guztiak ditu C5 autoak", dio Blazquezek.

Autoaren beste berritasun bat da, abiadura 45 km/h baino txikiagoa denean, ohiko argitasun sistemari 75 graduko zabalera hartuko duen beste argi bat gehitzen zaiola. Argi hori, autoak biratu behar duen aldearen arabera piztuko da: hau da, ezkerrera edo eskumara.

**C5 (aluminioa)**
**1.6 HDI 110 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 22.740 euro |
| Luzera | 4,76 metro |
| Zabalera | 1,86 metro |
| Maletategia | 439 litro(1) |
| Kontsumoa | 5,6 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 191 km/h(3) |
| Otik 100era | 12,2 seg. |
| CO2 isurketak | 149 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**MALETATEGIAREN ATEA ZABALA**

Autoa lau atekoa da eta, maletategiko sarrera ohikoa baino zabalagoa da: "modu horretan gauza handiak sartzeko ez du arazorik ematen".

Beste ezaugarri bat da klimatizagailu bizonala. Gainera, klimatizagailuak aireko kutsadura antzematen du eta horren aurkako filtroa du; hala, % 90ean gutxitzen ditu partikula txarrak.

## etxeko leihotik



**Goiatz Arana** > GOITBko erredaktore-burua

# Ez naiz ni irakurle amorratua, baina...

Astean izan da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, eguaztenean, eta umetan liburutegira joandakoan hartzen nituen liburuak ekarri dizkit gogora: *Joxepi dendaria* eta *Teo*. Atsegin nituen mutiko ile kizkurdun haren istorioak. Eta *Joxepi dendaria*? Ez dakit nik ze demontre duen liburu horrek, baina liburutegira joaten nintzen aldiko hartzen nuen! Bateko zein besteko marrazkiek eta horiek ikusita nik neuk imajinatzen nuen munduak erakarriko ninduten, seguru. Hala esan du Lur Korta ipuin kontalariak Arrasatera egindako bisitan: liburuen formekin eta barruan daramatzaten irudiekin jokatu behar dela txikien arreta bereganatzeko. Egia.

**"Marrazkiekin bereganatzen dira haurrak, testuarekin baino gehiago"**

Umeengan irakurzaletasuna sustatzeko, gurasoek etsenplua ematearen garrantzia ere azpimarratu zuen, eta horretan ere ez diot arrazoi faltarik ikusten. Baina erregela hori gure etxean ez da erabat bete: nire aita-amak ez dira aparteko irakurleak, ezta ni eta nire ahizpetako bat ere. Bestea, ordea, irakurle amorratua da: gaur egunkaria irakurtzeko astirik izan ez, eta biharko gordetzen duen horietakoa!

**> Hastea** da gehien **kostatzen zaidana. Baina behin liburuaren lehen orriak pasa eta haria hartuta, irakurtzeko irrikaz egoten naiz. Negar ere egin izan dut irakurketa saio batzuetan, hunkituta.**

**> Hilaren 23an** Sant **Jordi eguna ospatuko dute Katalunian. Arrosaren bat jasotzeko esperantza badaukat; eta badakit zein liburu erosiko dudan ere, trukean emateko: *O neno do pixama a raias*.**

## begi-bistan



**Ganbara Txiki abesbatza, Madrilen (Oñati) 2008/03/23**

**Argazkia:** Aitor Biain.
**Testua:** Mireia Bikuña.

Ganbara Txiki abesbatzak bi kontzertu eskaini zituen Madrilen, martxoaren 22an eta 23an. Hain justu ere, San Juan Bautista eta San Eloy elizetan. Gustura itzuli dira esperientziarekin.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Pello Zabala**
EGURALDI IRAGARLEA

Apirilaren 1ean Meteorologiaren Nazioarteko Eguna ospatu zen. Horren harira, Pello Zabalak *La observación meteorológica desde el antiguo testamento* izeneko hitzaldia egin zuen Donostian. Hilaren 20ra arte eguraldi nahasia izango dugula esan zuen.



**Inazio Arregi**
IRRATI ESATARIA

Radio Euskadik 25 urte bete ditu. Inazio Arregi jesuita oñatiarra Radio Euskadiko zuzendaria izan zen 1985eko martxoaren 31ra arte. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta irratiko zuzendari ohiak gonbidatuko dituzte, besteak beste.



**Lore Mar**
PERTIKA-JAUZILARIA

Benicassimen (Castello) egon ziren Lore Mar eta Maialen Axpe Arrasateko pertika-jauzilariak. Hain zuzen, pertika-jauzia egiteko teknikak hobetzeko entrenamenduak egin zituzten sei egunean. Haiekin batera egon zen Jonathan Perez entrenatzailea.

Iñaki Aizpuru botanikan aditua da. Aranzadi zientzia elkarteko Botanika saileko presidente izandakoa da; eta gaur egun Aranzadiko kide bezala dihardu. Joan zen astean Bergaran izan zen, Jose Antonio Aperribai bergararrak landare sikuen gainean zabaldu duen lokalaren inaugurazioan. Aizpuruk Debagoieneko landaretzaz hitz egin digu.

**Iñaki Aizpuru** > Aranzadiko Botanika saileko presidente ohia

# "Pirinioak eta Kantabriako mendilerroa lotzen dituen pasabidea ibarrean dago"

MIRIAN BITERI > BERGARA

**Iñaki Aizpururen ustez, botanikaren arloan, Debagoiena oso interesgarria da. Udalatx, Aizkorri eta Zaraiako inguruneak aipatu ditu. Pirinioak eta Kantabriako mendilerroa lotzen dituen pasabidea ibarretik pasatzen dela ere nabarmendu du.**



Aranzadiko Botanika saileko presidente ohi Iñaki Aizpuru Bergaran izan zen joan zen astean. JASONE ZABALA

**Zenbat urte daramatzazu Euskal Herriko botanika aztertzen?**

Urteak azkar pasatzen dira. Dagoeneko 30 bat urte eramango ditut mundu horretan sartuta. Ikasketak amaitzean landareekin hasi nintzen eta zeregin horretan dihardut gaur egun. Ez naiz aspertzen, beti ikasten dira gauza berriak. Pausuak ematen diren bakoitzean, bide berri gehiago zabaltzen dira.

**Zer diozu Debagoieneko landaretzaren gainean?**

Oso gauza interesgarriak daude bailara horretan, mendi asko dituelako. Alde batean, Udalatx dago eta bestean, Zaraia eta Aizkorriko mendiak aurkitzen dira. Toki horietan gauza interesgarriak eta batzuetan, arraroak topatzen dira.

**Kopuru aldetik ugaria dela esan daiteke?**

Bai. Gipuzkoan 2.000 landare espezie baino gehiago dago; arbolak ere 100 eta 150 mota artean daude. Horietatik, gehienak Debagoienean ere badaude. Kopuru handiak dira guztiak ezagutzeko.

**Zeintzuk dira komunenak?**

Jende gehienak ezagutzen dituena arbolak dira. Bailarako beheko partean haritzak ematen dira gehien. Horrez gain, Udalatxeko azpiko partean artadiak ditugu. Mendian gora igotzen dugunean, berriz, pagadiak nagusitzen dira. Baina, horrez aparte, zuhaitz asko landatu dira, hala nola, pinuak. Egurra ekoizteko landatu izan dira horiek.

**Berezitasunik al du Debagoienak inguruko eskualdeekin alderatuz?**

Arrasaten Udaletxeko artadiaren kasua dago. Gipuzkoan hor bakarrik dago. Ez hori bakarrik. Bizkaian ere toki bakarrean dago eta Araban, arbola hori topatzeko, Errioxa aldera joan beharra dago. Mediterraneoko zuhaixka da. Bestalde, badira landare batzuk, urte asko dituztenak eta oraindik mantentzen direnak. Baina, ez gara kapaz berriz

ABERATSA

**"Gipuzkoan aurki daitezkeen landare espezie gehienak bailaran ere badaude"**

topatzeko, zaila da horiek aurkitzea. Euskal Autonomi Erkidegoan Debagoienean baino ez da halako bitxitasunik aurkitu.

**Zeintzuk dira gune interesgarrienak?**

Udalatxeko inguruez gain, Aloña ere oso aberatsa da, landare asko ditu. Araotz aldean ere

UDALATX

**"Udalatxen artadi bat dago. Gipuzkoan hor bakarrik dago. Mediterraneokoa da"**

beste landare mota batzuk aurkituko ditugu, gure artean gutxi dauzkagunak.

**Zuk zeuk zer nabarmenduko zenuke bailaratik?**

Bi mendikate artean dago eta hori oso garrantzitsua da. Alde batetik, Urkiola eta Gorbeia aldeko mendiekin eta bestetik, Ara-

GIZAKIA

**"Gizakiak natura aldatzeko baliabideak ditu. Debagoiena horren adibide da"**

lar eta Aizkorri daude. Arantzazu eta Arlaban bitarte hori animalia nahiz landareendako pasabide oso interesgarria da. Espezien isolamendua ekiditeko horrelako pasabide ezinbestekoak dira. Pirinioak eta Kantabriako mendilerroa lotzen duen gune hori bailaran bertan izateak garrantzi handia ematen dio.

**Bergarak, bestalde, lorategi asko ditu. Hor dago, esaterako, Irizar jauregikoa. Zein da duen garrantzia?**

Orain arte ondarea arkeologia eta kulturarekin lotzen zen. Baina, beste egitura motako ondarea dagoela ikusi izan da. Loretegi historikoak hor daude. Gure historiaren zati bat dira. Badakigu kultura aldetik, Bergarak bultzada handia izan zuela XVIII. eta XIX. mendeetan. Orduan egindako gauzak gugana iritsi dira eta gure ondorengoak horietaz baliatzea onuragarria izango litzateke.

**Zer deritzozu modan jarri diren Zuhaitz Egunen gainean?**

Gauza guztiak bezala, alde onak eta ez hain onak ditu. Horrek onak ditu txarrak baino. Alegia, gutxienez urtean behin jendeak konturatzea zuhaitzak beharrezkoak direla. Hortaz, kalterik ez du egiten.

**Oro har, errespeturik badiogu landaretzari?**

Hori erlatiboa da. Norekin alderatzen garen araberakoa da. Erdi mailan gaude. Oraindik bide luzea geratzen zaigu errespetu hori dugula esateko. Baina, interesa izanez gero, aurrera pausu handiak eman daitezke.

**Zeintzuk dira landaretzaren arrisku nagusienak?**

Gizakiak natura aldatzeko baliabideak ditu. Debagoiena horren adibidea da. Azpiegiturek, industriek eta horrelakoek kalte egiten diote naturari. Horrez gain, jende asko bizi gara toki txiki batean eta horrek ere eragina du. Bada. gure aldetik zerbait jarriz gero, egoera hobetu daitekeela uste dut. Gauzak hobeto egin daitezke eta horretan gabiltza.

**Bada gurean galtzeko arriskuan dagoen landarerik?**

Bai. Udalatxen, esaterako, badira espezie batzuk. Adibidez, mendi altuetan ematen den margarita antzeko bat. Bestalde, Aloñan eta Araotz inguruan ematen diren landareak ere zaindu behar dira, toki gutxitan daudelako.

**Duela urte batzuk Insignis Pinua zen deabrua. Jarraitzen du izaten, edo orain beste bat dago?**

Pinu hori ere zuhaitz bat da. Arazoa dator larregi zabaltzen denean, beste espezie bati tokia kenduz. Gauza askok egiten dio kalte naturari, ez pinuak bakarrik.



zabalik

Arantxa Jaka

# Denak integratuta?

Gure herrira gero eta gehiago dira bizitza hobe baten bila datozenak. Kanpotarren agerpenak berarekin darama egoera bat adierazten duen hitz zehatzaren erabilpenak: integrazioa. Ezin ukatu kanpotarrak susmagarriak gertatzen direla okerren bat gertatuaz gero, eta horren arrazoi bezala jartzen dugu: ez daude integratuta, bizimodu normal batera ez daude ohituta... Ez dut ukatuko batzuetan hori gertatuko denik, eta ahalegin guztiak egin beharko ditugu egoerak bideratzeko. Hala ere, beste gertaera batzuk ze pentsatu ematen didate. Beharbada, errazegi jartzen dugu kanpotarrengan integrazio falta, baina zer gertatzen da ezagunak ditugun gure herriko hainbat seme-alabarekin? Askatasunaren eta bakoitzak nahi duena egin dezakeenaren izenean edozer egitea bidezkoa dirudi, nahiz eta horrek besteei eskubideak eta askatasuna kendu. Eta horrek kezkatzen nau. Ez ekintzengatik bakarrik, baizik eta, batez ere, pertsonak daudelako jokoan: eurak eta besteak.

**"Askatasunaren izenean edozer egiteak bidezkoa dirudi"**

**"Ez dira kanpotarrak, baina integratuta ote? Etxekoa begiratzea ahaztu egiten dugu"**

Adibide pare bat. Gure komentuko sarrera, aterpea daukalako edo, oso bilatua da mutil (ez neska) taldeengatik, txoko horren jabe eginaz eta ez modu onean, gainera. Horrekin batera, porro asko (horrek dakarren ondorioekin), txualdiak nonahi, zikinkeria, txirrina jotzea, atea kolpeka, musika, bizikleta... A! Eta kontuz atera eta zerbait esatearekin, modu onean bada ere. Ez noa erantzunak idaztera, baina entzuten ez badira ezin dira sinistu.

Bigarren gertakaria. Aste Santuko ostegun arratsaldean, herri bateko elizan ospakizunean zeuden bitartean, neska batek atea ireki eta "¡viva la juventud!" esanaz batera, barrura zerbait bota omen zuen. Irteterakoan jendea makurtu eta jasotzen hasi zenean zerekin aurkituko eta preserbagarriekin.

Bi adibideokin non gertatu baino gehiago pertsonoi zer gertatzen ari zaigun azaldu nahi dut. Ez dira kanpotarrak, baina integratuta ote? Agian, eta zoritxarrez, etxekoa begiratzea ere ahaztu egiten dugu.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## ZIRKULAZIO ISUNAK ARETXABALETAN

**Aretxabaletako irakurle batek mezua bidali digu galdera honekin: "Lagun batek esan dit zirkulazio isunak Udalak bideratuko dituela laster. Noiztik aurrera?**

Asteon hasi da Udala herriko zirkulazioaren gaineko kontuak bideratzen. Hain justu, apirilaren 1etik aurrera. 2007ko martxoaren 12an egindako osoko bilkuran onartu zuten ordenantza, eta apirilaren 1etik aurrera dago indarrean.

2008ko urtarrilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten zirkulazioaren ordenantza, behin betiko onartu eta gero. Hor zehaztu dituzte automobilek, bizikletek, motorrek, beste edozein eratako ibilgailuk eta oinezkoek bete behar dituzten arauak, eta arau horiek ez betetzeak ekarriko dituen zigorrak. Horren berri zehatzagoa izan nahi duenak Udaltzaingora jo dezake edo Udalaren webgunean begiratu, ordenantzen atalean: *www.aretxabaleta.com*.

Esan bezala, arau-hausteengatik ezarritako zigorrak Udalak berak bideratzen ditu apirilaren 1a ezkero. Hala, oinezkoen pasabidean autoa lagatzeagatik, 75 eurokoa izango da isuna; bigarren ilaran lagatzeagatik, 50 eurokoa eta kontrako noranzkoan gidatzeagatik ere, 50 eurokoa, besteak beste.

Udaltzainek jarritako isunek murrizketa izan dezakete: isuna jarri eta astebetera ordainduz gero, %50eko murrizketa; 15 eguneko epean ordainduz gero, %30.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## KASABLANKAKO URBIETA GUNEAN TASATUTAKO ETXEAK

**Noiz onartuko du Udalak Kasablankako Urbieta gunean egingo dituzten etxe tasatuetarako izena eman dutenen zerrenda? Oñatiko irakurle batek egin digu galdera hori.**

Apirileko osoko bilkuran onartuko dute izena eman dutenen behin betiko zerrenda. Datorren asteko Gobernu Batzordean behin behinekoa onartuko dute eta 15 egunez jendaurrean jarri eta gero –alegazioak egiteko epea izango da hori–, hil bukaerako osoko bilkuran onartuko dute behin betikoa.

Hain justu, Kasablankako Urbietako gunean egingo diren etxe tasatuetarako 35 lagunen eskaerak jaso dituzte, horretarako zabaldu zuten bulegoan. Elbarrien –etxebizitza bat– eta familia ugarien –hiru etxebizitza– etxeetarako ez da inor apuntatu. Etxebiden lau urtetik gora izena emanda daramatenendako hiru etxe daude, eta hamar eskaera jaso dira. Hala, hiru etxeok eskuratzen ez dituztenek beste aukera bat izango dute kupo orokorrean, beste 25 eskaerekin batera.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

# Rex erectus est

**Markos Zapiain**
http://eibar.org/blogak/zapiain

Hedabideek zabaldu dutenez, mutil gazteak gero eta arinago doaz putetxera. Ematen du sexu harremana lehenbailehen gauzatuz sedukzioaren bide luzea aurreztu gura dutela. Nahiago dute ezetzaren arriskua uxatu eta sentimenduen zailtasunei ihes egin. Kant-ek zioen ezkontza funtsean bikotekidearen sexu organoak esklusibotasunez erabiltzea bermatzen duen kontratua dela. Gaurko gazteek eta Kant-ek antzeko jarrera antisentimentala erakusten dute.

Genitalitatearen eta ernalkinen garaipen osoa dugu hemen, eta ez da txiripaz Espainia bezalako Monarkia batean gertatu. Izan ere, gorputza ez da anabasa; politikoki dago antolatua. Haurtzaroan sexu indarra gorputz osoan gaindi dabil atzera eta aurrera, erdigune finkorik gabe, harik eta zenbait guduren ostean behin betiko antolakuntza erabakiko den arte, ernalkinen nagusitasuna. Erregea gorputz politikoaren ordezkari den legetxe, zakilak ere larrua jotzean herri osoaren ordezkaritza bereganatzen du, berez gorputz osoan joan-etorrian dabilen sexu indarra zakilean biltzen eta bermatzen baita. Zakila aztiaren makilatxo magikoa da, gorputz osoko erotismoa xurgatu eta bereganatzen duena. Organo bakar baten tirania dugu hor gorputz osoaren gainean, atal batek osotasuna ordezkatu eta menperatu baitu.

Hain zuzen, gorputzaren antolaketa tiraniko hori, Norman O. Brown-en ustez, Monarkia Konstituzionalari dagokio (*Love's body*, 126-129

plazara

**Euskak Herriak bizirik iraun eta garatzeko ezinbestekoa du Hezkuntza Sistema Nazionala antolatzea, Aiora Filarmendiren ustetan. Baina, beharra izateaz gain, euskaldunon nahia ere badela dio; eta, are gehiago, eskubidea. Horren guztiaren oinarri elkartasunak eta auzolanak izan behar dutela nabarmentzen du eta hori gauzatzen joateko aukera izango dugula dio, abian jarri duten kanpainarekin.**

Aiora Filarmendi *

# Euskal Herriak Bere Eskola

Frantziako Iraultzarekin batera, hezkuntzaren aro modernoa iritsi zen Europara. Estatu indartsuenek beren nazio izaera indartzeko baliatu zuten hezkuntza, hauen artean Frantzia eta Espainiak. Bi estatu indartsu horien atzaparretan harrapatuta zegoen Euskal Herria. Hala ere, garai hartako euskaldunek gogoz ekin zioten gure nortasuna, hizkuntza zein kultura bizirik irauteko lanari. Milaka irakasle euskaldun erbesteratu ostean eta errepresio gordinak iraun arren, aurkitutako zirrikituak erabili zituzten euskal kultura eskolaren bidez transmititzeko. Ezina ekinez egiten dela erakusten digute datuek: 1965ean 596 haurrek ikasten zuten ikastoletan; 1979an, aldiz, 176 ikastola ziren gure herrian. Urteak aurrera joan ahala euskarazko irakaskuntzak emandako urratsak ez ziren txikiak izan. Auzolanean, herri mugimendu indartsuaren magalean, dozenaka eskola publiko erdaldun euskaldundu ziren.



MIKEL ARROIABE

Inposaketa eta oztopoz betetako bidea izan da gurea. Baina frankismo garai gogorrenetatik aurrera egin badugu, hezkuntzako proiektu euskaldunek herri babesa izan dutelako izan da. Hemendik aurrera ere, esku artean ditugun proiektu handiek aurrera egingo badute, herritarren babesarekin izango da, horretarako behar dugu herri mugimendu indartsua.

Horri erantzuteko bokazioz sortu ginen; 70-80ko hamarkadako mugimenduaren loraldia berritzeko asmoz. Euskal Herriak bizirik iraun eta garatzeko ezinbestekoa du Hezkuntza Sistema Nazionala (HSN) antolatzea. Inposaketen aurrean irauteko zein hasierako euskarazko irakaskuntzak aurrerapauso kuantitatibo zein kualitatiboak emateko behar dugu HSN: euskal nortasunak eta kulturak mundu globalizatuan bizirik irauteko, belaunaldi berriak balio aurrerakoietan hezteko, jendartearen garapenerako goi mailako hezkuntza antolatzeko.

Baina, beharraz gain, euskaldunon nahia ere badelako. Hamaika aldiz erakutsi dugun moduan, herri honek HSN antolatzeko nahia duelako. Eskolaren bidezko euskalduntzea bermatzeko burutu ditugun salaketa eta indar bilketetan erakutsi dugulako. Curriculum nazional eta burujabearen definizio fasean emateko ari garen urratsek erakusten digutelako. Euskal Unibertsitatearen proiektuak epe motzean izango duen ibilbideak erakusten digulako.

**"Herriz herri, egunez egun, urratsez urrats... Hezkuntza Sistema Nazionala' kanpaina garatuko dugu Euskal Herrian barrena"**

**"Beharra, nahi euskaldunon eskubidea da Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzea"**

Beharraz eta nahiaz gain, eskubidea dugu. Euskal Herriak HSN izateko eta arautzeko eskubidea du. Eskubide hau nazioarte mailan aitortzeaz gain, herri honek aitortu dio behin eta berriz: herri aldarrikapenetan eta duela ez asko, nazio eztabaidagunearen magalean jaiotako eta ehunka herritarrek babestutako *Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa*-n.

Beraz, zatiketak gainditu eta bakoitzak berean, baina norabide berean jardun behar dugu, hezkuntza eskubideak bermatuko dituen HSN eraikitzeko. Elkartasuna eta auzolana izan behar ditu oinarrian mugimendu honek eta horretarako parada izango dugu datozen bi hilabeteetan Euskal Herrian zehar garatuko dugun *Herriz herri, egunez egun, urratsez urrats… Hezkuntza Sistema Nazionala!* dinamikan. Hori baita bi hilabete hauetako helburua. Herriz herri egiten duguna HSNren norabidean kokatzea. Egunez egun eraikitzen dugunarekin, HSN antolatzetik gertuago egongo garela irudikatzea eta urratsez urrats, bidean gero eta gehiago garela argi erakustea.

*Aiora Filarmendi, Euskal Herriak Bere Eskola taldeko kidea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Eroaten duzu umea liburutegira?

| | |
|---|---|
| BAI | %90 |
| EZ | %10 |

**> SAIATZEN NAIZ**
Astean birritan joaten gara eta txikitxoendako liburutegian ematen dugu denbora apur bat. Ez dakit lortuko dudan baina irakurzaletasuna piztu nahiko nuke alabarengan.
**Aitziber**

**> GUSTURA JOATEN DA**
Nire alaba gustura joaten da. Ipuinak txiki-txikitatik ditu gustuko eta liburutegira joaten garenean, apaletatik gustukoen duen ipuina hartzen du eta etxera eroaten dugu.
**Mikel**

**> BAI**
Nire semeari ere gustatzen zaio joatea. Mutil handien moduan egiten duelako edo, baina beti bueltatzen gara etxera liburu edo DVD batekin.
**Ainara**

**> ORAINDIK EZ**
Gure Maitek hamaika hilabete ditu eta oraindik oso txikia da, baina aurrerago eroateko asmoa daukat.
**Amaia**

**DATORREN ASTEKOA: Gustatu zaizu MCCren irudi berria?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

or.). Erregea herriaren tentetze politikoa da. Gorputz politikoan tentetzen den zakila da erregea. "Rex erectus est" esaten zuten erromatarrek: erregea eraiki egiten da, altxatu; orobat zakila. Erregeak koroa janztea eta zakilean kondoia jartzea bat datoz. Xalbadorrena poxi bat aldatuz, "herria da gorputza, monarka zakila".

Kontuz ordea: orgasmoa frantziar iraultza baita, ahitu egiten du erregetza, aluko gillotinak burua ebaki dio monarkari. Ondorioz, zeharo genitalizaturiko gorputzaren jabeak ezin du eraman orgasmoaren osteko harremana, ez du sexukidearen kalaka jasateko aski kemen. Nekrofilo batek adierazi zuen nahiago zituela hildakoak biziak baino, hildakoek txorta ostean ez dizutelako kaka esplikatzen.

Zer ote zaio espainiar gazteari gogorrago, txorta aurreko sedukzio lana ala txorta osteko elkarrizketa? Beharbada biak berdintsu. Ez da ahaztekoa edozelan ere Norman O. Brownen itxaropena: baliteke zakilaren erregetzan oinarrituriko giza gorputzaren egituratze politiko hori historikoa izatea, aldakorra. Menturaz etorkizunak antolaketa politiko-sexual guztiz berri bat ekarriko digu.

## Radio Euskadik 25 urte

**Gotzone Elu**
http://goiena.net/blogak/bidasoatik

Dutxara eramaten zaituztet, eta iragartzen duzuen tenperaturaren arabera erabakitzen dut zer jantzi lanera joateko.

Larunbatero gosaltzen dugu zuen *Cocidito*-arekin, eta Ganbara konpainia ona dugu gauero.

Zorionak egiten dituzuen saioengatik!

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Ipuinak

Haur liburuen eguna zela,
koplatan nahi dut gogora.
Esku artean ipuin bat duen
umeren bat egongo da.

Ipuina entzun eta lotara
joaten nintzen umetan;
eta oraindik loak hartzen nau
ipuinekin ametsetan.

Zein maltzurra zen otsoa eta
zein zintzo Txanogorritxo.
Orain edozein txokotan dago
bat, bi zein hiru txerritxo.

Makinatxo bat Mari Errauskin
ingurura begirata;
baina ez dago Printze Urdinik
haiei janzteko zapata.

Ipuinak utziz orrietatik
pasa dira pantailara;
eta gaitzerdi haur txikiren bat
begira egoten bada

Liburu eta ipuin berriak
ikusgai jarririk plazan.
Hala bazan edo ta ez bazan,
sar dadila kalabazan.

# Zentsura mozioa eta eskubide demokratikoak

**Jose Antonio Etxague**
Arrasate

Ez da ez ohikoa demokrazian, indar politiko batzuek gobernu ardurak dituen eta modu desegokian diharduen beste indar politiko baten aurkako zentsura mozioak aurkeztea; edozein dela erakundeen maila, ohikoa da hori. Esan daiteke demokraziaren kontrol tresna garrantzitsuenetakoa ere badela. Baina gauza guztiek dutenez bere muga, etikoki eta demokratikoki onargarria da zerbait exijitzea eskubide demokratikoak –horien artean adierazpen askatasuna, batzekoa eta manifestazioak egitekoa– modu injustuan ukatuak dituenari? Onargarria da, ikuspuntu honetatik, zentsura mozioak aurkeztea horrelako jazarpenak pairatzen dituenaren eta eskubide demokratikoak behin eta berriz urratuak dituenaren aurka? Eta zer esanik ez, zentsura mozio horiek aurkeztea eskubide horiek urratzen dabiltzanekin batera?

Bada, horiek lirateke alderdiek euren buruei egin beharreko galderak, EAE-ANVren aurka PSOEk eta PPk bultzatutako mozioekin aurrera egin baino lehen. Nire ustez oso injustizia handia eta demokraziaren aurkakoa izango litzateke aipatu bi partidu horiekin EAE-ANVren aurkako zentsura mozioa adostea, edozein dela arrazoia, eta Euskal Herriari ez lioke mesederik egingo.

Herritar askok ez luke ulertuko bat egitea euskal herritarren zati bati eskubideak urratzen dizkiotenekin. Azaltzeko zaila izango litzateke EAJ, EA, Aralar edo EBk alderdiek bat egitea —mezatara joateko ere ados jartzen ez direnean— alderdiak eta ideiak legez kanporatu dituztenekin; ehunka euskal herritar eta dozenaka agintari kartzelara eroan dituztenekin; hedabideak itxi dituztenekin; tortura baimendu edo justifikatu dutenekin; eta, azken finean, herritar askoren eskubideak bortxatu dituzten eta egunero bortxatzen jarraitzen dituztenekin, batez ere zentsura mozio honen jomugan daudenen eskubideak urratzen dituztenekin.

Gutxienez, espero zitekeen etika eta dezentziagatik ez bada ere, baldintza moduan jartzea eskubide bortxaketa horiekin guztiekin amaitzea. Bestela, ez lirateke gutxi izango pentsatuko luketenak urraketa horiek legitimatzen dituztela.

Azken hauteskundeetan herritar askok (horietako asko, lerro hauek zuzentzen dizkiedan alderdietako boto emaile izan direnak), abstentzio aktiboarekin, beren ezadostasuna erakutsi zuen Euskal Herriaren eskubideen aldeko konpromisorik eza dutenekiko eta eskubide demokratiko eta zibilak urratzen dituztenen lagun direnekiko. Mezua ulertuko zutela espero dut. Etika eta dezentzia demokratikoengatik ez bada ere –azkenaldian asko kotizatzen duten baloreak– gutxienez pentsa dezatela ondo zer egiten duten kalkulu elektoralengatik baldin bada ere.

# Giza eskubide guztien alde, beti bezain tinko

**Rebeka Ubera**
Aralarren eleduna Gipuzkoako Batzar Nagusietan
Elgeta

Aralarrek giza eskubideen urraketa oro gogor eta tinko salatzen du. Onartezintzat jotzen du orotariko urraketa, dena delarik urraketa horren sustatzailea eta egilea. Aralarren aburuz oinarrizkoa baita, gizartean aurrera egiteko, justizia sozialean oinarrituriko gizarte kohesionatua izateko giza eskubide guzien errespetua, defentsa eta lorpena helburu izatea bai pertsonak izaki eta bai alderdi politiko garen aldetik kolektibo gisa. Inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi dugu pertsona guziak, ideia guziak eta proiektu guziak errespetatzen ditugula. Eta aldarrikapen horretatik etenik gabe lan egin beharra daukagu Euskal Herrian giza eskubideen urraketa bat gehiago egon ez dadin: ez erailketarik, ez torturarik, ez ideien legez kanporatzerik...

Ez da nahikoa hitzetan geratzea, ez da nahikoa salaketetan eta testu adostuetan geratzea. Haratago joan beharra dugu baldin eta gure herriak bizi duen giza dramari amaiera eman nahi badiogu. Bai, giza drama. Ez da soilik gatazka politikoa, zeren azkenean herri honetan benetan dagoena eta geratzen dena giza drama baita: familia apurtuak, bizitza moztuak, presondegietan bizitza galduak, pertsona torturatuak, beldurra, gorrotoa, ezin ikusia…

Azken urteotan ez da interes handirik ikusi salaketetatik haratago joateko, benetako konponbidea bilatzeko, agian boterea galtzearen beldurrez? Oso agerikoa ere hilotzen erabilpena alderdien interesen pean. Eta argi geratu da herritarrek honekin guztiarekin nazkatuta daudela. Nazkatuta dauden bezala, momentuaren arabera ideien legez kanporatzera jotzearekin, botere judiziala botere politikoaren agindupean arituz. Aralarretik, argi eta garbi esan nahi dugu joko horrekin bukatu beharra dagoela, hau ez baita jolasa, pertsonen biziarekin ezin baita jolastu, giza eskubideekin ezin baita jolastu. Eta inola ere ez jokabide batek beste jokabide bat justifikatu: ETAk bonba bat jartzen duela, Gobernuak alderdi bat legez kanporatu. Edo eta beste alderdi batzuei moral lezioak ematea. Nora garamatzate era horretako jokabideek? Inora ere ez.

Bada garaia irtenbidea bilatzeko, bada garaia Herri honek merezi duen bake eta normalkuntza politikoaren alde lanean jarduteko, erantzukizunez. Arduraz. Bakoitzak duen erantzukizun mailatik, egia baita guziok ez dugula erantzukizun maila bera. Beraz, bakoitzari berea, baina denok elkarturik ekin diezaiogun gogor lanean, herritarren agerian, takigrafoekin. Benetako demokrazia baten egoteak suposatu beharko lukeen guztiarekin. Inongo erabilpenik gabe, buru hotzarekin. Hori izango litzateke orain arte bizia galdu duten pertsona guziei egin geniezaiekeen omenaldirik onena eta beroena: heriotza bat gehiago ez izatea. Baita gure ondorengoei ere. Euskal gizartea denon artean eraikiz, desberdin pentsatu, desberdin bizi dugunon artean biziz eta landuz, naturaltasunez. Errespetua oinarri izanik.

Bide horretan urratsak eman behar ditugu. Tinko. Ez da erreza izango, baina gure betebeharra da, bai alderdi bezala eta bai pertsona bezala. Horri ekiteko Aralarrek emango duen urratsetariko bat zera izango da, Alderdi Sozialistak Arrasateko alkatea bere kargutik kentzeko planteatzen duen zentsura mozioa ez babestea. Hori herritarren eginbeharra da, hala baloratzen badute, egokitzen denean beraien bozaren bidez erakundeak osatuko dituzten arduradunak aukeratuz. Bere herritar bat erail dutenean, Arrasateko alkateak ez duela gaitzetsi erailketa? Guk zer esango dugu ba… Gure iritziz ez duela jokabide egokia erakutsi bere herritarren aurrean. Hori herritarrek zigortu edo eta saritu beharko dute bozkatzea egokitzen denean, guztiok hautatzen baititugu ditugun erakundeetako agintariak.

Guk, Aralarrek, soilik, gure iritzia emango dugu, egin dugun bezala, bai oraingoan, eta bai beste indarkeriazko jokabideen aurrean. Eta ez hori bakarrik, hori minimo bat baita, pertsona ororen ikuspegitik, pertsonok osatzen dugun kolektibotako ikuspegitik. Gogor eta tinko jarraituko dugu, gatazka politikoaren ondorioz eta baita beste gatazka batzuen ondorioz hildako bat gehiago egon ez dadin. Bizitza Giza Eskubideen oinarri baita. Hala ere, garbi daukagu norberak hartu behar dituela konpromisoak, besteei eskatu aurretik ezertan hasi aurretik, oso erraza baita besteei eskatzea. Beraz, gure eskutan dagoen ahal dugun guzia egingo dugu. Gogor eta tinko jarraituz Giza eskubideen defentsan. Gogor eta tinko jarraituz dugu irtenbidearen bila. Gure herriak, gure herritarrek, guk ez dugulako gutxiago merezi.

# Nire aukera Aranzadi ikastola

**Mireia Gallastegi**
Bergara

Matrikulazio epea zabaltzear dagoen honetan nire aukeraren arrazoiak azaldu nahi ditut.
Euskalduna: euskara oinarri eta lehentasun harturik, beste hizkuntzen erabilera irakasten duelako; eleaniztasunaren abantailak kontutan edukiz, gure herria euskalduntzen dugulako.

Herritarra eta herrikoia: ikastola herritarrok osatzen dugu, herritik sortua, herritarren titularitatea duena eta, aldi berean, herriko gainontzeko giza erakundeekin bat, herriarentzat eta herrian eginiko ekintza askoren bultzatzaile eta parte hartzaile gara.

Plurala: gizartea osatzen dugun guztion aukeren errespetua bultzatzen duena, aniztasunak dakarren aberastasuna kontuan izanik. Pertsona indibidual garen heinean eta kolektibo desberdinetako kide, norberaren burua nahiz ondokoaren errespeturako beharrezkoak diren baloreetan hezten duelako.

Autonomia eta autogestioa: ikasle, irakasle eta gurasook titular garenez, kooperatiba gisara antolatuta egonik, guk eraikitzen dugu, eta gure ondare eta ondasunak gestionatzen ditugu; laguntza publikoa nagusi izanik, gestio propioa daramagu eta ikastolen heziketa sistema egikaritza partikularrak suposatzen duen autonomia dugu, langileriaren aukeraketan, baliabideen gestioan, organo erabakigarriak (bazkideez osatuak) kanpoko esku-sartzerik gabe, eta abar.

Nazionala: Euskal Herriko lurralde guztietan zabaltzen den proiektua delako.

Euskal Herriaren babesa eta onespena: administrazioaren zein jendearen onespena osoa du eta gainera, euskara eta ikastolen aldeko jaialdiak dira Euskal Herri mailan jendetza gehien mugitzen dituztenak, parte hartze masiboarekin.

Sistema propioa eta berezko metodologia: ikerketa eta hartu-emanek emandako etekina (Ikastolen proiektua eta metodologia), gainontzeko heziketa motetan eredu eta jarraibidea da, aplikatzen da eta horrek nazio mailan nahiz nazioarteko sari eta onespen ugari ematen ari zaizkio.

Argi daukat, nire aukera: Aranzadi ikastola.

# Jasangaitza

**Nere Arregi Sagasta**
Arrasate

GOIENKARIA irakurtzen jarri naiz ostiral eta astelehenero bezalaxe eta gutunetara iritsi orduko ostera ere odola irakiten jarri zait. Isaias hil zutenetik jada hiru aste pasa dira eta herriko hainbat jende oraindik kexuka da, bai komunikabideek emandako erantzunarengatik eta baita ere herritarrok ematen ari garenagatik. Ba nik hemendik badut kexu horiei erantzuteko aukera. Lehenik eta behin sentitzen dut esatea guztioi, baina Arrasaten izandako manifestazio handiena AHTren aurkakoa izan da eta hori jendeak sekulako kontrolak pasa behar izan zituela eta beste asko bidean gelditu zirela, baina ez zait iruditzen orain momentua denik manifestazioan egondako jendea eta egunkariek horren gainean dakarten hitzak kontatzen astekoa.

Agian hainbat komunikabidek eta herritarrek ez dute hainbeste interes azaldu, benetan heriotza injustua iruditu arren, urtetan eta urtetan izugarrizko injustiziak pairatzen baititugu gure egunerokoan. Horregatik ere gure alkatearen alde gaude, zuek txalotzen dituzuen beste gauza asko gaitzesten dituelako.

Hemendik nire animuak eta besarkada handiena nire alkate eta zinegotziei, gainera etorritako guztiarekin beharko dute-eta. Aurrera bolie!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

aukera honek
bizitza osoa
iraungo balu,
ez litzateke
aukera izango.

Oraintxe duzu etorkizuna bermatzeko unerik onena. **Kutxako zure Aurreikuspen Planean** aurrez egin zure ekarpenak, edo aukera onak baliatzen dituztenetakoa baldin bazara, ez ihes egiten utzi aurrezki bermatuaren kontzeptu berria kontratatzeko aukerari: **kutxa**ren **Udaberriko Aurreikuspen Plana.** Eta eskura itzazu etorkizun paregabe baterako baldintza ezin hobeak.

Kutxaren Udaberriko
Aurreikuspen Plana

Kutxa Bi BGAEri atxikita dago

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa


badakizuzerusain
duenmodak?
............modakboulevard
usainadu.
ziape koloreko alkandora, sport wear
el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz
www.el-boulevard.com


Udaberriko
IV. MUSIKALDIA
2008
apirilak
05
Alberto Urretxo (Tronboia)
+ Harizko Laukotea
Apirilak 05 • 20:00
Kulturateko Areto Nagusia
11
Andrea González
(Gitarra-jolea)
Apirilak 11 • 20:00
Kulturateko Areto Nagusia
12
KUP Abesbatza
Apirilak 12 • 20:00
Kulturateko Areto Nagusia
13
Zarauzko Musika Banda
Apirilak 13 • 12:30
Amaia antzokia
18
Bilbaoko Udal Txistulari
Banda eta Alos Quartet
Apirilak 18 • 20:00
Kulturateko Areto Nagusia
19
Conductus Ensemble
Apirilak 19 • 20:00
Kulturateko Areto Nagusia
ARRASATEKO UDALA



**> BERGARA** San Joxepe elkarteko zuzendaritza berritu dute **> 24**



**> ARETXABALETA** Hamabost etxebizitza tasatu berriz zozketatuko dituzte **> 31**



**> OÑATI** Azkoagain berritzeko lanen deialdia egin du Udalak **> 33**



**> ARAMAIO** Lurren segregazio eskaerak jasoko ditu Udalak barikura arte **> 38**




**IRAEBAN** Naturgintza fundazioa aztertzen dabil Iraeban baserria zertarako erabili. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > URKULU

# Landetxe bat eta beste zerbitzu batzuk ipini nahi dituzte Urkulun

**LANDETXEA**
Iregikoa baserrirako, aukeretako bat da landetxe edo aterpetxe bat egitea

**ERROMES BIDEA**
Bedoña eta Larrino arteko erromes bide zaharra txukuntzea aurrekontuetan dago

**LEIRE KORTABARRIA** > ARETXABALETA

Apirila hil erabakigarria izango da Urkulu biziberritzeko prozesuan. Izan ere, Aretxabaletako Udalak Urkulu inguruan dauden bi baserri, Iraeban eta Iregikoa, berreskuratu eta zerbitzu berrietarako erabili gura ditu. Inaxio Garro Aretxabaletako alkatearen esanetan, oraingo hilean espero dute bi erabileren gainean erabakia hartzea eta lehiaketa publikoa deitzea.

Erabakia hartu bitartean, zenbait aukera daude. Hala, Iraebanerako, Naturgintza fundazioa proiektu batzuk aztertzen dabil, gero Udalari aurkezteko. Bestalde, Iregikoa baserria, Udalarena dena, kaskar dago eta lehenengo berritu egin beharko da; gero, "Urkulura doazenendako egokia den zerbitzu bat egongo litzateke han; litekeena da landetxe bat edo aterpetxe bat izatea", aurreratu du Inaxio Garrok. Gainera, hainbat herritarrek baserria zerbitzu moduan esplotatzeko interesa agertu dutela.

**ERROMES BIDEA BERRESKURATU**

Urkulu hobetzeko eta gero eta erakargarriago egiteko asmo gehiago baditu Aretxabaletako Udalak. Horietako baterako, Arrasateko eta Oñatiko udalen laguntza beharko du; izan ere, Bedoña eta Larrino auzoen arteko aspaldiko erromes bidea berreskuratu eta hortik Arantzazura bideratu gura dute. Horretarako diru partida onartuta eta aurrekontuetan sartuta dago: Arrasateko mugatik Larrinorainoko zatirako, 140.000 euro. Inaxio Garrok esan duenez, hasieran behintzat, Arrasateko eta Oñatiko udalek begi onez ikusten dute proiektu hori.

Beste ekintza bat segurtasunari dagokio: hain zuzen, Urkulun bizikletan buelta emateko, leku arriskutsu batzuk daude, bidegorritik gertuegi dagoelako urtegiko zuloa. Hortaz, babesgarri batzuk ipiniko ditu laster Udalak; alkateak aurreratu duenez, seguru asko, egurrezko hesi batzuk izango dira, kalean bidegorrian daudenen antzekoak.

HARROBIA

## Harrobia txukuntzeko lanak oso aurreratuta daude; gero, 750 zuhaitz landatuko dituzte

Nahiko aurreratuta daude Urkuluko harrobia txukuntzeko lanak. Harrobi hura, denborarekin, zaborrez betetzen joan zen, eta orain, inguru hura berreskuratzeko eta beste modu batera erabiltzeko lanak egiten dabil Aretxabaletako Udala.

Oraingoz, Urkulu inguruko zuhaitz-esplotazioetan sortutako enborkiak uzteko biltegi moduan egokituko dute harrobia. Horrez gain, harrobiaren zabalgunetik Ugastegi auzoko sarrerara arteko zatia ingurumen aldetik ere berreskuratuko dute, desnibeletan eraginda. Inguru hori guztia sasiz garbituko dute, desnibelak sortuko dituzte eta zuhaitzak landatuko dituzte: 250 haltz, 63 lore-gereziondo eta 444 hurritz. Proiektu guztirako aurrekontua 24.500 eurokoa izan da.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Domeka, 6 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 7 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 8 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguaztena,9 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 10 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 11 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 6 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 7 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 8 | Urrutikoetxea | Orixondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 9 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 10 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 11 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 6 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 7 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 8 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 9 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 10 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 11 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 29 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 30 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 31 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 3 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 4 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia eskuratzeko, bidali SMS bat 7505 zenbakira "farma" hitza jarriz. SMS kostea 0,9 euro + BEZ.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia) ........ 943 46 11 11
DYA (Antzuola) ........ 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) ........ 943 76 55 76
Suhiltzaileak ........ 943 78 28 00
Ertzaintza ........ 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala ........ 943 03 53 00
- Antzuola ........ 943 76 62 23
- Aramaio ........ 945 44 53 40
- Aretxabaleta ........ 943 71 19 59
- Bergara ........ 943 03 54 00
- Elgeta ........ 943 03 54 00
- Eskoriatza ........ 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Arrasate ........ 943 79 14 39
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 63
- Bergara ........ 943 77 91 06
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA ........ 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate ........ 943 79 12 22
- Aramaio ........ 945 44 50 33
- Aretxabaleta ........ 943 77 12 64
- Bergara ........ 943 79 12 22
- Eskoriatza ........ 943 71 40 59
- Oñati ........ 943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea ........ 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) ........ 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera ........ 943 76 10 15
Zerga Bulegoa ........ 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate ........ 943 77 11 43
- Bergara ........ 943 76 44 42
- Oñati ........ 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio ........ 945 44 53 35
- Arrasate ........ 943 77 16 77
- Aretxabaleta ........ 943 71 26 28
- Bergara ........ 943 76 56 41
- Elgeta ........ 943 76 82 84
- Eskoriatza ........ 943 71 53 28
- Oñati ........ 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola ........ 943 76 60 65
- Aramaio ........ 945 44 53 74
- Arrasate ........ 943 77 01 05
- Aretxabaleta ........ 943 71 10 27
- Bergara ........ 943 77 91 58
- Eskoriatza ........ 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Aramaio ........ 945 44 50 16
- Arrasate ........ 943 79 09 00
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 62
- Bergara ........ 943 77 91 00
- Elgeta ........ 943 76 80 22
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 5**

Udaberriko giroa izango dugu. Goizaldean oraindik behe-hodeiak agertuko dira, baina jaso eta eguzkia nabarmenduko da.Ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da.



**Domeka, 6**

Eguraldi ederra izango da domekan, zapatukoaren antzera. Maximo epelak izango ditugu, baina minimoak 3-6 graduren bueltan ibiliko dira.

### EUSKAL HERRIAN

Giro ederra izango dugu aste bukaera osoan, udaberrikoa. Zapatuan, behe-laino apur batzuk egongo dira, baina laster jasoko du. Haizeak ahul joko du ekialdetik. Domekan ere antzera egingo du. Tenperatura maximoak goxoak izango dira, baina minimoak, hotz samarrak.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena, 31 — **5 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 29 — **23 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **108,9 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 26 | 11 ºC | 6 ºC | 25,4 l/m² |
| Eguena, 27 | 12 ºC | 6 ºC | 45,2 l/m² |
| Egubakoitza, 28 | 17 ºC | 9 ºC | 0 l/m² |
| Zapatua, 29 | 23 ºC | 5 ºC | 0 l/m² |
| Domeka, 30 | 19 ºC | 11 ºC | 9,9 l/m² |
| Astelehena, 31 | 12 ºC | 5 ºC | 15,3 l/m² |
| Martitzena, 1 | 12 ºC | 8 ºC | 13,1 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA APIRILEAN



| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| 6 | 12 | 20 | 28 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE, BERGARA, ARETXABALETA

**> Euskal Herriak Bere Eskolaren egitaraua**

Gaur, egubakoitza, jolasak eta mural margotzea izango dituzte Arrasaten, Seber Altuben (17:30); bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, Ain1 taldearen kontzertua (18:30) eta triki-bertso poteoa gaztetxetik abiatuta (19:30); Bergaran, Monzonen eta trantsizioaren inguruko hitzaldia (12:00), jolasak Munibe plazan (17:30), musika, bertso, dantza… emanaldiak Munibe plazan (19:00) eta Emon taldearen kontzertua Pol-Polen (19:00); eta Aretxabaletan, kalejira eta herri argazkia, eguerdi inguruan.

BERGARA

**>79an jaiotakoek ospakizuna izango dute**

1979an jaiotako bergararrek kinto ospakizuna izango dute apirilaren 19an Tartufon. Izenematea zabalik dago; 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 11 0090081875 kontu korrontean.

BERGARA

**> 1970ean jaiotakoen lehen kinto ospakizuna**

70ean jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute apirilaren 12an. Lehenengo, Ariznoa tabernan batuko dira, 20:00etan, eta Azpeitxi jatetxean afalduko dute gero. Izena emateko, 20 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 12 0091121307 kontu korrontean apirilaren 10a baino lehen.

OÑATI

**> Erretiratuek urteko batzarra egingo dute**

Pake Leku elkarteak urteko batzarra egingo du hilaren 9an, eguaztena, 16:30ean; 17:00etan, bigarren deialdian. Zuzendaritza berritzea izango da gaietako bat.

BERGARA

**> Angiozarren elkartea sortu nahi dute**

Angiozarren elkartea gastronomiko-kulturala sortzeko bazkide bila dabiltza. Elkartea euskalduna izango da eta gizonezkoak nahiz emakumezkoak hartuko ditu. Familia girokoa izan nahi du. Izena emateko, deitu 669 56 74 07 edo 605 74 58 28 telefono zenbakietara, apirilaren 30a baino lehen.

OÑATI

**> AHTren aurkako jardunaldiak hasiko dira**

Bi aste bukaeratan, AHTren aurkako jardunaldiak izango dira Oñatin. Gaur, egubakoitza, tailerra egingo dute San Martinen (18:30), eta bideo emanaldia Pako tabernan (22:00); bihar, zapatua, bizikleta irteera Brinkolara (plazatik, 14:30), eta triki-poteoa (Guria, 19:30); eta etzi, domeka, mahai-ingurua Arranon (18:00) eta bideoa Pako tabernan (22:00).

ARRASATE

**> Mugak eta komunikazioa familian, berbagai**

Arrasate Herri Eskolak antolatuta, Isabel Gonzalez psikologo klinikoak *Limite eta komunikazio beharrak familian* delako hitzaldia egingo du eguenean, hilak 10, Erguinen, 18:30ean. Jarduera praktikoak ere izango dira. 6-12 urte arteko gurasoendako da.

DEBAGOIENA

**> Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetan izena emateko azken eguna**

Apirilaren 9ra arte dago zabalik Gipuzkoako Foru Aldundiaren udalekuetan izena emateko epea; 7-13 urte artekoek dute horretarako aukera. Interneten bidez egin daiteke (*www.gipuzkoa.net/oporraldi*). Apirilaren 17an hasiko da 14-17 urte arteko umeek Oporraldiak 2008-n izena emateko epea.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

BERGARA

**> 1965ean jaiotakoek afaria egingo dute**

1965ean jaiotako bergararrek anai arteko afaria egingo dute apirilaren 26an Txarrantxa jatetxean, 22:00etan. Izenematea zabalik dago Ariznoa, Etxagi eta Pol-Pol tabernetan, edo 629 56 29 25 telefonora deituta (Karlos) edo *ketxaniz@euskalnet.net* helbide elektronikoan.

BERGARA

**> Euskara elkarteen gaineko erakusketa**

Euskara elkarteen ibilbidearen gaineko erakusketa egongo da apirilaren 7tik 19ra bitartean kultura etxean, astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatuetan, 12:00-14:00.

ARETXABALETA

**> Waldorf pedagogiaren gaineko berbaldia**

*Waldorf pedagogia haur eskolan* delako hitzaldia egingo du Lourdes Tormes Waldorf haur maistrak bihar, zapatua, udaletxean, 17:30ean.

OÑATI

**> Bertsolari beteranoen bertso-afaria**

Isidro San Miguel, Xabier San Miguel, Benito Barrena eta beste batzuek afaria egingo dute apirilaren 19an Nekazarien Elkartean. Nikolas Segurola izango da gai jartzailea. Txartelak salgai daude Pakon eta Gurian.

kale inkesta

# Uruburuko parke berria gustatzen zaizu?



**Mari Karmen Muñoz**
Erretiratua
Elgeta

Gure alaba parkearen ondoan egiten ari diren etxeetara joango da bizitzera, eta seme txiki bat baduenez, egokia ikusten dut umeek jolasteko. Ni oraindik ez naiz joan bertara, baina erabiliko dut.



**Izaro Arrazola**
Langilea
Elgeta

Bertan egon naiz eta gustatu zait. Polit ipini dute. Paseatzeko eta umeekin egoteko leku ona da. Gainera, Karabieta eta Elorrio alderako bidegorritik paseatzen ibiltzeko ohitura ere badaukat.



**Karmelo Errarte**
Langilea
Elgeta

Egon naiz parkean, eta ondo dago. Belarra ipintzen dutenean, ikusiko dugu nola gelditzen den. Herriaren goiko aldean dagoenez, beharbada bertan bizi direnak joango dira gehiago.



**Juan Kruz Otxoa**
Langilea
Elgeta

Ikusi dut parkea, eta oso ondo dago. Zaintzen badin badute, udarako leku egokia da paseatzeko eta bilobekin joateko. Uste dut paseatzeko ohitura duen jendeak erabiliko duela gehien.



**Iñaki Gorostiza**
Langilea
Elgeta

Eman dut buelta bat parketik, Karabieta aldetik paseatzetik nentorrela. Egoki ikusten dut parkea, bestela Elgetan ez dago halakorik. Paseatzera joateko leku egokia dela uste dut.

txistuak



I. GABILONDO

# Zergatik zegoen harria saihesbidean?

Irakurle batek bidali digu aste honetako argazkia. Pasa den martxoaren 28an, Arrasateko saihesbidean, ospitaleko irteeran, Bergarako norabidean, harri handi bat zegoen bide erdian, eta bi autok harria jo zuten eta hondatuta gelditu ziren. Autook garabiak eraman behar izan zituen. Bertan mendirik ez dago; beraz, nondik heldu zen bertara harria?

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 757

Urkuluko harrobiaren zabalgunetik Ugastegi auzoko sarrerara arteko zatia sasiz garbituko dute, desnibelak sortuko dituzte eta zuhaitzak landatuko dituzte: 250 haltz, 63 lore-gereziondo eta 444 hurritz. Proiektu guztirako aurrekontua 24.500 eurokoa izan da.

usteak uste

Jasone Zabala

# Urak eramango ote gaitu?

Egun hauetan momentu askotan pentsatu dut txalupa baten atera behar ote genuen kalera, edo etxetik atera ere ez... Hori da euria bota, hori! Ni Urkulun egon nintzen duela astebete paseotxo bat ematen. Euria gogoz botatzen ari zen, baina urtegia baxu zegoen, eta inoiz ikusi ez nituen zuhaixkak ere agerian zeuden. Ez naiz joan berriz bertara, baina badirudi urak bere ohiko maila hartuko zuela dagoeneko. Ez genuen ba euria egitea nahi?, eta orain kexatu egiten gara nahikoa egin duelako. Horri guztiari haize zakarra eta elurra ere gehitu behar zaio. Dena batera etorri zaigu. Baina ohituta egon beharko genuke. Gu Euskal Herrian bizi gara, eta badakigu hemen ezin dugula inoiz espero hegoaldean egiten duen eguraldi eder eta eguzkitsua (azkenaldian, ez da hainbeste). Guk askotan nahi izan dugu hegoaldeko eguraldia, baina hori bai, gurean euri larregi egiten duenean bakarrik, bestela ez. Azkenaldian, askotan entzuten dugu klima aldaketa badatorrela. Hau horrela, eta guk hala ez eskatuta ere... Urak eramango ote gaitu hegoalde eguzkitsu horretara?

5 galdera...

# Beatriz Bouzas

Ugari supermerkatukoa
Elgeta

**1. Zer produktu saltzen duzu Ugari supermerkatuan?**
Denetarik saltzen dut. Ardoa, gozokiak, esnekiak, drogeriako gauzak, okela ere saltzen dut; hori bai, aurrez enkargua egiten baldin badidate. Eta berdin arrainarekin.

**2. Elgeta ez da herri handia eta supermerkatu gutxi daude. Nabari duzu euroaren eragina?**
Nik nabaritu dut herrian ni bakarrik nagoela orain. Lehen bazeuden beste denda pare bat. Hori dela eta, lehen jendea gutxiago etortzen zen, eta orain, gehiago. Nik dendarekin urte eta erdi daramat eta nabari da gauzen prezioak gora egin duela. Jendeak beharrezkoa duena erosten du.

**3. Urteak pasa ahala, jendearen erosteko ohiturak aldatu egin dira?**
Nire ustez, ez dira ohiturak aldatu. Elgeta moduko herri txiki batean, beharrezkoa ikusten dutena erosten dute. Momentu konkretu batean zerbait behar dutela, ba dendara jaitsi eta erosi egiten dute.

**4. Jendea supermerkatu batera doanean behar duena erosten du ala erosketa zerrendan apuntatu ez dituenak ere erosten ditu?**
Behar dutena erosten dute, baina zerrendatik kanpora dauden gauzak ere erosten dituzte askok. Jende asko bi gauza erosteko sartzen da eta gero erosketa poltsa goraino beteta eramaten du etxera.

**5. Diru asko gastatzen da erosketak egiten. Nola egin aste guztirako erosketa on bat, diru gutxi gastatuz?**
Batez ere, beharrezkoa duten hori erosten, aukera izanez gero; eta bi produktu berdinen artean aukeratzerik baldin badute, pixka bat kalitatea eta prezioa aldera dezatela eta egokiena har dezatela. Nik uste dut erosketa modu egokia dela hori.



**OBRAK** > ABAROA ERRETIRATUEN EGOITZA

# Irailean hasiko dira eraikitzen Abaroa berria

## 2010aren bukaeran amaituko dute; bien bitartean, erretiratuak Abaroa zaharrean mantentzen ahaleginduko dira

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Abaroa erretiratuen egoitzako erabiltzaileak kezkatuta dabiltza etorkizunarekin. Hala eman zuten aditzera joan den egubakoitzean egin zuten batzar orokorrean. Jose Rivierek, Abaroako idazkariak, emandako azalpenen arabera, Iturbide egoitzan egiten dabiltzan obrak Abaroara iristen direnean, eurek ez dute izango nora joan, San Andresen Etxaluze baserria zegoen lekuan eraiki behar duten Abaroa berria eraikitzen hasi ere ez direlako egin oraindik.

Hori dela eta, Udalera jo dugu argibide bila. Patxi Arburuak, Obra eta Zerbitzu Saileko arduradunak, emandako azalpenen arabera, udal talde berriak zalantzak zituen Abaroa berrirako proposatutako berogailu sistemarekin, eta zalantza horiek argitzeak bi hilabetez atzeratu du proiektua. Baina zinegotziak gaineratu du esku artean dutela proposamen berria: "Astelehenean hartu genuen proiektua azkeneko xehetasunekin, berogailuaren gainean egindako azterketa egin eta gero, eta hasi dira teknikariak begiratzen. Emango digute euren iritzia. Gero, ikusiko dugu politikariok zein erabaki hartzen dugun, baina gure ideia da, hil honetako bilkuraren baten oniritzia lortzen badugu, aurrera egitea proiektu horrekin. Hala, ez badugu beste oztoporik ikusten eta obrak martxan hasteko adjudikazioak eta horrek daraman prozesua abiarazten baditugu, irailerako sartu ahal izango dira hondeatzeko makinak".



**BATZAR OROKORRA** Abaroako erabiltzaile askok parte hartu zuten joan den egubakoitzeko batzarrean. UBANE MADERA

### ERRETIRATUAK, ORAINGO LEKUAN

Obrak irailean hasten badira eta Udalaren aurreikuspenak betetzen badira, 2010eko bukaerarako amaituta egon beharko du Abaroa berriak.

Bien bitartean, Arburuak aditzera eman du erretiratuekin zer gertatuko den ibili direla aztertzen: "Oraindik ez dago guztiz zehaztuta, baina orain baino egoera prekarioagoan bada ere, nahi duguna da ahal den eta gehien luzatzea erretiratuen irteera handik, oraingo egoitzatik. Orain dauden egoeran, berriz, azarora arte jarraitu ahal izango dute".

### ABAROA BERRIA, BERRITZAILEA

Abaroa berriari dagokionez, proiektu berritzailea da Udala lantzen dabilena. Sotoa, beheko solairua eta beste bi izango ditu. Egoitzako zerbitzuei dagokienez, berriz, sotoan biltegi, galdara eta halakoetarako gunea egokituko dute. Beheko solairuan, taberna, sukaldea, billar mahaia, podologoa eta ile-apaintzailea izango dira, besteak beste; lehenengoan, hiru batzar gela, bi bulego, bideo gela bat eta informatika gela bat, besteak beste; eta bukatzeko, azkeneko solairua egokituko dute San Andresko auzo alkatetza kokatzeko.

**BERDINTASUNA** > EMAKUME TXOKOA

# Amatasuna eta beste, apirilean Emakume Txokoan

## Lantegi bat, hiru ikastaro eta zinema zikloa abiarazi dituzte; edozein ekimenetan izena emateko epea zabalik dago

**U.M.** > ARRASATE

Apiriletik ekainera bitartean, hilero izango dira ikastaro, lantegi eta bestelakoak Emakume Txokoan. Hala iragarri dute oraingo astean aurkeztu duten egitarauan.

Apirilari dagokionez, amatasunaren gaineko kontuak landuko dituzte, *Amatasunaren korapiloak* izeneko lantegiaren bitartez. Egubakoitzean arratsaldez eta zapatuan goizez eta arratsaldez egingo dute lantegi hori, apirilaren 25ean eta 26an, hain justu ere.

Horrez gainera, autoen oinarrizko mekanika ere landuko dute, apirilaren 17an hasi eta ekainaren 12ra arte iraungo duen ikastaro baten bitartez.

Bestalde, dantza garaikidea ikasteko aukera ere izango da, hori ere apiriletik ekainera. Apirileko ikastaroekin bukatzeko, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa egingo dute, kasu horretan, apirilaren 16tik ekainaren 4ra bitartean.

### IZENA EMATEKO EPEAK

Lantegietan (udaberrirako prestatutako edozein lantegitan) izena emateko epea atzo, eguena, zabaldu zuten. 6 euro ordaindu beharko dute arrasatearrek, eta 9 euro, kanpotarrek.

Ikastaroetan izena emateko epea, berriz, apirilaren 11ra bitartekoa izango da. Kasu horretan, 15 euro ordaindu beharko dute arrasatearrek; 20, kanpotarrek, eta langabeek, 7,5.

Ez dira hor bukatzen apirileko ekimenak. Izan ere, datorren martitzenean, IV. Euskal Herriko Jardunaldi Feministak aurkeztuko du Bilgune Feministak Arrasaten. Kulturaten da hitzordua, 19:00etan. Jardunaldi feministei eurei dagokienez, horiek apirilaren 12an eta 13an izango dira, Portugaleten.

Bukatzeko, oraingo eguenean hasita, III. Zine Zikloa egingo dute. Hau da, emakumeak zuzendari eta protagonista dituzten filmak emango dituzte eguenero. 20:30ean hasiko dira emanaldiak, Amaia Udal Antzokian. Hurrengo eguenean, apirilaren 10ean, hain justu ere, *Preguntas sin respuesta* Rafael Monteroren dokumentala emango dute.

### LESBIANISMOA, EKAINEAN

Orain arteko guztiori da apirilari dagokion egitaraua, baina, esandako moduan, maiatz eta ekainerako egitaraua da Emakume Txokoak aurkeztu duena. Hala, adibidez, dagoeneko iragarri dute, besteak beste, lesbianismoaren gaineko erakusketa izango dela ekainean.

Informazio gehiago behar izanez gero edo izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 943 79 41 39.

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



**ERABILTZAILE UGARI** Garagartzako garbigunean ateak zabaldu bezain laster ibiltzen dira herritarrak. JONE INUNTZIAGA

**ZERBITZUAK** > AUTOEN ENTRETENIMENDU GUNEA

# Komun publikoak ipiniko ditu Udalak automobilen garbigunean

Komun publikoetara garbigunearen kanpoko aldetik sartzeko aukera izangoda, horrela ez da izango garbiguneak duen ordutegi mugarik

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Garagartzako autoen garbigunean komun publikoak eta atezain batendako garita bat ipiniko ditu Arrasateko Udalak. Oraingo asteko gobernu batzarrak onartu egin du elektrizitate hartunea egitea gune hartan, esandako bi zerbitzu berriak ipintzeko. Rafa Ugartek Udaleko Ingurumen Saileko teknikari-buruak emandako azalpenen arabera, komunak ipini behar dituzte han inguruan ibiltzen diren pertsonendako: "Garagartza ingurukoendako edo paseoan ibiltzen direnendako… Kanpotik sartzeko aukera izango da". Garitari dagokionez, berriz, hura izango da, Ugarteren esanetan, "mantentze eta ikuskatzaile lanak egingo dituen pertsona batendako". Zerbitzu biak etxola moduko eraikin batean ipiniko dituzte.

**UR-KONTSUMO HANDIEGIA**

Bestalde, Garagartzako Autoen Entretenimendu Gunearen harira, udal teknikariak GOIENKARIAri jakinarazi dio kezkatuta dabiltzala ur-kontsumoaren gainean jasotako datuekin. Ugartek adierazi du 2007ko ur kontsumoaren datuak "oso-oso handiak direla; eguneko ateratzen dira 6.500 litro inguru, urte guztiko batez bestekoa eginez". Hark gaineratu du ur kontsumoa txikitzen ahalegindu behar dutela: "Horretarako bi sistema aztertzen gabiltza. Bata da ur barik garbitzeko sistema berria eta bestea da erabiltzen den ura berriro erabiltzeko sistema ipintzea". Hain zuzen ere, teknikariak esandakoaren arabera, gaur, egubakoitza, batzarra egitekotan dira ura berriro erabiltzeko sistema lantzen duten kataluniar batzuekin. Eta beste sistemari dagokionez, berriz, Arrasateko enpresa batek aurkeztutako proposamena da: likido berezi baten bitartez, ur barik autoa garbitzeko sistema.

**2007KO DATUAK**

2007ko datuei dagokienez, oro har, urte guztian 2.317.000 litro ur kontsumitu dira Garagartzako garbigunean. Horrek esan gura du hilean 193.083 litro kontsumitu direla edo bestela esanda, egunean 6.348 litro. Kontuan hartuta automobil bat garbitzeko 100 bat litro erabiltzen direla, Udalak kalkulatu du egunean 63,5 auto garbitzen dituzela.

**NAGUSIAK** > AITAJAUN-AMANDREEN ARGAZKIA

## Aitaita-amamendako deia, argazkia ateratzeko

Ilobekin kalean ibiltzen diren aitaita-amamek oroitzapenerako argazkia aterako dute

**U.M.** > ARRASATE

Bihar eguerdian, zapatua, hitzordua egin dute Arrasateko aitaita-amama eta haien ilobendako. Helburua da kalean ilobatxoak zaintzen ibiltzen diren aitaita-amamek oroitzapenerako argazkia ateratzea; hala adierazi du Jose Luis Azulak, ekimen horren bultzatzaileetako batek. Hark kontatutakoaren arabera, orain dela lau urte inguru gauza bera egin zuten: "Ilobarekin kalean ibiltzen ginen bi lagunek pentsatu genuen hori egitea eta egun hartan 32 lagun elkartu ginen".

Horrela, erabaki dute ekimena errepikatu eta lau urte geroago beste argazki bat ateratzea. Hitzordua da bihar, 12:00etan, Seber Altuben, San Frantzisko eliza inguruan: "Euria egiten duenean Uarkapen ibiltzen gara, baina bestela beti gabiltza Seber Altube inguruan", azaldu du Jose Luis Azulak.

> POLITIKA

### Izendatu dituzte orain arte EB-Zutik koalizioak landu dituen sailendako udal ordezkari berriak

Atzoko (eguena) osoko bilkuran jakinarazi zuten Eusko Alkartasuna Ekintzako zein ordezkarik hartuko dituzten orain arte EB-Zutik koalizioaren eskuetan izan diren sailen ardurak. Hala, Ongizate Sailaren ardura Yolanda Perez de Arenazak hartuko du; Garapen Estrategikoarena, Izadi Mondragonek. Kultura eta Jaien Sailarekin, berriz, Oihana Aranburu arduratuko da eta herritarren parte-hartzearen gaineko ardura Harkaitz Biainek izango du.

> HEZKUNTZA

### 'Limite eta komunikazio beharrak familian' hitzaldia egingo dute Erguingo eskolan

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, datorren eguenean, apirilaren 10ean, familian beharrezkoak diren "limite eta komunikazio beharrak" aztertuko dituzte hitzaldi baten bitartez. Sarrera teorikoa egingo dute lehenengo eta "gogoeta eta elkarbanatzeko estrategiei zuzendutako praktikak" ondoren, Isabel Gonzalez hizlariak gidatuta. Hitzordua 18:30ean da. Erguingo eskolan. Gurasoei zuzendutako ekimena da.

> UDALEKUAK

### Begirale bila dabil Txatxilipurdi, uztailean udaleku irekietan umeekin lan egiteko

Txatxilipurdi elkarteak begiraleak behar ditu aurtengo udalekuetan 2-16 urte bitarteko ume eta gaztetxoekin lanean jarduteko. Astelehenean, martxoaren 31n zabaldu zuten izena emateko epea eta apirilaren 11n bukatuko da. Bete beharreko baldintzak dira 18 urte edo hortik gora izatea eta euskaraz jakitea. Interesa dutenek Txatxilik Pablo Uranga elkartean duen egoitzara eraman behar dute curriculuma eta, besteak beste, begirale edo zuzendari tituluen kopiak.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur, APIRILAK 4,
00:00etan
Ikatastrofen Teatro | "Jenny Monzonen lau arrazoi Jenny Monzon izateko"

**LIBURUAREN EGUNA** > 'MUGARRI ESTALIAK' ERAKUSKETA

# Hitza, irudia eta musika, eskutik Kulturaten

'Mugarri Estaliak' erakusketak poesia, musika eta pintura uztartuko ditu gaurtik hilaren 27ra arte

Sakanako hiru autorek elkarlanean egindako proiektu baten emaitza da 'Mugarri Estaliak'

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

*Mugarri Estaliak* gaur iritsiko da Kulturatera. Hitza, irudia eta musika eskutik datoz, elkarrekin, eta bat egingo duten une zehatza 19:00etarako iragarri dute. Adostutako lekua Kulturateko areto nagusia da. Ordu horretan, Castillo Suarez poetak eta Juan Miguel Arzelus musikariak errezitaldi poetiko-musikala egingo dute. Gaurko ekitaldira joatea ezinezkoa duenak apirilaren 23an izango du beste hitzordu bat, ordu eta leku berean.

Liburuaren Egunaren barruan antolatutako ikuskizun horren helburua apiril osoan zehar izango den erakusketa aurkeztea da. Erakusketan beste autore baten pinturak izango dira ikusgai, Koldo Arnanz pintorearen lanak, hain zuzen ere.

**MUGEN INGURUKO GOGOETA**

Hiru autoreek *Mugarri Estaliak* erakusketaren aurkezpenetan adierazi izan dutenez, Suarezen poemek, Arnanzen pinturek eta Arzelusen kantuek "mugen inguruan diziplina arteko gogoeta eskainiko dute". Muga horiek "barruan dauzkagunak, inposatuak, geografikoak eta ikusezinak" dira, hiru egile horien aburuz. Olerkietatik abiatuz, margo eta musikaz gozatzeko aukera eskainiko dute, hortaz.



HIRU AUTOREAK Koldo Arnanz, Juan Miguel Arzelus eta Castillo Suarez. I.A.

**GAINONTZEKO EKITALDIAK**

Apirilaren 23ko Liburuaren Eguneko egitarauko ekitaldiak hasiak dira dagoeneko. Orain arte haurrak izan dira protagonista, joan den eguaztenean Haur Liburuaren Eguna izan zen-eta. Egunotan Lur Korta ipuin kontalaria eta *Ipuin Lapurra* antzezlana izan dira Kulturaten.

> MUSIKA

## Zea Mays eta Anger izango dira gaur 3.60 aretoan

Zea Mays talde bilbotarra disko berria aurkeztera dator 360 aretora. *Morphina* da taldearen lan berriaren izenburua eta 12 abesti ditu. 1997. urtean sortu zenetik, kaleratutako bosgarren lana da *Morphina*.

Bilboko taldearen aurretik Anger talde arrasatearra izango da taula gainean. Azken hori ere ibilbide luzeko taldea da eta herrian aski ezagunak dira. 23:00etan hasiko da kontzertua.

> IKUSKIZUNA

## '4 razones para ser Jenny Monzon' lana ikusgai Iamain

Iamai kafetegian antzerkiaz gozatzeko aukera izango da gaur gauean. Ikatastrofen teatro antzerki taldea izango da Kontzezino kalean dagoen kafetegian *4 razones para ser Jenny Monzon* antzezlana aurkezten.

Hain zuzen ere, gazteek bizitzeko lekuz aldatzean bizi izaten dituzten gorabeherak ditu oinarri antzezlanak. Ikuskizuna gaur izango da, 00:00etan.



ARTISTAK Zubillaga eta Del Rey, *La mirada poética* erakusketan. GOIENKARIA

**ERAKUSKETA** > HARRESI ARETOAN

## 'Libelandula' erakusketa berritzailea laster iritsiko da

Hilabetez izango dira ikusgai Maider Zubillaga eta Maite del Rey artisten lanak

**J.B.** > ARRASATE

*Libelandula* izenarekin bataiatu dute Maite del Rey eta Maider Zubillagak euren azken lanak aurkezteko erakusketa. Bertan, Zubillagaren artelanak Del Reyren poesien laguntzaz erakutsiko dituzte.

Erakusketaren izen bitxia autoreek asmatu dute eta mariorratza hitzarekin –*libélula*, erdaraz– "jolastuz" jaio da.

Bikote artistikoaren bigarren saioa dugu *Libélandula*, iaz ere Harresi aretoan izan baitziren. Orduan, *La mirada poética* erakusketako lanekin harrituta utzi zuten bisitari bat baino gehiago.

**MUNTAIAK**

Maite del Reyk adierazi duenez, hainbat muntaia izango dira kultura ekitaldiaren protagonista. Hala, koadrorik ez dela izango iragarri du. Erakusketa apirilaren 15ean hasi eta maiatzaren 17an amaituko da.

**KONTZERTUA** > IV. UDABERRIKO MUSIKALDIA

## Alberto Urretxo tronboi-joleak estreinatuko du aurtengo Udaberriko Musikaldia

Bihar hasi eta apirilaren 19ra arteko asteburuetan, musika eskaintza zabala izango da Kulturaten eta parrokian

**J.B.** > ARRASATE

Alberto Urretxo tronboi-jole arrasatearrak irekiko du IV. Udaberriko Musikaldia. Tronboi eta hari instrumentuentzako kontzertua eskainiko du Hari Laukotearekin eta, beste batzuen artean, Leonard Bernstein eta Vincent Persichetti-ren obrak entzun ahal izango dira.

**BI OBRA BERRI**

Urretxo aski ezaguna den tronboi-jolea da herrian. Biharko kontzertuan, bi obra berri interpretatuko ditu: J.C. Perezen *Tronboi sonata* eta H. Extremianaren *Carptim*. Hala, Arrasate Musikalen hezitako harribitxi baten hauspoaz gozatzeko aukera izango da.

### Kontzertuak

**5, zapatua, 20:00etan**
Kulturaten: Alberto Urretxo
**11, egubakoitza, 20:00etan**
Kulturaten: Andrea Gonzalez
**12, zapatua, 20:00etan**
Parrokian: KUP Abesbatza
**13, domeka, 12:30etan**
Amaian: Zarauzko Banda
**18, egubakoitza, 20:00etan**
Kulturaten: Bilboko Udal Txistulari Banda & Alos Quartet
**19, zapatua, 20:00etan**
Parrokian: Conductus Ensemble





Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
**MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 11ra**

Gurasoen Elkartea
arrasate
Herri Eskola

baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

**Guk bezala,
egin apustu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!**



BEDOÑABE • Tel: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel: 943 79 77 74

Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

**Senti ezazu gorputz eta aurpegian**



**Ezagut itzazu elektroporazioarako tratamendu berriak:**
- zelulitisa
- biguntasuna,
- zimurrak…

**eta galdetu udaberriko promozioez.**

XAKEA

# Arrasate, Euskal Ligara begira

**X.U.** > ARRASATE

Gipuzkoako Liga erabakitzeko bi jardunaldi baino ez dira geratzen, eta Arrasateko San Andres Xake Taldeak kategoriaz igotzeko aukera du. Lehia galanta izango da bi jardunaldi horietan, Zarautz (24,5 puntu), Arrasate San Andres (24 puntu) eta Easo B (24 puntu) taldeen artean alde txikia dago-eta. Hain zuzen ere, Arrasatek Zarautz taldea hartuko du bihar Altamirako egoitzan (16:00). Euskal Ligara igotzeko lehian dabiltzan bi taldeak aurrez aurre izango dira; bihar irabazten duenak aurrerapauso handia egingo du.

**ERRELEBU ALDAKETA**

Joan den urtean Euskal Ligatik jaitsita, San Andres Xake Taldeko ordezkariek ez zuten aurreikusten taldeak aurten horren maila txukuna erakutsiko zuenik, taldean errelebu aldaketa izan dutelako.

> MENDIA

## Besaidek gertu ditu apirilerako gertatutako irteerak

Apirilaren 13rako (07:30) gertatu dute lehenengo mendi irteera: Mañariatik Dimara joango dira oinez, Leunganetik igarota. Izena emateko egunak apirilaren 7a, 8a eta 9a dira (19:30-20:30).

Mendiko eskiko irteera apirilaren 12 eta 13ko aste bukaerarako antolatu dute, Pic Madament-etik Turon de Neuville-era. Izena emateko egunak: apirilak 7 eta 8.

Azkenik, hirugarren irteera bat ere egingo dute apirilean, oinez egiteko. Hala, apirilaren 27an Iparraldera egingo dute: Larraitzetik Guardetxera joango dira, Ganbotik igarota. Hilaren 21a, 22a eta 23a dira izena emateko egunak.



**ERREBOTEA** Tabirakoren kontrako norgehiagokan, Biain errebotearen jabe eginda. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# Merino: "Viajes Marfilen kontrako norgehiagoka erabakigarria izango da"

Mondragon Unibertsitateko entrenatzailearen ustez, datorren astekoa baino garrantzitsuagoa da bihar Iruñean jokatuko duten partidua

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Gasteizko Leclerc taldea da Mondragon Unibertsitateak igoera fasean duen kontrario zuzena, hori ez da berria. Bi talde horiek oraindik ez dute elkarren kontra jokatu, datorren astean izango da esperotako zeingehiagoka hori, eta Ointxe!-ko zuzendaritza dagoeneko hasi da lanean; partidu horretarako motorrak berotu gura dituzte, Merinoren mutilak Gasteizen etxean moduan senti daitezen.

Normala den moduan, sailkapeneko aurreko bi taldeek jokatuko duten partiduak ikusmina piztu du, eta MUko entrenatzaile Iñaki Merinok ondo ulertzen du hori. Baina, norgehiagoka hori baino gehiago, Gasteizko entrenatzailearendako biharkoa da urteko norgehiagoka (Iruñea, 18:15): "Bihar Viajes Marfilen kontra irabazten badugu, etxetik kanpora dugun hitzordu garrantzitsuenetako bat gaindituko dugu", adierazi du aste barruan Merinok.

Izan ere, MUk etxeko gainontzeko taldeen kontra lanak ondo egiten baditu, Leclerc taldearen kontrako partiduek garrantzia galduko dute: "Bi garaipeneko aldea dugu, eta gainontzekoei ondo irabazten badiegu, Leclerc-en kontrako partiduek ez dute ezer erabakiko; biak galduta ere, ez gaituzte harrapatuko". Etxetik kanpora jokatu beharreko hiru partidu garrantzitsuetatik, MUk gainditu du lehena, Urdanetaren kontrakoa (66-72); ea bigarrena ere irabazten duten.

## Igoera faseko sailkapena

| | |
|---|---|
| Mondragon Unibertsitatea | 21 |
| E. Leclerc Vitoria | 19 |
| Valsay Ardoi | 17 |
| Viajes Marfil | 17 |
| Cafes Aitona | 17 |
| Urdaneta | 16 |
| Fundacion Baskonia | 16 |
| Tabirako Baque | 14 |
| CNP UPNA | 14 |
| Zornotza | 14 |

ITURRIA: WWW.BASKETBASKO.COM

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iriztu-Kokots Taberna | **19-3** |
| AT Celaya-Total Disaster | **11-3** |
| Kalapatxak-Abokajarro | **4-6** |
| Abokajarro-Iturriotz Taberna | **4-4** |
| Equs-Lasagabaster | **3-5** |
| Dribling-Saukelu | **3-6** |
| Betrayer-Cicatrus | **4-2** |
| Iturriotz Tab.-THC | **1-0** |
| hlb 108-Ekaitz Taberna | **1-0** |
| Cipris-Iluntz | **1-0** |

**PARTIDUAK**

| Apirilak 5, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **11:50** Dublin-Lasagabaster | **Antolatzaileak** |
| **13:00** Dribling-Betrayer | **Antolatzaileak** |

| Apirilak 6 domeka | Epaileak |
|---|---|
| **10:50** Kalapatxak-Iturriotz | **HLB 108** |
| **12:00** HLB 108-Ekaitz Taberna | **Antolatzai.** |
| **13:00** Cipris-McAwenDauen | **Antolatzai.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 39 | 13 |
| **2.** | Dribling | 31 | 15 |
| **3.** | Cipris | 31 | 14 |
| **4.** | Betrayer | 31 | 14 |
| **5.** | Lasagabaster | 26 | 14 |
| **6.** | HLB 108 | 25 | 14 |
| **7.** | AT Celaya | 24 | 14 |
| **8.** | Iriztu Taberna | 24 | 14 |
| **9.** | Dublin | 22 | 13 |
| **10.** | Saukelu | 20 | 14 |
| **11.** | Kalapatxak | 17 | 13 |
| **12.** | Iturriotz Taberna | 16 | 13 |
| **13.** | Abokajarro | 14 | 15 |
| **14.** | Ekaitz Taberna | 13 | 14 |
| **15.** | Equs | 12 | 14 |
| **16.** | Bar Kokots | 12 | 14 |
| **17.** | Cicatrus | 12 | 14 |
| **18.** | Total Disaster | 6 | 14 |
| **19.** | Iluntz | - | - |
| **20.** | THC | - | - |

## Kopa Txapelketako jardunaldia jokatuko dute asteburuan

Asteburuan Ligak atsedenaldia hartuko du, izan ere, Aste Santuko oporraldirik Kopa Txapelketarekin itzuliko da ikuskizuna Zaldibarrera. Hain zuzen ere, Kopako final laurdenak jokatuko dituzte zortzi talde horiek.

Domekan, baina, hiru norgehiagoka jokatuko dituzte, izan ere, antolatzaileek erabaki dute Kalapatxak eta Iturriotz taldeen arteko atzeratutako norgehiagoka -ligakoa- hor jokatzea. Adi HLB 108 taldekoak, partidu hori eurek epaitu beharko dute-eta.




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU
Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4…Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu…Ansar | ANSAR
Hartu…Argentinarra | ARGEN
Hartu…Mexikarra | MEXIKO
Hartu…Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU1 | MUSKARIA | AIZKORAK
NUKLEAR | KALABERA1 | EGUZKILORE3
SORGIN | POPATIK | KAPUTX

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

bote prontuen

**Arantzazu Ugarte** > Udesign-shop.com dendako arduraduna

# "Aitak etxearen izena ager zedin nahi zuen"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Aurten zabaldu dute Arantzazu, Begoñe, Itziar eta Dorleta Ugartek denda berria. Denda Juan Karlos Gerra plazan dago, eta nahi duenak *www.udesign-shop.com*-era sartu eta bertatik erosi edo kontsulta egiteko aukera ere badu.**



**Denetik saltzen duzue dendan, ezta?**
Diseinu eta barne arkitektura arloan, bai, denetarik topatuko du erosleak.

**Zeren bila etortzen da jendea dendara?**
Gaur egungo altzairu praktikoen eta ukitu berezi bat duten produktuak bilatzera, batik bat.

**Txoko bakoitza jazteko zer eduki behar da kontutan?**
Txoko bat apaintzeko, argitasuna, espazioak eta norberaren izaerarekin bat etortzea izan behar da kontutan.

**Noren bulegoa aldatuko zenuke gustura goitik behera?**
Gure produktuak estimatzen dituen edonoren bulegoa.

**Dendan, jaio berrientzako gauzetatik bulegoko gauzetaraino aurki ditzakegu?**
Bai. Gaur egun gauza zoragarriak daude. Politak, praktikoak, erabilgarriak... eta hori dena dendan biltzea da gure helburua, xarma galdu gabe.

**Modernoak dira saltzen dituzuen gauzak. Zu klasikoa ala modernoa zara?**
Praktikotasuna bilatzen dut, eta bi aukera horien artean, modernotasunerantz jotzen dut.

**Dendaren izena berezia da. Nondik dator izena?**
Ugarte abizenarekin lotura dauka U hizkiak, eta bestea (design shop) webgunera bideratuta dago. Bi izen ipini beharrean, bat webgunerako eta bestea dendarako, bat bakarrik nahi genuen eta gure intentzioa webgunea bultzatzea denez, izenari arlo horretan indar handiagoa eman diogu. Aitak etxeko izena ager zedin nahi zuen, eta guk, webgunera enfokatu, beraz, erdibana egin genuen, eta horrela denok pozik.

txutxu-mutxua

## Solano Txiki benjamin taldea Palentzian egon da, nazioarteko futbol txapelketa jokatzen

Arrasateko Solano Txiki benjaminen futbol taldea pasa den martxoaren 21etik 23ra Palentzian egon zen nazioarteko futbol txapelketa bat jokatzen. Guraso, jokalari eta entrenatzailea barne, 36 pertsona egon ziren bertan. Lehiaketan, Madril, Kantabria, Asturias, Euskal Herria, Galizia eta Gaztela eta Leongo erkidegoetako taldeak egon ziren, baita nazioarteko taldeak ere, besteak beste, Estonia, Letonia, Belgika eta Israelgo taldeak. Solano taldeak jokatutako lau partiduetatik hiru irabazi zituen, baina finalean, Belgikako Forest taldeari ezin izan zion irabazi. Asteburu ederra pasa zuten bertara joandako guztiek.



SOLANO TXIKI

bere ustez



Maialen Gonzalez

## Sofistikatu ala zoriontsu?

Apirilaren etorrerarekin batera, oporraldiaren amaiera ere heldu zaigu gehienoi. "Aste Santua" deritzoguna amaitu zaigu jada. Kakotx artean jartzea ezinbestekoa iruditzen zait, "santutasun" hori ez baitugu denok era berean bizitzen. Kontuak kontu, denok gogo biziz ematen diegu ongietorria oporrei.

Jai egunak non igaro behar ditugun pentsatzen hasten garenean, zinez nahi duguna aukeratzen dugu ala gainontzekoak liluratzeko asmoz aukera garestiena edo sofistikatuena hautatzen dugu?

**"Kontuak kontu, denok gogo biziz ematen diegu ongietorria oporrei"**

Agian jende ugari ez da bat etorriko nire ikuspuntuarekin, 21 urteko gazte batek eta 50 urteko heldu batek ez baitituzte hainbat egoera era berean interpretatzen. Eta halaxe izaten jarraitu dezala, arren! Baina nire ustez, oporraldia gustura igarotzeko, bidaian edo bost izarretako hotela ordaintzen diru mordoa gastatu dugula erakustea baino, konpainiaren garrantziari gehiago erreparatu beharko genioke. Izan ere, leku xumeenera joanda ere, alboan ditugun pertsonak ondo hautatuz gero, oporraldia benetan zoragarria bihurtu baitaiteke.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Zenbaki Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontabilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

**GIZARTEA** > ERRETIRATUAK

# Carlos Arrondo izango da San Joxepe elkarteko lehendakari berria

Zuzendaritzaren herena berritzeaz gain, badira bestelako berrikuntzak: zine emanaldiak egingo dituzte egoitzan epe laburrean

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Zuzendaritzaren zati bat berritu du San Joxepe erretiratuen elkarteak. Hain justu, aurreko eguneean egindako urteko batzarrean onartu zituzten aldaketok, eta baita iazko urteko balantzea eta aurtengorako asmoak ere.

Zuzendaritzako lehendakari berria izango da Carlos Arrondo, eta harekin batera osatuko dute zuzendaritza taldea Jose Ignacio Beristainek, Mari Carmen Otaolak, Maria Eugenia Silanesek, Jose Garitanok, Luis Larrañagak, Antolin Marchenak –horiek guztiak, aurreko zuzendaritzakoak–, Begoña Garitanok, Maria Teresa Suinagak eta Rosa Mari Larrañagak –inkorporazio berriak. Elkarteak adierazi duenez, hilaren 18an egingo duten batzarrean egingo dute kargu banaketa.



**URTEKO BATZARRA** Zuzendaritzako kideak egueneko batzarrean, Agurne Barruso alkatearekin batera. GOIENKARIA

Batzarrak iaz onartutako formularen arabera, agintaldiak hiru urteko iraupena izango du, eta urtero zuzendaritzaren herena berrituko da.

**BAZKIDE KOPURUAK, GORA**

Elkarteko bazkideen kopuruak gora egin du nabarmen azken boladan, eta 2007an, 1.651 bazkide izatera iritsi dira; 941, emakumeak, eta 710, gizonak. Hala, 2002an zuten bazkide kopuru bera izatea lortu dute berriz, eta azken bost urteetako beherakada eustea. Bazkideen adin tarteari dagokionez, gehienak dira 71 eta 75 urte bitartekoak –426 bazkide– eta hurrengo kopuru handiena dira 76 eta 80 artekoak –371 bazkide.

Igoera horren arrazoietako bat izan daiteke, San Joxepeko kideen esanetan, iaz kendu egin zutela elkartean sartzeko adin muga. Orain baldintza bakarra da erretiratu edo pentsiodun izatea eta jarduerarik ez izatea.

**FILM EMANALDIAK**

San Joxepeko kideek zine emanaldiak egingo dituzte laster. Emanaldiokin noiz hasiko diren ez dute zehaztu, izan ere, oraindik hainbat gauza falta zaizkie lotzeko, besteak beste, emanaldien maiztasuna eta ordutegia. Film klasikoak eta komikoak emango dituzte, batik bat, egoitzako aretoetako baten. 70 bat lagunendako lekua du aretoak.

**ZERBITZUAK** > HILERRIA

# Kolunbarioak jarrita daude dagoeneko

Asteon jarri dituzte, horma-hilobietako baten hegalean; 60 dira, indibidualak

**M.B.** > BERGARA

Asteon jarri dituzte kanposantuan erraustak gordetzeko kolunbarioak. Herritarren eskariari erantzunez jarri ditu Udalak, horma-hilobietako baten hegalean.

**GUZTIAK, INDIBIDUALAK**

60 kolunbario jarri ditu Zaragozako Lufuble SL enpresak hilerrian, guztiak horma-hilobietako batek hegalean. Dena den, eskaria handia bada eta kolunbario gehiagoren beharra dagoela ikusiz gero, beste horma-hilobietako hegaletan jarriko dituztela aurreratu du Udalak.

Aurreko aldea granito beltzekoa dute eta zilar koloreko plaka bat hildakoaren izen-abizenak eta leloa jartzeko. Neurriari dagokionez, 25x30x20 zentimetro izango dute.



**KOLUNBARIOAK** Irudian, Lufuble enpresakoak, asteon, kolunbarioak jartzen. M.B.

**ERABILERA ARAUTU BEHAR**

Kolunbarioen erabilera arautuko duten behin-behineko ordenantzak eginda daudela esan du Agurne Barruso alkateak. Orain, ordenantzok sakon aztertu eta gero, udalbatzak osoko bilkuran onartu beharko ditu. Hori lehenbailehen egin nahi dute, zerbitzua ahalik eta azkarren ematen hasteko.

> HEZKUNTZA

## Hezkuntza Sistema Nazionalaren Eguna bihar, zapatua

Hezkuntza Sistema Nazionalaren Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu EHBE taldeak biharko, zapatua: 12:00etan, Monzon eta trantsizioaren gaineko hitzaldia egingo du Jose Luis Elkorok osoko bilkuren aretoan; 17:30ean, umeendako jolasak egongo dira Munibe plazan; 19:00etan, Gabero abesbatzak emanaldia egingo du eta ikurrin dantza ikusteko aukera ere izango da, biak ala biak, Munibe plazan; eta 23:00etan, Emon taldeak kontzertua egingo du Pol-Pol tabernan.




ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

**EUSKARA** > TOPAGUNEAREN 10. URTEMUGA

# Euskara elkarteen erakusketa ibiltaria ikusgai kultura etxean

Topagunea osatzen duten elkarteen iraganari eta orainari egiten zaio errepasoa erakusketan




**ERAKUSKETA** Miramondik abiatu eta herririk herri dihardu erakusketak. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, 10 urte egin ditu aurten. Urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu, besteak beste, euskara elkarteen ibilbidea jasotzen duen erakusketa. Hilaren 7tik 18ra bitartean ikusgai egongo da kultura etxean, astelehenetik barikura, 18:00-21:00 ordutegian.

Jardun euskara elkarteak ekarri du herrira eta ,esandako informazio orokorraz gain, Bergarako elkartearena ere egongo da ikusgai.

**ERAKUSKETAK JASOTZEN DITUENAK**

Euskara elkarteen iraganari eta orainari egin nahi dio errepasoa Topagunearen erakusketa ibiltariak. Euskara elkarteen gaur egungo dimentsioaren argazkia eskaini nahi du, haien bilakaeraren eta gaur egungo jardueraren berri emanez. Horretarako, informazio panelez eta ikus-entzunezkoez baliatzen da.

Azaroaren 23a ezkero Euskal Herriko hainbat herritan egon da ikusgai erakusketa, tokian tokiko elkartearen eskutik. Gurera Jardun elkartearen eskutik iritsi da, eta Jardunek berak ere informazio panela jarriko du kultura etxean. Elkartearen historia laburra, bazkideen bilakaera, garatutako egitasmoak, gaur egun esku artean dituenak eta elkartea osatzen duten lan taldeen berri jasoko du informazio panel horrek. Horrekin batera, aurrera begirako erronkak ezagutzeko aukera ere emango du.

**OSOKO BILKURA** > MOZIOAK

# Carrascoren heriotza gaitzesteko mozioa onartuta

**M.B.** > BERGARA

Isaias Carrascoren heriotzarekin lotutako hiru mozio aurkeztu ziren asteleheneko osoko bilkuran. Hain justu, PSE-EE alderdia aurkeztutako mozioari alternatibo bana aurkeztu zioten EAEk eta Aralarrek.

Ohi bezala, alternatiboak bozkatu ziren lehendabizi: EAErena lehenik, eta ez zuen aurrera egin –PSE-EE, EAJ eta EAren aurkako botoak eta Aralarren abstentzioa izan zuen. Aralarrena gero, eta horrek, berriz, egin zuen aurrera –EAJ, EA eta Aralarren aldeko botoak, PSE-EEren abstentzioa eta EAEren kontrako botoak jaso zituen. Hala, PSE-EErena ez zen bozkatu.

Aralarren mozioa onartuta, Udalak "haserrea eta gaitzespena adierazten du, Isaias Carrasco odol hotzean hil dutelako". "Hilketa anker hori Euskal Herriko errealitatearekin kontrajarrita" dagoela ere jasotzen du testuak, "herritar gehienek argi gaitzesten baitute hilketa hori eta baldintzarik gabe borroka armatua utz dezala exijitzen baitiote ETAri". Bestalde, ikuspuntu politikotik eta etikotik onartezina dela dio, "giza eskubideen urraketa larria" delako, eta ETAri esaten diote Euskal Herriaren askapenerako egin dezakeen ekarpenik onena dela ekintza guztiak bertan behera lagatzea.

Agurne Barrusok azaldu zuen Aralarren mozioari esan ziotela ezetz, besteak beste, "herri moduan dagozkigun eskubideak falta zaizkiolako".

> HITZALDIA

### 'Jarrera positiboa pertsona nagusien arretan' hitzaldia antolatu dute Bizikasi eta Nagusilanek

Datorren eguaztenean, hilak 9, izango da, 19:00etan, Miguel Altunan eta hizlaria izango da Aitziber Gine. Jarrera positiboak bizitza konprometituarekin eta bizitzari ematen zaion zentzuarekin lotuta egoteaz gain, depresiotik, antsietatetik, estresetik... babesten du. Horretaz eta beste hainbat gauzetaz mintzatuko da Gine.

**ONGIZATEA** > MENDEKOTASUNEN TRATAMENDURAKO ARAUDIA

# Drogak eta beste mendekotasun psikologiko batzuk tratatzeko laguntzen araudia berritu dute

Halako diru lagutzak emateko orain arte indarrean zegoen araudia zaharkitua geratu da eta eguneratu egin dute

**M.B.** > BERGARA

Drogen mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologiko batzuen tratamendurako dirulaguntzen araudi berria onartu zuen astelehenean udalbatzak aho batez. Orain arte indarrean egon den araudia 1992. urtekoa zen. Ordutik hona gai horren gainean eman diren aldaketak nabariak izan direla jabetuta erabaki du Udaleko Osasun, Enplegu eta Gizarte Gaietarako batzordeak araudia eguneratzea.

**ARAUDI BERRIA**

Hiru berrikuntza nabarmen ditu araudi berriak: batetik, kontzeptua aldatu egin da nabarmen, hau da, dirulaguntzak ez dira bakarrik izango drogen mendekotasunen tratamendurako, eta beste mendekotasun psikologiko batzuk ere aintzat hartuko dira: ludopatia, teknologia berriekiko mendekotasuna... Bestetik, laguntzen onuradun izan daitezke, ohi bezala, kaltetua eta haren laguntzailea, eta, berrikuntza gisa, tratamenduan jarri gabe dauden kaltetuen senitarteko edo lagunak ere bai. Kasu horretan, dirulaguntzak urtebetekoak izango dira, eta helburuak, hauek: senitartekoek kaltetuaren egoera ulertzea, tratamendua hartzera bultzatzea eta mendeko pertsona batekin bizi izateak sortzen dituen egoerak egoki gestionatzea. Hirugarren berrikuntza da laguntzok emateko ez direla diru sarrerak kontuan hartuko, izan ere, egoera horretan dauden herritarrak tratamenduan jartzea bultzatu nahi du Udalak. Hala, laguntzak tratamendua egiteko pizgarri modura ulertzen dira.

**LAGUNTZEN HELBURUA**

Oro har, laguntzon helburua da Bergarako bizilagunei aukera ematea EAEko tratamendu-zentro publikoetan eta itunpekoetan tratamendua jasotzeko, bai drogen zein beste mendekotasun psikologikoen kasuan, eta baita kontsumo goiztiarren kasuan ere.

Hain justu, zentro horietara egiten diren joan-etorrietako gastuetarako dira laguntzok. Egunean egindako joan-etorri bat baino ez da diruz lagunduko, lineako autobusaren kostuaren arabera. Dena den, kasu guztietan, gehienez, honako laguntza emango da joan-etorriko: Bergaratik zentroa dagoen probintziako hiribururako joan-etorriaren kostua.

Dirulaguntzon eskuratu ahal izateko, eskatzaileak Bergaran egon beharko du erroldatuta eskaera aurkezten duenean. Horrekin batera, beharrezkoa izango da tratamendu-programan edo norbere burua laguntzeko taldean bi hilabetez aritzea eta, laguntza emanez gero, atzeraeraginezko izaera izango du.

Eskariak aurkeztuko dira Udaleko erregistro orokorrean.

Udalak urtero kopuru bat ezarriko du aurrekontuetan esandako laguntzok emateko.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295




**AURKEZPENA** Argazkian, Bego Muxika, Monje Ugalde eta Enara Minguez. A.E.

**MUSIKA ESKOLA** > APIRILEAN MUSIKA

# Nobedadeekin dator etzi hasiko den musika zikloa

Aurtengoa Bergarako Musika Eskolak antolatzen duen IV. Apirilean Musika izango da; hilaren 6an hasiko da eta hilaren 25a arte iraungo du

**ARANTZAZU EZKIBEL**> BERGARA

Martitzenean aurkeztu zuten Musika Eskolako aretoan aurtengo Apirilean Musika emanaldiak. Prentsaurrekoa eman zuten Marije Ugalde musika eskolako zuzendariak, Enara Minguez Kultura zinegotziak eta Bego Muxika gurasoak.

"Aurreko urteetan oso harrera ona izan duten ekitaldiak izan dira eta espero dugu aurten ere horrela izatea", azaldu zuen Ugalde zuzendariak. Bergarako musika eskolaren nahia herritarrei eta ikasleei gauza berriak eta interesgarriak erakustea dela gaineratu zuen Ugaldek.

**NOBEDADEA, SANTIAGO BANDA**

Etzi, domeka, hasiko dira emanaldiekin. Lehenengoa Elgoibarren izango da; hain zuzen, akordeoi topaketa.

Aurtengo nobedadea hilaren 11n Santiago bandak emango duen kontzertua izango da. Organo kontzertu didaktikoa izango da eta Santa Marina parrokian eskainiko dute, arratsaldeko 6etan. Hilaren 12an, musika eskolako ikasleen eskutik musika barrokoaz gozatzeko aukera izango da. Andoni Sierraren zuzendaritzapean, Mariaren Lagundiko elizan arituko dira ikasleak, iluntzeko 8etan.

Gainera, Ander Arroitajauregi luthierraren eskutik harizko instrumentuak nola egiten diren ikasteko aukera egongo da. Hori apirilaren 14an izango da.

**SAIO GUZTIAK DOAN**

Hilaren 25a arte iraungo dute Apirilean Musika saioek. Aipatutako emanaldiez gain, besteak beste, ipuin musikala, musikoterapia tailerra eta ahotsaren eguna antolatu dituzte.

Saio guztiak doan izango dira. Hala ere, musika eskolan sarrera eskatu beharko da hainbat saiotarako.

**IPUINAK** > HELDUENTZAT

## Sufrimenduei buruzko ipuina Aroztegin, eguenean

Itziar Rekalde ipuin kontalari bermeotarrak eskainiko du saioa

**A.E.** > BERGARA

*Ez sufritzeko erremedioak* helduentzako ipuina eskainiko du Itziar Rekalde ipuin kontalari bermeotarrak eguenean, hilaren 10ean. Aroztegi aretoan izango da, arratsaldeko 7etan.

**SUFRIMENDUEN MUNDUA**

Rekaldek sufrimenduen mundua ekarriko digu Aroztegira, baina, betiere gozatzeko asmoarekin. "Konturatu nintzen pertsona batzuek edozer gauzatik sufritzen dutela eta beste batzuek, ostera, edozer gertatuta ere ez dutela sufritzen", esan du Itziar Rekalde ipuin kontalariak. Hala, hainbat pertsonaren bizitzak kontatuko dizkigu Rekaldek Aroztegin; batzuk, umore ukituarekin eta beste batzuk tonu dramatikoan.

"Helduak animatu gura ditut ipuinak entzutera", dio Rekaldek. Hainbat istorioz osatutako ipuinak ordubete iraungo du, gutxi gorabehera. "Iraupena zuzenekoaren arabera izaten da", gaineratu du .

Bermeotarra izatez, Gasteizen bizi da Rekalde. Ipuin kontalari lanetan ibiltzen da, baina antzerki zuzendaria ere badugu. Esate baterako, Arrasateko Doke taldeak antzestutako *Actto para la Nochebuena* lanean zuzendari lanetan ibili zen Rekalde.

> ERAKUSKETAK

### Gaur hasi eta hilaren 27ra arte egongo dira Fernando Azkargortaren lanak Aroztegin

Simon Arrietaren dizipulu gogokoenaren lanak Aroztegin izango dira erakusketa batean gaurtik aurrera. Euskal Herriko paisaiak izan ziren haren inspirazio nagusiak. Guztira 30 lan egongo dira Aroztegin. Ordutegia, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30ra, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

> MUSIKA

### Musika elektronikoko saioak eskainiko dituzte gaur eta bihar Ziripoten eta GoJam-en

Gaur gaueko 23:30etan eskainiko du aste bukaerako lehenengo saioa Ziripot tabernan Borja Smoking DJak. Baina ez da aste bukaerako saio bakarra izango. Musika elektronikoa gustuko dutenek zapatuan saio bikoitza izango dute. Ziripot tabernan DJ KRC egongo da musika jartzen, 23:30etan.

Sala GoJam-en *Kogollo party krew*-a egingo dute. Gauerdian izango da. Sarrera 10 euro kostako da eta musika jarriko dute Nemesi, Iñigo Dub, Javi Delobe, Dubby eta Pako Kogollok.

**LIBURUAREN EGUNA** > APIRILAK 23

## Liburuak herritarrei hurbiltzeko asmoarekin plazan eskainiko dute liburutegi zerbitzua

Azpimarratzekoa da, gainera, apirilaren 17an Toti Martinez de Lezea idazle arabarrak hitzaldia egingo duela udaletxeko osoko bilkuran

**A.E.** > BERGARA

Urtero bezala, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, plazara aterako dute liburutegiko zerbitzua hilaren 23an. "Helburua herritarrei liburuak hurbiltzea da. Gainera, liburutegian zelako informazioa eskaintzen dugun ikusteko aukera izango dute herritarrek", esan du Mila Agirrezabalek. Plazara eroango dute liburutegian dituzten liburu berrienak eta erakargarrienak. Gaineratu du Agirrezabalek, ohiko zerbitzua dela plazan eskainiko dutena; hau da, maileguena. Kontsultak liburutegian egin ahalko dira.

**ILUSTRATZAILE LANA**

Egun berean, hilaren 23an, Iñaki Martiarena *Mattin* ilustratzaileak saioa eskainiko du txikientzat. Liburuetako marrazkiak nola egiten dituen erakutsiko du txikienen gozamenerako. Plazan izango da, 17:15ean.

**SORGINKERIAK BERBAGAI**

Hori baino lehenago, apirilaren 17an, Toti Martinez de Lezea idazle gasteiztarra udaletxeko osoko bilkuran izango da, arratsaldeko 7etan. Lehenengo, bere liburuei buruz egingo du berba Martinez de Lezeak. Nobela historikoak idazterakoan informazioa nola osatzen duen argituko du. Gero, bere liburuetan ezaguna den gai bat hartuko du berbagai: euskal sorginkeria. Sorginkeriaz hainbat datu eta kuriositate azalduko ditu idazleak osoko bilkuran.



**LIBURUAK** Iazko ekitaldietako irudia. GOIENKARIA


San Martin Agirre
Herri eskola
Boni Laskurain 25
Tel./Faxa: 943 76 21 47
e-posta: 012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola
San Martin Agirre LH
Ipintza Institutua
Ipintza
Institutua
Boni Laskurain 17-19
Tel./Faxa: 943 76 31 42
e-posta: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintza
"EZ galdu gure Trena!!!"
TXARTEL BAKARRA
0, EURO
San Martin Agirre
Ipintza
Helduen Eskola
San Martin Agirre Haurreskola
Miguel Altuna
euskera
kalitatea
konpromisoa
etorkizuna
San Martin Agirre
Herri eskola
IPINTZA
Bigarren Hezkuntzako Institutua
matrikulazio epea: martxoaren 31tik apirilaren 11ra
URKAN S.L.

> ESKIA

## Manex Azula hirugarren snow txapelketan

Panticosan egindako Espainiako Snow Txapelketan Manex Azula gazte bergararra hirugarren sailkatu da.

Bergarakoa EDIV Valdezcaray taldeko kide da, eta txapelketako erraldoian lasterketa ona eginda eskuratu zuen brontzea –iaz bigarren sailkatu zen–. Aurtengo lorpenak, baina, meritua du; izan ere, infantiletako lehenengo urtea izanda, bi urte nagusiagoak ziren eskiatzaileak utzi zituen atzean.



Manex Azula.

> MENDIA

## Mendi irteera antolatu dute apirilaren 13rako

Bergarako Gorla Alpino taldeak eta Pol-Pol mendizale taldeak irteera antolatu dute apirilaren 13rako, domeka. Mendiko irteera hori egun osokoa izango da, eta oraingoan Bizkai aldera egingo dute, Sodupetik Gurutzetarainoko mendi zeharkaldia egingo dute-eta. Ibilaldi horretan Eretzatik (887 metro) igaroko dira, irteera puntutik bi ordura dagoen mendia. Inguru horiek erakusten dute Bilbo inguruan –Barakaldo ondoan, zehatzagoak izateko– ere paraje ederrak daudela.

**TXARTELAK POL-POLEN**

Irteera horretara joateko txartelak Pol-Pol tabernan daude salgai. Irteera egunean, hilaren 13an, 08:00etan izango da autobusa zain.

**PILOTA** > BERGARA HIRIA

# Lehenengo jardunaldian, atzelariak erabakigarri

22 urtez azpikoetan Aspidi-Ugaldek eta nagusietan Beitia-Zabalak egin zuten lehen kanporaketan aurrera; atzelariek erabaki zituzten partiduak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergara Hiria Txapelketako lehenengo kanporaketak jokatu zituzten martitzenean, eta bi norgehiagoketan atzelariek erabaki zuten zeinek aurrera egin eta zeinek ez. Ez ziren norgehiagoka luzeak izan, eta ikusleek tarteka tanto politak ikusi ahal izan zituzten. Baina, atzelarien artean aldea dagoenean, aurrelariak gutxi izaten du egiteko.

**ESKUA MINDUTA?**

Lehenengo norgehiagokan 22 urtez azpiko Aspidi-Olalde eta Narbarte-Telletxea izan ziren nor baino nor gehiago. Partidu hartan, Telletxeak ez zuen ohi moduan jokatu, justu-justu ibili zen eskuin eskuarekin, behin ere gozatu barik. Hala, ezkerrarekin ematen zion bakoitzean hobeto astintzen zuen pilota. Hori jakinda, Aspidik eta Olaldek atzera bideratu zuten jokoa; han zegoen makalgunea. Telletxearen bikotekide Narbarte ahal zen beste sartu zen jokoan, tarteka lehia polita izan zuen Aspidirekin, eta 18-8ko tantoa, esaterako, ederra izan zen: aurrean zeinek eutsi gehien. Aspidik ondo utzi zuen txokoan, baina Telletxea iritsi egin zen, lurretik arrastaka izan bazen ere. Dena dela, salduta geratu zen, eta Aspidik indarrez errematatuta egin zuen tantoa –ordura arte ez zen txalorik entzun pilotalekuan, eta tanto hark animatu zituen zaleak–.

**NAGUSIETAN ERE, ANTZERA**

Tanto aldetik alde handiagoa egon bazen ere, Andreu-Iruretak eta Beitia-Zabalak jokatutako partidua lehiatuagoa izan zen (9-22). Partidu hartan, urdinen atzelariak agindu zuen, Zabalak, eta Andreuk, berriz, komeni baino hutsegite gehiago egin zituen. Hala, martitzeneko bikote irabazleek hilaren 29an jokatuko dituzte finalerdiak. Datorren martitzenean, berriz, Ander Muguruza bergararraren debuta txapelketan (19:30).




**EMATEKO GERTU** Narbarte, Azpidiren eta atzelarien begiradapean pilotari emateko gertu, martitzenean. XABIER URTZELAI

**labegaraieta**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Carboneros-Irubide | **3-3** |
| Irubide-Irish Pub | **4-8** |
| Irish Pub-Niu Tim | **6-9** |
| Belengua-CM Errota-Gain | **4-6** |
| Los Blus-Tiki Taka | **4-8** |
| Komando Piperrak-Hamaika Jintxi | **0-3** |
| Latinos.com-Deportivo Oriente | **12-5** |

**PARTIDUAK**

| Apirilak 5, zapatua, barruan | Epaileak |
|---|---|
| **18:00** Irubide-NiuTim | **Errotagain** |
| **19:00** Carboneros-CM Errota-Gain | **Irubide** |

| Apirilak 6, domeka, barruan | Epaileak |
|---|---|
| **16:00** Komando Pip.-Deportivo | **Irish Pub** |
| **17:00** Belengua-Irish Pub | **Komando Pip.** |
| **18:00** Latinos.com-Los Blus | **Tiki-Taka** |
| **19:00** Hamaika Jintxi-TikiTaka | **Los Blus** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errota-Gain | 52 | 19 |
| **2.** | Irish Pub | 44 | 19 |
| **3.** | Los Blus | 37 | 19 |
| **4.** | Komando Piperrak | 36 | 19 |
| **5.** | Carboneros | 35 | 19 |
| **6.** | Tiki-Taka | 29 | 19 |
| **7.** | Niu Tim | 26 | 19 |
| **8.** | Belengua | 17 | 19 |
| **9.** | Irubide | 15 | 19 |
| **10.** | Latinos.com | 12 | 19 |
| **11.** | Deportivo Oriente | 1 | 9 |
| **12.** | Hamaika Jintxi | 0 | 19 |
| **13.** | El Mapet | 0 | 10 |

## CM Errota-Gain taldeak eskura du aurtengo txapelketa

Joan den asteburuan bigarren sailkatu Irish Pub taldeak eta hirugarren sailkatu Komando Piperrakek kale egin zuten -azken talde hori, gainera, zigortu egin dute partidura ez agertzeagatik-.

Hala, hutsegite horiei esker CM Errota-Gain taldeak eskura du txapelketa; izan ere, hiru jardunaldiren faltan liderrak bi puntu baino ez ditu behar liga irabazteko. Oraingo asteburuan norgehiagoka erakargarria jokatuko dute Carbonerosen kontra (zapatua, 19:00), eta talde gogor horrek ez ditu erraztasunak emango. Horrekin batera, antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete 19 urtetan kiroldegiko arduradun izan diren Roige eta Edurneri.




Ibiltari
ez dago
biderik...
...maitasunez
...alaitasunez
...elkarlanez
ahaleginez...
MARIAREN
LAGUNDIA
IKASTOLA
0-16 urte / 18tik aurrera
Matrikulazioa:
martxoaren
31tik apirilaren 11ra
Espaloia 1, Bergara
Tel.: 943-76.25.40-41
ikastola@mlagundia.net
1799
2008
MARIAREN LAGUNDIA
IKASTOLA
...egiten
dena
besterik



IKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Pausoka
HAUR ESKOLA

2008-2009 ikasturtea

Izena ematea: martxoaren 31tik apirilak 11ra arte

**Ordutegia:** 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



**TALDE EGOKITUAK**
- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

**ORDUTEGI ZABALA**
- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

**JANGELA ZERBITZUAK**
- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

**EGUTEGI ZABALA**
- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

**LOGELA**



Txiki txikitatik
jolasten heziz

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZA TASATUAK

# Hamabost etxebizitza tasatu daude hutsik, eta berriz egingo dute zozketa

Hitzarmena sinatu behar dute Udalak eta Bruesa enpresa eraikitzaileak zozketa egiteko, baina ez datoz bat etxebizitzen prezioari dagokionean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Deba ibaiaren beste aldean egiten dabiltzan etxebizitza tasatuen gaineko hitzarmena aldatzea gura zuen Udal gobernuak astelehenean egindako osoko bilkuran. Bruesa enpresa eraikitzailea eta Udalaren arteko hitzarmena da, eta 15 etxebizitza hutsik daudenez berriro zozketa egin behar dute. Astelehenean, baina, oraindik adostu barik zuten hitzarmen hori; izan ere, prezioaren kontuarekin ez zetozen bat bi aldeak. Hala jakinarazi zien alkateak udalbatzako gainerako kideei, eta gaia Hirigintza batzordean aztertzekotan geratu ziren.



**ETXEBIZITZAK** Deba ibaiaren beste aldean egiten dabiltzan etxebizitza tasatuak. MIRARI ALTUBE

**2007KO MODULUA APLIKATZEKO**

Deba ibaiaren beste aldean tasatutako 185 etxebizitza egitea adostu zuen Udalak bere garaian, eta 2004ko abenduan egin zuten zozketa. Orduan etxebizitza guztiak banatu zituzten, eta itxaron zerrenda egin. Denborak aurrera egin ahala herritar batzuek ezetza eman dute, eta 15 etxebizitza daude hutsik. Hori horrela, zozketa egingo dute berriro, baina aurretik hitzarmena egin behar dute Bruesak eta Udalak, eta prezioa da adostu beharrekoa. 2004an zozketatutako etxeei 2006an ezarritako modulua aplikatu zieten prezioa finkatzeko –orduan hasi zirelako jabeak ordaintzen. Udalak gura du prezio hori mantentzea, baina Bruesa ez dago ados. Alkateak astelehenean, osoko bilkura aurretik, jasotako erantzunean zera zioen Bruesak: bigarren zozketa egiterakoan modulu berria aplikatu behar dela, hau da, 2007koa; gainera, diferentzia ez dela handia: %2,47 dela bakarrik.

Inaxio Garro alkatearen esanetan, orain dela lau urte egindako hitzarmenaren "interpretazioan" dago arazoa. Hala ere, alde biak daude ados lehenbailehen konpondu behar dela desadostasuna, 15 etxebizitzek jabea izan dezaten.

**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK**

Bestalde, Deba ibaiaren beste aldean babes ofizialeko etxebizitzak ere egingo dituzte, 100 guztira. Horien zozketa laster egingo dutelakoan dago alkatea, baina aurretik hitzarmena sinatu behar du Udalak Eusko Jaurlaritzarekin. Aretxabaletan erroldatutakoek lehentasuna izatea gura du Udalak.

**SANEAMENDU LANAK** > HERRIKO PLAZA

# Barandako harria berriz erabiliko dute

**M.A.** > ARETXABALETA

Martitzen goizean, hilak 1, moztu zituzten Herriko Plazako zortzi platanondoak. Hondeatzeko makina erabili zuten, eta handiak izan arren zuhaitzok, ez zuten inolako arazorik izan langileek. Moztutako egurraren gaineko interesa azaldu zuten bi lagunek, eta Udalak enpresa eraikitzailearengana bideratu zituen. Adarrak, ostera, Mankomunitateak jaso ditu, konposta egiteko.

**HARRIA BERRERABILI**

Joan zen asten bota zuten pergolak harrizkoa zirudien, baina oinarria bakarrik zuen harrizkoa. Apurtu barik jasotako harria gorde egingo dute. Baina garrantzitsuagoa da barandaren azpiko harria eta pilareetakoa. Udalak gorde du, eta berrerabili egingo dute plazan bertan. Pergola azpian zegoen iturria eta kilometro puntuaren pilarea ere gorde egin dituzte berriro jartzeko.


**PLAZA** Martitzen goizean bota zituzten zortzi platanondoak. M.A.

> MERKATARITZA

### Puzgarriak egongo dira bihar goizean Iralabarri plazan

Merkataritza suspertzeko asmoarekin, hilero antolatzen dituzte puzgarriak umeendako. Bihar, zapatua, Iralabarri plazan jarriko dituzte (11:00-13:00).

*Jendea non, giroa han. Aretxabaleta bizirik* leloa jarri diote merkataritza suspertzeko asmoari, eta Udaleko Merkataritza Saila, herriko merkatarien elkarte Aretxarte eta Erostegi, Aretxabaletako ostalaritzarako eta komertzio txikietarako zerbitzuen zentrala dabiltza zeregin horretan.

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia


Durana 33 • Aretxabaleta • 943 79 10 14

**UDALA** > OHIKO OSOKO BILKURA

# Zainduz fitness zentroa erosi du Udalak asteon

Kirol etxe berriko lanak egin bitartean, hainbat jarduera erositako egoitzan ematea da asmoa

Erosita egon arren maiatza edo ekaina bitartean jarraituko dute lanean Zainduz fitness zentroan



**UDALBATZA** Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran udalbatza bozketa egiten. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Ilargi plazan egoitza duen Zainduz SL fitness zentroa erosteko hitzarmena eta baldintzak onartu zituzten aho batez astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran. 2008ko udal aurrekontua egiterakoan, aurreikusi zuten aipatutako lokala erostea, eta 355.000 euro bideratu zituzten; bigarren zatia datorren urteko aurrekontuan sartuko dute. Lokalarekin batera bertako ondasunen jabe egingo da Udala. Asmoa da kirol etxea bota eta berria egin bitartean –abuztu edo irailean hasiko dira lanak–, Ilargi plazako egoitzan ematea hainbat jarduera. Hala ere, Zainduzen lanean jarraituko dute maiatza edo ekaina bitartean.

Bestalde, Mendekotasun Legearen gainean Eusko Legebiltzarrak 2007ko azaroan eztabaidatutako eta adostutako testua aurkeztu zuen talde sozialistak. Legebiltzarreko alderdi guztiek onartutako testua irakurri zuten –Jaurlaritzari hainbat eskaera egiten diona–, eta udalbatzako kideek aho batez onartu zuten.

**'ETA EZ/ETA NO' PANKARTA**

Galderen tartean, martxoaren 8an gertatutako hainbat kontu gogorarazi zituen PSE-EEko zinegotzi Ainhoa Sagarribaik. Isaias Carrasco ETAk Arrasaten erail ostean, elkarretaratzeko dei egin zuten hurrengo egunerako. Udal talde sozialistak bi eskaera egin zituen: *ETA ez/ETA no* zioen pankartaren atzean elkartzea eta une hartarako udaletxeko balkoitik *Euskal Presoak Euskal Herrira* izara kentzea. Pankartarik ez zela ekarri gogorarazi zuen Sagarribaik, eta emandako arrazoia: "Lelorik ez erabiltzeko gomendatu zuela Eudelek". Eta gaineratu zuen: "Baina gomendioa bakarrik zen". Bestalde, salatu zuen izara ez zela kendu balkoitik: "Nahiz eta horrek hiltzaileak, bahitzaileak, estortsio egileak eta kolaboratzaileak ordezkatu". Eta galdera bota zuen: "Noizko *ETA ez/ETA no* pankarta balkoian?" EAko Lore Martinezek adierazi zion "presoen eskubidea dela Euskal Herritik gertu egotea". Eta alkateak argitu zion pankarta eskatuta dagoela, eta datorren asterako egongo dela –nahiz eta Aralar eta EB-Berdeak injustizia sozial eta politiko guztiak biltzen dituen leloaren aldekoak izan–.



**IPUIN KONTAKETA** Vanessa Gonzalez irakaslea ipuinak kontatzen umeei. M.A.

**HEZKUNTZA** > IKASTAROA

# Ipuinak kontatzen jakiteko ikastaroa

**M.A.** > ARETXABALETA

Ipuinak zelan kontatu irakatsiko dute Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunean apirilaren 10ean, eguena (17:30). 0 eta 3 urte arteko umeen gurasoendako antolatu dute ikastaroa, eta ateak zabalik izango dituzte adin tarte horretako umeak dituzten aretxabaletarrendako. Bertako irakaslea den eta ipuin kontaketetan esperientzia handia duen Vanessa Gonzalezek egingo ditu gidari lanak.

**IMAJINAZIOA SUSPERTU**

Adituen esanetan, ipuinek umearen imajinazioa suspertzen dute, eta, era berean, ipuin kontaketak seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak sendotzen ditu. Gonzalezek dio ipuin kontaketa asko antolatzen direla umeendako, baina ez txikienendako, eta gurasoek sarritan ez dakitela zelan iritsi haiengana: "Eurei egokitutako kontuak kontatuz gero, badakite entzuten eta adi egoten", dio.

> INTERNET

## Goizetan dago zabalik KZgunea, eta ONA txartela atera daiteke

Apirilean goizetan egongo da zabalik KZgunea (09:00-13:00), eta hainbat ikastaro egingo dituzte. Gainera, hainbat gestio egiteko diren Izenpe eta ONA txartelak eskura ditzakete herritarrek. ONA (Osasun Nortasun Agiria), esaterako, osasun txartel elektronikoa da eta laster, orain daukagun txartelaren ordez erabiliko dugu. Bi txartelak debalde dira.

Eta IT txartela eskuratzeko hainbat azterketa egingo dituzte apirilean (11:00): 8an, 18an, 22an eta 28an. Interesa duenak aurrez eman dezala izena KZgunera deituta (943 79 94 44).

> DEIALDIA

## Kalejira egin eta argazkia aterako dute bihar, EHBEk deituta

Euskal Herriak Bere Eskolak (EHBE) gure ibarrean hasi du kanpaina, astean bertan. Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarrikapena egiten dabiltza, eta haur eskoletatik hasi eta unibertsitaterainoko hezkuntza eremua ukituko dute.

Bihar, zapatua, bukatuko dituzte ekitaldiak gure ibarrean, eta beste eskualde batean jarraituko dute kanpainarekin. Aurretik, baina, ekitaldi bi egingo dituzte Aretxabaletan bihar (12:00): kalejira Iralabarri plazatik irtenda eta argazkia ateratzea udaletxe aurrean.

> BERBALDIA

## Waldorf pedagogiaren gainean jardungo dute bihar, 17:30ean

*Waldorf pedagogia haur eskolan* izeneko berbaldia antolatu du Izargi hezkuntza elkarteak, eta Lourdes Tormes irakaslea etorriko da argibideak ematera. Udaletxeko ganbaran izango da berbaldia, bihar (17:30).

Waldorf pedagogia giza naturaren ezagutza sakonetik abiatzen da, eta garapen osasuntsurako, umearen beharrak errespetatuz egiten da curriculuma. Gure ibarrean hainbat lagunek ezagutzen dute Waldorf –Aramaion dago haur eskola bat–, baina guraso gehiagok ezagut dezaten gura dute.

MAPFRE
ADI KOOPERATIBISTAK!
SEGURU MEDIKU BEREZIA MCC-KO ONURADUNENTZAT
EUSKADIKO OSPITAL PRIBATU GUZTIETAN ZERBITZUA!
500 MEDIKU GIPUZKOA OSOAN.
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net



AZKOAGAIN Futbol zelaia barrutik berrituko dute, besteak beste, belar artifiziala jarriko dute. GOIENKARIA

## Urrutxuko kirolgune berria 2010erako bukatuta egongo da

Udalak Urrutxun egingo duen kirolguneak belar artifizialeko futbol zelai homologatua izango du, hain zuen, 100x63 metroko neurria izango du. Era berean, atletismo pista izango du. Dena den, erabaki barik dute atletismo pistak lau edo sei kale izango dituen. Gainera, padel pistak eta arku-tiroa egiteko gunea egokituko du kirolgune berrian.

400 ikuslerendako harmaila estaliak egongo dira, eta horren azpian, 117 lagunendako aldagelak egongo dira. Udal arduradunek dituzten epeak betetzen badira, kirolgune berria erabilgarri egongo da 2010eko irailerako.

Dena dela, lanak egiten hasi aurretik, kirol gunea hartuko duen lursaila deskontaminatu egin behar dute. Hain zuzen ere, sei hilabeteko lanak izango dira: lurra mugitu, saneamendu sarea egokitu, lurzorua zigilatu...

**LANAK** > FUTBOL ZELAIA

# Azkoagain zelaiko berrikuntzak egiteko deialdia egin du Udalak

Proposamenak apirilaren 15a baino lehen egin behar dira

Azkoagainen belar artifiziala jarriko dute, besteak beste

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Azkoagain futbol zelaia berritzeko lanen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen martxoaren 25ean. Hortaz, berrikuntza lanak egiteko interesa duten enpresek beraien proposamenak aurkez ditzakete, apirilaren 14a baino lehen.Enkante bidez esleituko dira lanak: hain zuzen ere, proposamen ekonomiko merkeena egiten duen enpresak egingo ditu. Udalak finkatutako gehienezko aurrekontua 1.285.378,04 euro da.

Futbol zelaia berritzeko lanak egin gura dituen enpresak bi motatako agiriak aurkeztu behar ditu: alde batetik, halako lanak egiteko duen gaitasuna erakusten duten agiriak; eta bestetik, proposamen ekonomikoa.

Ibarran Eteoren egoitza berria egiteko lanak irailean hasiko direnez, hango kirol jarduerari irtenbidea emateko asmoz birmoldatuko da Azkoagain futbol zelaia. Horretarako, Girder Ingeniariak egindako proiektua hartu behar dute kontuan enpresek.

**EGIN BEHARREKO LANAK**

Futbol taldeen entrenamenduak eta partiduak, eskolarteko kiroleko lehiak eta Herriko Futbol Txapelketako partidu guztiak hartzeko belar artifiziala jarriko dute Azkoagainen. Era berean, iluntzean entrenatu ahal izateko argi-posteak jarriko dituzte. Baloia zelaitik irten ez dadin, bederatzi metroko sarea jarriko dute zelaiaren bueltan.

Aldageletan ere berrikuntza handiak egingo dituzte. Hala, orain erabiltzen dituztenak ukitu barik, sei aldagela berri egingo dituzte. Hain zuzen ere, Azkoagain sarreran dagoen berdegunean egingo dituzte. Azkenik, taberna aldean dagoen teilapea konpondu egingo dute.

Bestalde, deialdian zehazten da berrikuntza horiek, nahitaez, ekainaren 1etik abuztuaren 31ra arte egin behar direla. Berrikuntza eginda, datozen bi denboraldietan Ibarrako kirol jarduera guztia Azkoagainen jokatuko da.

**BESTE LAN BATZUK**

Azkogain futbol zelaia barrutik berritu ondoren, kanpoan beste hainbat lan egingo dituzte: besteak beste, Zahor lantegia eta Azkoagain artean dagoen espaloia zabaldu egingo dute, eta, neska-mutiko asko ibiliko direla kontuan hartuta, segurtasun baranda jarriko diote espaloiari. Lan horiek guztiak egiteko eperik ez dute finkatu oraindik.

**Joseba Lasagabaster** > Bertsolaria

# "Agurrekoan, gogoratu beharreko guztiekin gogoratu nintzen; hunkigarria izan zen"



M.B.

**M.B.** > OÑATI

**Joseba Lasagabaster Oñatiko Bertso Txapelketako irabazlea da. Txapelarekin oso gustura dagoela esan digu.**

**Hasi aurretik, zorionak! Zer moduz joan zen finala?**

Nahiko gustura nago egindako lanarekin. Hasieran urduri samar nengoen, baina eztarria berotu ahala lasaitzen joan nintzen.

Halako saioetan geratzen den modura, lanik zailena puntuari erantzutea izan zen. Baina, orokorrean, saio ona egin nuela uste dut.

**Ander Lizarraldek publikoaren saria jaso zuen, eta zuk, txapela.**

Anderrek, bertsotan, entzuleei gustatzen zaien umore puntu bat dauka. Ni, aldiz, serioagoa naiz. Baina publikoaren saria jasotzen duenak ere txapela jantzi dezake.

**Noiz ikusi zenuen zure burua txapeldun?**

Txapela buruan izan arte, ez nuen nire burua txapeldun ikusi. Ander Lizarralde fin ibili zen bertsotan, eta biok ala biok maila ona eman genuela uste dut. Edonork irabaz zezakeen finala.

**Agurreko bertsoa hunkigarria izan zen. Gogoratu beharreko guztiekin gogoratu zinen?**

Bai. Etxetik zirriborro bat eraman nuen, eta txapela jantzi nuenean borobildu nuen. Gogoratu beharreko izen guztiak esan nituen.

**Finalean bertsolari gazteak lehiatu ziren. Nolako da Bertso Eskolaren etorkizuna?**

Endika Ruiz, Xabier Paskual, Joseba Igartua eta Beñat Alderdi gazteak dira, baina erakutsi dute bertsotan egiten badakitela. Horregatik guztiagatik, etorkizun ona ikusten diot Bertso Eskolari. Gainera, finala bukatu ondoren afaria egin genuen Bertso Eskolan ibilitakoak, lehengoak eta oraingoan, eta 60 bat lagun elkartu ginen.

> SARIA

### Txantxiku Ikastolako ikasleek diseinu sari bat irabazi dute

Bigarren saria irabazi dute ikastolako ikasle Ainhoa Anduagak, Arantzazu Ugartek eta Miren Urtzelaik Tecnon-Decathlon Diseinu Txapelketan.

Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetako marrazketako ikasle horiek teniseko erraketendako gehigarri batekin eroan dituzte bigarren sariko 1.000 euroak. Lehen saria Sevillako ikastetxe batek irabazi zuen.

Sari banaketa ekitaldia apirilaren 11n egingo dute Donostian, eta han jasoko dute saria Txantxiku ikastolako ikasleek.

> IRAKURZALETASUNA

## 'Bat ekarri/Bi eruen' truke azokara liburuak eramateko deialdia egin dute antolatzaileek

Udaleko Kultura eta Euskara sailek eta Udal Bibliotekak elkarlanean *Bat ekarri/Bi eruen* liburu azoka antolatu dute apirilaren 19rako. Honako hau ekimen hori antolatzen duten hirugarren aldia da. Interesatuek apirilaren 17ra arte eraman ahal izango dituzte liburuak Udal Bibliotekara.

Antolatzaileek esan digute testuliburuak izan ezik beste edozein liburu eraman daitekeela azokan trukatzeko: ipuinak, eleberriak, olerkiak, sukaldaritzakoak… Eramandako liburuak egoera onean badaude, liburu bakoitzaren truke bi txartel emango dizkiete herritarrei. Hala, azoka egunean txartel bakoitzeko liburu bana hartu ahal izango dute.

> INGURUMENA

## Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak kontsumo txikiko bonbillak banatuko dituzte

Eguaztenean, hilaren 9an, EEEk (Energiaren Euskal Erakundea) eta Udalak 75 watt-eko kontsumo txikiko bonbillak banatuko dituzte herriko plazan 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitartean. Horrez gain, etxeko energia aurrezteko gida, ibilgailuendako bioerregaien gaineko liburuxka eta autoen doako gidatze ikastaroaren gaineko informazioa banatuko dute.

Herritarrek agiri ofizialen bat aurkeztu beharko dute, eta interesatu bakoitzak bi pertsonaren dokumentazioa aurkeztu ahal izango du, bi material sorta hartu gura baditu. EEEk eta Udalak egindako hitzarmenaren bitartez antolatu dute ekimen hori.



Arrasaten kontsumo txikiko bonbillak banatu zituzten iaz. GOIENKARIA

> LEHIAKETA

## Etzi, domeka, lehiatuko dira herriko eta kanpoko margolariak goizean aire zabalean

Etzi, domeka, II. Eskoriatzako Margo Lehiaketa Aire Librean egingo dute. Gaia *Eskoriatzako herria eta elizateak* izango da, eta oihalak 09:00etatik 11:00etara bitartean zigilatuko dituzte herriko plazan. Teknika, berriz, librea izango da. Lanak aurkeztu bezain laster, erakusgai jarriko dituzte Ibarraundi museoan, eta 18:30ean irabazleen izenak aditzera emango dituzte.

Nagusienen artean hiru sari banatuko dituzte: 600 eurokoa, 360 eurokoa eta 240 eurokoa, hurrenez hurren. Horrez gain, 16 urtetik beherakoendako beste hiru sari daude: 150, 60 eta 30 eurokoak. Bestalde, herriko lanik onenak 150 euro eskuratuko ditu. Lan guztiak erakusgai egongo dira Ibarraundin hilaren 20ra arte.

> IKUSKIZUNA

## Aitzorrotz kultura elkartearen eguna prestatzen hasiak dira; maiatzaren 10ean ospatuko dute

Aitzorrotz kultura elkarteak apirilerako ohi baino ekitaldi gutxiago antolatu ditu. Hain zuzen ere, kontzertuak bakarrik egingo dituzte; eta ez da bestelako antzezlanik edota erakusketarik egongo. Horren arrazoia da Aitzorrotz kultura elkartea seigarren urteurreneko jaia prestatzen hasi dela. Maiatzaren 10ean egingo dute, eta kontatu digutenez iaz egin zituzten antzeko ekitaldiak egingo dituzte, baina sorpresaren bat ere izango da.

Bestalde, apirilean hiru kontzertu egingo dituzte: gaur, egubakoitza, garage-rocka Los Ajustadores taldearekin; bihar, zapatua, Petti bakarlaria eta Karratua Borobila Da bikotea; eta hilaren 11n, Show Business eta Sanlo Garage Brothers taldeak.



**ELIZATE ERDIAN** Zarimuztarren asmoa da auzo etxea elizate erdian eraikitzea, elizatik hurbil. IKER BARANDIARAN

**UDALA** > EZOHIKO OSOKO BILKURA

# Zarimutzen auzo etxea egitea babestu du Udalak

Auzo etxea egin gura duten lurra urbanizagarria ez denez, eraikitzeko Aldundiaren oniritzia behar dute auzotarrek, eta Udalak babesa eman die

**IKER BARANDIARAN**> ESKORIATZA

Herenegun, eguaztena, ezohiko osoko bilkura egin zuten Eskoriatzako udaletxean, Aste Santuko oporrak zirela-eta martxoan ezin izan zutelako egin. Horren aurretik, baina, Eskoriatzako Industrialdearen gaineko batzar orokorra egin zuten, eta batzar hartan erabaki zuten industrialdearen administrazio kontseiluan EAko Karmelo Lezetak alderdi bereko Juan Carlos Bengoa ordezkatzea.

Industrialdearen gaineko beste proposamenak apirileko ohiko osoko bilkuran lantzeko asmoa daukate. Hala nola, erakunde horrek (Eskoriatzako Industrialdea SA) etorkizunean izan ditzakeen zorrak ekiditeko hainbat ekimen jarri gura dituzte osoko bilkuran mahai gainean.

Horren ostean, ohiko osoko bilkuran landu zuten lehenengo gaia Zarimuzko auzo etxearen gainekoa izan zen. Elizate horretako auzotarrek auzo etxea eraiki gura dute, baina aukeratu dutena ez da lur urbanizagarria.

**ALDUNDIAREN ONIRITZIA**

Hala, lur horretan eraiki ahal izateko, Aldundiaren oniritzia behar dute. Oniritzi hori errazteko bidean, Udalak erabaki zuen auzo etxea giza intereseko izendatzea. Aho batez onartu zuten alderdi guztiek. Hala, Aldundiari erabakia bidaliko diote, eta hark baimena ematen badie, zarimuztarrak auzo etxea eraikitzen hasiko dira.

Horren harira, zarimuztarren asmoa da auzo etxea elizaren parean egitea. Lur horiek Elizarenak dira. Hortaz, auzotarrak Elizarekin negoziatzen dabiltza lurrok erostea.

**AMARAL ETA UDALA**

Berbagai izan zuten beste kontu bat da Amaral enpresari abala itzultzearena. Santa Ana auzoko lanen atzerapenarengatik, Udalak zigortu egin zuen Amaral. Horren ostean, akordioa egin zuten markesinak jartzearen truke zigorra kentzeko. EB-Berdeak taldeak ezik, beste guztiek baiezko botoa eman zuten. EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok azaldu zuen euren ustetan ez dela egokia izan Amaral enpresari zigorra barkatu izana.

Berbagai izan zuten, baita ere, urbanizazio garapenaren ondorioz, orain dela bi urte Iturralde ganadutegi zaharra bota eta berria eraiki behar izan zutela. Hala onartu zutenean ez ziren konturatu lur eraikigarriarenganako distantzia txikiegia zela. Osoko bilkuran aho batez onartu zuten bere horretan uztea.





**IKUSKIZUNAK** > ANTZERKIA

# Umorezko antzezlana egingo dute gaur erretiratuek Huhezin

Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak 'Nos vamos de vacaciones' ikuskizuna egingo du gaur, egubakoitza, Huheziko aretoan, 19:00etan



**PROTAGONISTAK** Oñatiko erretiratuak oso pozik daude aktore lanean. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak *Nos vamos de vacaciones* ikuskizuna egingo du Huheziko areto nagusian, 19:00etan. Sarrera doan izango da, eta ikuskizuna espainolez egingo dute.

Gure artean bitxia da erretiratuen elkarte batek antzerki talde bat sortzea. Baina orain dela lau urte inguru, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko hainbat kidek antzerkia egiten hastea erabaki zuten.

**EGOITZAKOEI, ENTRETENIMENDUA**

Hasierako asmoa zen Oñatiko San Martin egoitzan bizi diren nagusiendako ikuskizunak egin eta haiei entretenimendu apur bat ematea. Zazpi emakume hasi ziren abentura horrekin eta, banaka-banaka, jende gehiago batu da. Gaur egun, bederatzi aktorek eta Asun Artzuaga zuzendariak osatzen dute Ikusi Makusi antzerki taldea.

**OÑATIN, BOST BIDER**

Oñatin bost bider egin dituzte antzezlanak Santa Ana antzokian, eta dagoeneko hiru ikuskizun estreinatu dituzte: Virginia Marrautek idatzitako *Estoy harta; En dos palabras: im-paciente* eta *Nos vamos de vacaciones*, azken hori Asun Artzuagak idatzitakoa.

Hirurak umorezko ikuskizunak dira, eta Huhezin egingo dutena hirugarrena, *Nos vamos de vacaciones,* izango da. Azkenaldian eskaera ugari izan dituzte beste herri batzuetan ikuskizunak egiteko, eta tarteka joan izan dira.

**MUSIKA** > BI KONTZERTU ASTEBURUAN

# Gaur, egubakoitza, garage-rocka, eta bihar, zapatua, emanaldi akustikoak Inkernun

Los Ajustadoresek garagea egingo du, eta Pettik eta Karratua Borobila Da taldeak, emanaldi akustikoak

**I.B.** > ESKORIATZA

Asteburuan bi kontzertu egingo dituzte Inkernu tabernan. Gaur, egubakoitza, Gasteizko Los Ajustadores taldea igoko da agertoki gainera, 22:30ean. Gidaria Los Padrinos taldeko abeslari ohi *El Hierro* da, eta garage-rock musika egiten dute.

Bihar, berriz, beste mota bateko emanaldia egongo da ikusgai eta entzungai taberna berean. Lasarte-Oriako Karratua Borobila Da bikoteak eta Berako Petti bakarlariak norberak bere kontzertua egingo dute, jarraian, eta 22:00etan hasiko da saioa. Emanaldi akustikoa egingo dute biek ala biek.

**PETTI, BAKARLARI BEREZIENA**

Berako Pettik ibilbide luzea dauka musikagintzan. Aspaldi Zup! taldean hasi zen gitarra jotzaile, baina bakarlari izateari ekin zionetik, lau disko kaleratu ditu: *Amets bat, Arrazoiak, Etxeko uzta* eta *On*. Horrez gain, Anarirekin beste disko bat dauka erdibana, eta Txuma Murugarren eta Rafa Ruedarekin ere beste disko bat kaleratu zuen. Bluesa, folka eta intentsitate handiko musika egiten ikaragarria da.




**ARDURADUNAK** Jon Ander Altuna eta Ruben Testa, Malutan. IKER BARANDIARAN

**MERKATARITZA** > DENDA BERRIA

# Snow taulen eta arropen denda zabaldu berri dute

**I.B.** > ESKORIATZA

Bizi dugun garaian ez da ohikoa herri txikietan denda berriak zabaltzea; kontrakoa baizik, gero eta denda gehiago ixten dituzte-eta. Horregatik, herritar bat baino gehiago harritu da herriko plazaren parean arropa denda berri bat ikusita.

Saltokiak Maluta izena dauka eta lau eskoriatzarrek zabaldu dute: Jon Ander Altunak, Ruben Testak eta Maite eta Nagore Uribetxebarria ahizpek. Testak sei bat urte darama eskiak eta snow taulak konpontzen, eta denda bat zabaltzeko ideia aspalditik zeukaten buruan.

**SNOW ETA SKATE JOERA**

Herritar eta lagun askok esan zieten gaur egun denda txikiek arrakasta txikia izaten dutela, baina proba egitea erabaki zuten: "Gutako gehienok beste lan batzuk dauzkagu, eta lauron artean denda zabalik izateko antolatzen gara", azaldu zigun Maite Uribetxebarriak.

Bestalde, Uribetxebarriak jakinarazi digu arropa mota hori "gaur egun asko erabiltzen dela, eta eskoriatzar askok snowa egiten dutela. Are gehiago, gaztetxoenen artean skatea egiteko zaletasun handia zabaltzen dabil".

**SALDU ETA KONPONDU**

Snow taulak eta horiendako osagarriak saltzen dituzte, baina baita ere elastikoak, kiroljertseak, prakak, gerrikoak eta beste batzuk.

Horrez gain, snow taulak eta eskiak konpontzeko zerbitzua ere dendan bertan ematen dute egunero.



**UDALA** > OHIKO BATZARRA

# Aho batez onartu zuten gizarte etxeko araudiaren hasierako proposamena

Ordutegiak eta jatorduek zalantzak eragin zituzten zinegotzien artean, baina proiektua abian ipinitakoan baloratzea adostu zuten

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Udalbatzak eguaztenean egin zuen ohiko batzarra eta, besteak beste, Torresoroaren gaineko eta larru ontze eta uhalgintza proiektuaren inguruko erabakiak hartu zituzten.

Torresoroa gizarte etxeko eguneko zentrorako eta etxebizitza babestuetarako araudiaren hasierako onarpena egin zuten aho batez. Eguneko zentroak 12 lagunendako tokia izango du eta zerbitzu hauek eskainiko ditu: higiene pertsonala, mantenua, garraioa, eguneroko bizimodura egokitzeko oinarrizko laguntza, osasun zerbitzuak eta zerbitzu psikosozialak eta animazio soziokulturalekoak. Araudiak eguneko zentroan sartzeko baldintzak, ordutegia eta egutegia eta erabilera arauak zehazten ditu, besteak beste. Ordutegiaren kontua izan zen zalantza eta eztabaida handien sortu zuena. Etxebizitza babestuei dagokienez, jatorduen kontuak ekarri zuen zalantza. Hala ere, aho batez adostu zuten araudiak onartzea eta biak abiarazitakoan ikustea nolakoa den funtzionamendua eta, horren arabera, egokitzapenak egitea.

**LARRU-ONTZE PROIEKTUA BABESTU**

Larru-ontze eta uhalgintza proiektuaren lan faseak eta aurrekontuak ipini zituzten mahai gainean gero. Zinegotziek eta alkateak aho batez onartu zuten proiektuari berari babesa ematea, egun lan horretan dihardutenek Udalaren oniritzia izan dezaten, besteak beste, dirulaguntzak eskatzeko. Bestalde, jakinarazi zuten asmoa dagoela proiektuaren jarraipena egiteko lan talde bat osatzeko, udal ordezkariekin eta teknikariekin.

Azkenik, Gehitu elkarteak maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako borrokaren nazioarteko eguna izendatzeko adierazpenari baiezkoa eman zioten denek.

Alkatetzaren dekretuen berri eman zuten amaieran.



GOIENKARIA

## Egaña familia Elosun aste bukaeran

Zumaiarrak jatorriz, *Antzuolaratuak* eta gaur egun Antzuolan eta Arrasaten bizi direnak, Egaña familiako zazpi anai-arrebak dira eta euren bikotekide, seme-alaba eta bilobekin elkartu ziren aste bukaeran Elosun; guztira, 66 lagun. Aurtengoa izan da denak elkartu diren lehen aldia, eta aurrerantzean ere familia giroko jaia urtero egitea da euren nahia.



GOIENKARIA

## Candanchun eta Astunen eskiatzen

Arrola elkarteak antolatuta, eski irteera egin zuten aste bukaeran. Zapatu goizean Antzuolatik abiatu eta Candanchun eskiatu zuten, eguzkia lagun zutela. Domekan, Astuneko eski estazioan ibili ziren eguraldi txarra izan arren. Gustura ibili ziren eta, gainera, Arrolakoek hurrengo irteeretarako ideiak eta proposamenak jaso dituzte.

**AISIALDIA** > MOTORRA

# Herriko motorzaleek irteera egingo dute etzi, domeka

Errepideko motorrean, Araban eta Nafarroan egingo dituzte 385 kilometro

I.A. > ANTZUOLA

Apirilaren 6an, domekan, irteera egingo dute Antzuolako motorzaleek.

Goizeko bederatzietan Herriko Plazan dute hitzordua, eta Arrasaten barrena, Landa ingurutik, Larreatik eta Zalduondotik pasatuz, Arabara joango dira, handik Altsasurako bidea egiteko.

Nafarroan, Altsasutik Irurtzunera herri txikietan barrena egingo dute bidea, eta Irurtzundik Iruñera ere bide zaharretik joango dira, handik Yesara arteko tartea egiteko.

Xabierren hamaiketakoa egin eta Olitera abiatuko dira, han inguruan edo Tafallan bazkaltzeko. Bazkalostean, Lizarra, Zudaire eta Urbasatik berriz Altsasura iritsiko dira, eta Otzaurtetik, Zegama eta Seguran barrena, Antzuolara.

Guztira, 385 kilometro inguru izango dira motor gainean egingo dituztenak, eta 19:00 alderako Antzuolan izatea aurreikusi dute. Informazio gehiago nahi duenak edo ibilbidearen mapa ikusi nahi duenak honako helbidera jo dezake: *www.moterus.es/eventos/salida-motera-antzuola-06-04-08-2008-4-6*.

**ERREPIDEKO MOTORRA**

Domekako motor irteeran errepideko motorra duen edozeinek har dezake parte. Antzuolarrei egin diete dei, baina inguruko herrietako motorzaleren batek interesa izango balu ere, ateak zabalik ditu. Izena emateko, Mujika harategira jo behar dute motorzaleek, eta 10 euro aurreratu.

Hemendik aurrera asmoa da herriko motorzaleendako noizean behin irteerak antolatzea, hiru hilabetean behin-edo.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

bere ustez



Bea Zabalondo

## Atsegina non bizi

Ume-umea nintzenetik egin dut amets liburuekin. Garai haietan, baina, zein etxetan topatu libururik? Gabeziak betetzen zituen apalak. Anai-arreba zaharragoren batek *estudioak* bazituen, akaso hark erabilitakoak izango ziren armairuren batean. Norberak gustu pittin bat izanez gero, eskuetan gozatzeko aukeratxoa. Baina ez zen ohikoa, ez zenez.

Jantzi-oinetakoak bezala, balio handikoak ziren liburuak. Nola baliatu, zenbat ikasturte iraungo zuten, umeak liburuetarako balio ote zuen… Kontuak ondo atera behar erosterako: errentagarri iritziz gero, orduan, bueno. Izan ere, ba al zegoen etorkizunean pentsatzeko zirrikiturik? Haur-gazte haiek noizbait inor izatera irits zitezkeenik ere!

**"Sekulako festa da niretzat nahi ditudan liburuak erosi eta (...) gazteagoei uztea"**

Bonbilla mehe hitsen ilunpeetan begiak erretzen genituen. Eta pentsa nola izango ziren kontuak orduan, norberak zaletasunik handiena irakurtzea izan eta beti ipurtargi haiek zenbat gastatzen zuten entzun behar!

Gaur, sekulako festa da niretzat nahi ditudan liburuak erosi, eta, argi begira ederrean jarrita, irakurtzeko presarik ez hartzea. Eta are atseginagoa: liburuak gazteagoei uztea.

((112))
SOS DEIAK




**PLAZA BERRIA** Galtzada-harrien diseinu berriak emango dio eremuari plaza itxura. L.Z.

**HIRIGINTZA** > LANAK

# Panaderokuaren aurrean plaza berria egingo dute

Udalak zenbait aldaketa egin dizkio hasierako proiektuari, eta asfaltatu egingo dituzte Lasao kalean eta Ozkarbi atzealdean dauden aparkalekuak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Salbador kaleko lehenengo ataritik Ozkarbiko arku parerainoko eremuari plaza itxura emango dio Udalak. Hasierako proiektuari zenbait aldaketa egin dizkiote. Hala, eremu horri lurreko galtzada-harrien diseinu berriak emango dio plaza itxura.

Aldaketak zergatik egin dituzten galdetuta, Hirigintza zinegotzi Iban Retolatzak bi arrazoi eman ditu: "Alde batetik, obra ondo bukatuta geldi dadin, bai itxura aldetik bai kalitate eta funtzionaltasun aldetik; bestetik, obra egin behar dela aprobetxatuz, epe laburrean egin beharreko beste lan batzuk egiteko".

**AURREIKUSITAKO ALDAKETAK**

Besteak beste, Salbador eta Lasao kaleetan gas-hartuneak etxebizitza guztietan jarriko dituzte. Lasao kalea eta Ozkarbi osteko aparkalekua asfaltatu egingo dituzte. Lasaon, irisgarritasuna hobetzeko, mailak ere kenduko dituzte.

Aldaketa horiek eragina izango dute bai lanon aurrekontuan bai amaitzeko epean. Hurrengo astean finkatuko dituzte epe berriak. Aurrekontuaren gaineko informazioa, berriz, batzordeetan emango dutela jakinarazi dute.

**DEIALDIA**

## Athleticen lagunartea bazkideak egiten dabil

Urteko kuota 50 euro da, eta Intxortako Lehoiek Kutxan dute kontua

**L.Z.** > ELGETA

Elgetakoa Athleticek Gipuzkoan duen 15. lagunartea da. Eratu dute elkartea eta kuotak kobratzen hasi dira. Kutxan zabaldu dute kontua, Intxortako Lehoiak izenarekin.

Urteko kuota ere ipini dute. 50 euro da helduendako, eta 25 euro, adin txikikoendako.

Batutako diruarekin, lagunarteak 200 euro ordainduko dizkio Lagunarteen Elkarteari. Gainera, urte osorako bi abonu erosiko ditu bazkideen artean erabiltzeko. 40tik gora lagunek eman dute izena. Orain, Kutxatik pasatzea gelditzen zaie.



Felix Irizar presidentea. L.Z.



MIREN ARREGI

## Teodora Arantzabalek, 100 urte

1908ko apirilaren 1ean jaio zen Teodora Arantzabal elgetarra. Astelehenean, beraz, 100 urte bete zituen. Etxabarri baserriko Dora Eibarko zaharren etxean bizi da azken 23 urteotan. Osasunik ez zaio falta, eta esan digu behin besterik ez dela ile apaindegira joan. Gaur, oraindik ere, berak moztu du ilea. Ehun urte betetzearen sekretua neurrian jatea dela dio. Zorionak, Dora!

> IKUSKIZUNA

### Sarrerak salgai, Anthony Blake mentalistak hilaren 12an Espaloian egingo duen ikuskizunerako

Anthony Blakek apirilaren 12an, zapatua, ikuskizuna egingo du Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Azkenaldian urtero egin du bisita Espaloira, baita aretoa bete ere. Aurten ere ez du kale egingo. Sarrerak dagoeneko salgai daude 18 eurotan; bazkideendako 15 euro.

> HERRI ESKOLA

### Datorren ikasturterako matrikulazio epea zabalik dute Herri Eskolan apirilaren 11ra arte

2008-2009 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dute Elgetako Herri Eskolan. Interesatuek umearen errolda agiria, familia liburuaren fotokopia eta guraso edo tutore baten nortasun agiriaren kopia eraman behar dituzte eskolara.

> OPORRAK BAKEAN

### Familiak behar dituzte aurten ere udan Saharako umeak udan, bi hilabetez, etxean hartzeko

Uztailean eta abuztuan izango dira umeak gure artean, eta interesatuek Udaleko Gizarte Zerbitzura jo behar dute apirilaren 10a baino lehen. Astelehenetan, eguaztenetan eta eguenetan egoten da arduraduna udaletxean. Ordutegia honakoa da: 09:00etatik 14:30era.



**AUZOAK** Batez ere, landa auzoetako lurjabeei eragingo die segregazio eskaera egiteko aukerak; irudian, Gantzaga auzoa. JONE INUNTZIAGA

**UDALA** > AUZOETAKO LANDA EREMUA

# Udalak lursailak banatzeko eskariak jasotzen dihardu

Landa eremuetako lursailen segregazio eskaerak aurkezteko aukera dago apirilaren 11ra arte

Udalak jurista agentzia bat kontratatuko du aurkezten diren eskariak azter ditzan

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak azken urteotan ez du auzoetako landa eremuetako lursailak zatitzeko baimenik eman. Udalak aste batzuk barru aurkeztuko du Hirigintzako Plan Orokorraren aurrerapena Arabako Diputazioan, eta plana aurkezten duten momentuan ezingo dute lursailak zatitzeko edo etxebizitza berriak eraikitzeko lizentziarik eman. Horregatik, erabaki dute hemendik eta Plan Orokorraren aurrerapena aurkeztu arte, auzoetako landa eremuetako lursailen segregazio eskariak jasotzea. Apirilaren 11ra arte egongo da zabalik horiek udaletxean aurkezteko epea. Ondoren, Udalak aztertu egingo ditu jasotako eskari guztiak.

Urte askoan lursaila zatitu nahian dabilen aramaioar batekin egon gara berbetan. Hark azaldu digu lursaila zatitu ezin izanak arazo handiak eragin dizkiola eraiki berri duen etxearen eskriturak egiterako. Honakoa azaldu digu: "Lursail batean bi etxebizitza edo jabe baldin badaude, eta bakoitzaren zatia zehaztu gabe baldin badago, ez dago jakiterik zer den zeinena". Horretaz gain, eraikinen jabegoan ere nahasketak gertatzen direla azaldu du. Adibidez, baserri bat lursailaren %80ren jabe bada, legez, terreno berean dagoen beste etxebizitzaren %80 ere berea da. Horrek buruhauste handiak sortzen ditu, esaterako, hipoteka mailegu bat eskatu nahi izanez gero.

Udalak jurista agentzia bat kontratatuko du eskaerak aztertzeko. Interesa dutenek, eskariarekin batera, jabetza eskriturak eta bi plano aurkeztu beharko dituzte (hasierako egoera eta zatiketaren ondorengoa). Dena dela, Asier Agirre alkatea eta Martin Arriolabengoa zinegotzia udaletxean egongo dira apirilaren 7an, 19:00etan hasita, edozein zalantza argitzeko.

**EPAITEGIAK**

## Fiskaltzak kereila jarri dio herriko alkateari

Prebarikazioa eta desobedientzia egotzi diozkio Fiskaltzak Agirreri

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Fiskaltzaren arabera, iazko irailaren 28an, 29an eta 30ean legez kanpoko erreferenduma egin zuten Aramaion, horretarako, udal azpiegiturak erabilita. Horrelako galdeketa egiteko Espainiako Gobernuaren baimena beharrezkoa dela dio Fiskaltzak. Prebarikazioa, aginte judizialari desobedientzia eta ondasun publikoak bidegabe erabiltzea egotzi dizkio Fiskaltzak Asier Agirreri.

Alkateak Gasteizko epaitegian deklaratu behar izan zuen galdeketa egin eta astebetera, eta orain Espainiako Fiskaltzak kereila ipini dio.

673 herritarrek eman zuten AHTren gaineko iritzia irailean: %97k kontra bozkatu zuten, 654 herritarrek, hain justu. Aldeko botoak 10 izan ziren, eta bederatzi, zuriak.

2006an, aramaioarrek 600 sinaduratik gora aurkeztu zituzten Udalean, AHTri buruzko galdeketa egiteko eskatuz. Inkesta iazko maiatzeko udal hauteskundeen egunean egitekoa zen Udala, baina Arabako Hauteskunde Batzordearen debekuarengatik atzera egin zuen. Herritarrek galdeketa aldarrikatzen jarraitu zutenez, irailean eman zuten iritzia.

Alkateak berria hedabideetan jakin du eta horixe izan da salatu duena: berari inolako jakinarazpenik iritsi aurretik berria hedabide guztietan agertu izana. Dena dela, esan du lasai dagoela eta ez dela damutzen inkesta egin izanaz.

**KULTURA** > SARI BANAKETA EKITALDIA

## Sabin Salaberriak apirilaren 20an jasoko du Manuel Lekuona saria, kultura etxean

**A.B.** > ARAMAIO

Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman dio Sabin Salaberria organo jotzaileari. Hori horrela, saria non jaso erabakitzeko aukera eman diote Salaberriari. Organo jotzaileak Aramaio aukeratu du horretarako, asko maite du-eta sorterria. Apirilaren 20an jasoko du saria eta Eusko Ikaskuntzak antolatuko du ekitaldia. Udalak kultura etxea eskaini du horretarako.

Eusko Ikaskuntzako bi pertsona Aramaion izan ziren pasa den astelehenean, Udaleko arduradunekin bildu eta ekitaldiaren nondik norakoak zehazteko. Ainara Inuntziaga Kultura zinegotziak azaldutakoaren arabera, eguerdian, hamabietan, hasiko da ekitaldia. Hasteko, bideo txiki bat ipiniko dute, Sabin Salaberriaren bizitzaren gainekoa. Ondoren, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Aramaioko alkateak hitz batzuk eskainiko dizkiote musikariari. Arabako Foru Aldunditik ere etorriko dira ordezkariak, baina zehazteke dago, oraindik, nor etorriko den. Ekitaldia amaitzeko, Aramaioko abesbatzak, trikitilari eta txistulariek lagunduta, Sabin Salaberriaren abesti bat kantatuko du. Erretiratuen etxean, gero, luntxa egingo dute. Herritarrei zabaldutako ekitaldia izango da.

Udalak azaldu du asko poztu zirela Salaberriak saria jasotzeko Aramaio aukeratu zuela jakin zutenean. Udalarendako ekitaldi oso berezia dela adierazi dute, eta dena ondo irten dadin gogor lan egingo dutela gaineratu dute.

> ZINEMA

### 'Asterix Britainian' filma eskainiko dute domeka arratsaldean

*Asterix Britainian* filma ikusteko aukera izango dute aste bukaeran Aramaioko txikitxoek. Etzi, domeka, izango da hori, 17:00etan, kultura etxean. Asterix eta Obelix Britainiara joango dira oraingo honetan, britainiarrei erromatarren aurka borroka egiten laguntzeko. Edabe magikoa, baina, lapurtu egingo diete erromatarrek.

**Montserrat Valerio** > Soran Etxea hoteleko jabea

# "Gaztainuzketan oso gustura egon gara, baina orain Soran Etxeari zabalduko diogu atea"

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

**Montserrat Valerio (Lleida) eta Lorenzo Larrañaga (Itziar) senar-emazteek Arlaban gainean dauden Gaztainuzketako mendi etxeen ardura izan dute 12 urtean. Laster hango ateak itxi eta Soran Etxea hotelari zabalduko dizkiote, irailean.**

**Zelan doaz Soran Etxeko lanak?**
Oso ondo. Instalakuntza lanak bukatzea geratzen da, egurrean lan batzuk egitea eta dekoratze lanak. Osagai guztiak dauzkagu aukeratuta, eta laster hasiko gara jartzen.

**Hortaz, jarritako epea beteko duzue?**
Ezusteko handiren bat gertatzen ez bada, behintzat, bai. Uztailerako bukatuta izango dugu, eta irailean zabalik. Gremio guztiak batera dabiltza lanean, eta horrek samurtu egin ditu lanak.

**Gero, baimen eskaerak egin beharko dituzue.**
Dagoeneko hasita gaude baimenak eskatzen; hortaz, ez dugu itxarongo azken ordura arte.

**Jauregia da Soran, eta hala izaten jarrai dezan zerbait egin behar izan duzue?**
Bai, noski. Kanpoko itxura mantendu dugu; baita egurrezko eskailerak, sabaia eta habeak, eta ateak eta leihoak ere. Egurra benetan zaharra da, baina oso itxura polita hartu dute habeek, garbitu eta tratamendua eman ostean. Harrizko zoru zati bat ere dagoenetan utzi dugu.

**Izan ere, jauregia antzinakoa da, ezta?**
Nik dakidala, 500 urte inguru izango ditu. Aurretik beste jauregi bat egon zen leku berean, baina jauntxo batek eroan egin zuen harriz harri Nafarroa aldera. Orain dagoena 1600. urte inguruan eraikitakoa da.

**Zelakoa izango da hotela?**
Hamar logela izango ditu, eta horietako bat ezinduendako gertatua dago. 60 lagunendako jangela, 12 lagunendako jangela pribatua eta taberna ere baditu, eta geure etxebizitza bertan egongo da. Gelak edozein hoteletan legez gertatuta egongo dira: hozkailua, musika, telebista, Internet…

**Hotel izendapena izango du?**
Bai; gure eskaera izan zen bi izardun hotela, eta halaxe eman digute. Gainera, arkitektura interesekoa gehitu diote bi izarrei, eta pozik gaude. Egia esan, izarrek ez dute ezer berezirik ematen, eta gure asmoa ez zen askorik izatea.



Montse Valerio, Gaztainuzketako mendi etxe baten aurrean. MIRARI ALTUBE

**"Kanpoko itxura mantendu diogu jauregiari, baita egurrez egindako gehiena ere"**

**"Bi izardun hotela da, eta izendapenari arkitektura interesekoa gehitu diote"**

**"Gaztainuzketan urte onak pasatu ditugu; bezeroak orain Soranera etortzea gura dugu"**

**Soran irailean zabalduko duzue, baina aurretik urte asko egin dituzue Gaztainuzketan.**
Bai, halaxe da. Lehenengo hiru urteak Gatzagainen zegoen Venta Fria jatetxean egin genituen, eta mendi etxeak kudeatzeko aukera ikusi genuenean haraxe jo genuen. 12 urte egon gara, oso gustura egon ere.

**Hortaz, mendi etxeak uzteak tristura apur bat emango dizue…**
Bai, noski. Lanbidea eta bizimodua, guztia izan da Gaztainuzketa guretako. Oso ondo bizi izan gara, lasai, baina apur bat isolatuta dagoela ezin da ukatu. Seme-alabak pozik daude aldaketarekin, askatasun handiagoa izango dutelako herrian bizi izanda; autobusa pasatzen da eta irteteko aukera gehiago izango dute. Orain beste etapa bat hastera goaz, ate bat itxi eta beste bat zabaldu, eta ilusio handiarekin gaude guztiok.

**Zelakoak izan dira 12 urteok?**
Oso onak. Gure zerbitzuaren oinarria jatetxea izan da, eta poliki-poliki bezeroak egin ditugu. Bezero horiek Soran Etxera atzetik jarraitzea gurako genuke.

**Zer izango du Soran Etxeak Gaztainuzketak ez duena?**
Geuretako lan gutxiago, kanpoko mantentze-lanik ez dugulako egin beharko. Bestalde, leku handiagoa egongo da, eta zerbitzuak eguneratuta izango ditugu: Internet… Eta geurea izango da; mendi etxeak, ostera, Udalarenak dira. Bakoitzak bere alde ona eta txarra dauka. Ez dakit nork hartuko duen, baina etorkizun handia ikusten diot Gaztainuzketari.

**GARRAIOA** > AUTOBUS ZERBITZUA

# Goiz erdian Gatzagara joateko autobus zerbitzua jartzeko zain dago Udala

Behin baino gehiagotan eskatu dute 11:00ak aldean Eskoriatzatik Gatzagara joateko autobusa egotea

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Hainbat aldiz egin dio Udalak autobus zerbitzua osatzeko eskaera Aldundiari azken hilabeteotan. Orain arte lortutakoarekin gustura dago, baina herriak goiz erdiko zerbitzua behar duela uste du Eusebio Villar alkateak. Izan ere, 08:50etik 15:45era bitartean ez da pasatzen autobusik. Aldundiaren berririk, baina, ez daukate, eta kontua luzatzen hasita dago.

**AUTOBUSA EDO TAXI-BUSA**

Urtarrilean berritu zuten Gatzagatik pasatzen den autobus zerbitzua, eta ordutegi berria zehaztu. Gustura geratu ziren orduan bai Udala, bai herritarrak. Gero, baina, taxibusaren zerbitzua kendu zuten, eta goiz erdian ez dago Eskoriatzatik Gatzagara ailegatzeko zerbitzurik: "Gasteizera doan Pesa konpainiako autobus bat pasatzea 11:00ak inguruan proposatu genuen, edo bestela, taxibusa mantentzea", dio Villarrek. Hain zuzen, zapatuetan 11:45ean pasatzen da autobus bat Gatzagatik Gasteizera bidean, baina ez lanegunetan.

**TXARTEL BATERATURIK EZ**

Gatzagan oraindik ez dago autobuserako txartel bateratua eskuratzeko aukerarik. Udalak ez dauka kontua ahaztuta, eta badaki, gainera, Arrasateko institutura doazen ikasleendako onuragarria dela, baina zelan bideratu aztertzen dabil. Oraingoz, Eskoriatzan (Dorleta liburu denda) edo Aretxabaletan (kioskoa eta Ibarra estankoa) atera beharko dute interesa duten erabiltzaileek.



**AUTOBUSA** Pesa konpainiako autobusa, Gatzagako geltokira ailegatzen. M.A.

> UDAL ZERGA

## Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik dago, eta maiatzaren 6a bitartean egin behar da

Ibilgailua izateagatik herritarrek Udalari zerga ordaindu behar diote, eta 2008ko kuota ordaintzeko epea zabalik dago. Maiatzaren 6a bitartean, hain zuzen, egin behar dute, udaletxeko zergabilketa bulegoan, ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik. Herritarren bat ez balego ados ordaindu beharrekoarekin, hilabeteko epea du erreklamazioa aurkezteko.

Iazko urrian udal zergak onartu zituztenean, automobil txikiei ezartzen zaien kuota ez igotzea erabaki zuen Udalak, "Gatzagan derrigorrez erabili beharra dagoela" arrazoituta.

> INTERNET

## Arratsaldeetan egongo da zabalik KZgunea apirilean, baina ez dute egingo ikastarorik

Apirilean arratsaldeetan zabalduko dute Pilar kaleko KZgunea (17:00-20:00). 16 urtetik gorakoek izango dute aukera Interneten ibiltzeko, baina arduraduna ez da etorriko eta ikastaroak egin gura dituenak datorren hilera itxaron beharko du.

Bestalde, Izenpe edo ONA txartelak eskuratu gura dutenek inguruko herrietan dauden KZguneetara jo beharko dute. Eta IT txartela ateratzeko azterketak Aretxabaletako eta Arrasateko egoitzetan egiten dituzte, aurrez txanda hartuta.

**bere ustez**



Markel Irizar

## Urduritasun handiko egunak

Badator Euskal Itzulia, Euskaltelendako denboraldiko proba garrantzitsuena. Egun horietan sekulako tentsioa izaten da taldean, etxean korritzen dugu-eta. Batetik, gure zaleen aurrean lana ondo egin gura izaten dugu, eta baita taldeari laguntzen dioten babesleen aurrean ere.

Zoritxarrez, aurten ez dugu izango Mayo edo Samu bezalako lider argirik; Astarloza oso txirrindulari ona da, baina ez da irabazle petoa. Gainera, Igor Anton min hartuta dabil, eta, akaso, azken orduan Velascok ordezkatuko du. Hori horrela, taldeak %100 eman beharrean %200 eman beharko du, hasiera-hasieratik egurra egongo dela aurreikusten dudalako.

> **"Zaleen eta babesleen aurrean korritzen dugu, eta taldean tentsio handia izaten da"**

Sailkapenari begira, berriz, sorpresa izango da Contadorrek (Astana) proba ez irabaztea, gainontzeko txirrindulariak baino lau puntu gorago dagoelako. Azkenik, ibilbideari dagokionez nobedaderik ez: bide estuz osatutako etapak eta mendate mordoa.

**TXIRRINDULARITZA** > EUSKAL HERRIKO ITZULIA

# Iban Velasco, irteera puntuan egongo den zalantzarekin

Igor Anton min hartuta dago eta nekez errekuperatuko da astelehenean hasiko duten probarako; Iban Velasco da haren ordezkoa

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Atzo 10:00etan egin zuten Euskaltel Euskadiko txirrindulariek entrenamendurako hitzordua, Bergaran. Astelehenean Legazpin hasiko duten Euskal Herriko Itzulian esku hartuko duten txirrindulariak izan ziren entrenamendu saio horretan, eta tartean izan zen Iban Velasco arrasatearra. Markel Irizarrek gaur bertan egingo du Flandes aldera bidaia, eta Oñatikoa hango klasikoetan buru-belarri ibiliko da datorren astean.

Hala, oraindik ez dago jakiterik Arrasateko txirrindularia Euskal Herriko Itzulian izango den edo ez; taldeak Igor Anton errekuperatuko den itxaropena du –atzoko entrenamendu saioan ez zuen esku hartu, ez dago erretratuan–. Esan barik doa ez dagoela lesio batetik hala moduz errekuperatzea modukorik, edo gorputzaldi onenean egon barik sei eguneko itzuli gogorrari ekitea ez dela gomendagarriena. Baina, hor dago kirolari ezaguna izatearen aldea, baita txirrindularitzan ere –eta ez abantaila, inork ez duelako lesionatuta korritzea gura izaten–. Hori horrela, Velasco azken unera arte egon beharko da azken erabakiaren zain: "zain nago, ezin dezaket besterik egin", adierazi zuen atzo lansaioa hasi aurretik.

Velascok Euskal Herriko Itzulian egongo diren lasterketarekin batera gainbegiratu zuen egubakoitzean (hilak11) korrituko duten bosgarren etapa (Gasteiz-Orio). Aurreratu moduan, Gasteizen hasiko da etapa hori, baina Gorlaraino ez du mamirik izango. Hain zuzen ere, puntu hori aukeratu zuen atzo Euskaltelek etapa errepasatzen hasteko, Gorlan hasi zuten-eta Oriorako bidea. Hasierako kilometroetan, gainera, hainbat argazkilari eta telebista kamerek bertatik bertara jarraitu zuten talde laranjaren jarduna; ikusmina dagoen seinale.

**BAZEGOEN ZER GAINBEGIRATU**

Atzoko entrenamendu saioak helburu garbia zuen: etapa erabakigarria izan daitekeena bertatik bertara ikusi. Izan ere, 162 kilometro izango dituen etapak hainbat mendate gogor izango ditu, baina Aiako igoeran egon daiteke gakoa. Horra justu iristen denak gorriak ikusiko ditu, eta aukera guztiak galduko ditu zapatuko erlojuperako (Orio-Orio).

**ETA IBARREAN, ZER?**

Bada, kilometro asko baina gura baino ikuskizun gutxiago –eskerrak Gorlari–. Hori da aurtengo Euskal Herriko Itzuliak ibarrean utziko duena. Lehenengo etapan ziklistek birritan egingo dute Udana, Oñati, Elorregi, Bergara, Antzuola ibilbidea, baina Udanara igo eta Legazpitik zelan datozen ikustera joaten ez denak ziztu bizian ikusiko ditu txirrindulariak –14:30ean igaroko dira lehenengoz Udanatik–.

Martitzeneko etapan beste horrenbeste, (Legazpia-Erandio, 13:10). Orduan ere txirrindulariak Udanatik sartuko dira ibarrera, handik Osintxu aldera egiteko (13:20). Eta, bosgarren etaparaino (Gasteiz-Orio) Euskal Herriko Itzulia Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako errepideetan galduko da. Bosgarren etapan, egubakoitzean, hemengo zaleek ondo gozatu ahal izango dute. Txirrindulariak Arabako hiriburutik etorriko dira, eta Arlaban jaitsita Eskoriatza (13:38), Aretxabaleta, Arrasate eta Bergaratik (14:00) igaroko dira. Tropelak barrutik zeharkatuko du Bergara, Gorlara bidean; hain zuzen, kilometro horietan botako dituzte ziklistek eguneko lehenengo izerdiak, baina ez dira azkenak izango, seguru.



GORLAN GORA Euskaltelekoak -Velasco ezkerretik b

KONTUTAN HARTZEKO

### Aiako igoeran %26ko maldak igo beharko dituzte ziklistek

Kontuz aurtengo Euskal Herriko Itzulirako antolatzaileek prestatu duten tranparekin: Aiarako igoerarekin. Aurtengo infernuak 1,5 kilometro ditu, ez da luzea, baina sekulako maldak ditu: %26rainokoak -idazteak ere beldurra ematen du-.

Orain dela gutxira arte baserri bidea baino ez dena izan protagonista bilakatuko da aurtengo itzulian. Aurpegia txukundu diote bi metro zabaleko errepideari, asfaltatu egin dute, eta han dago, egubakoitzaren zain. Oriotik gertu, Andantzako auzoa igaro eta berehala hasten da zigor gogorra, eskuinetara egiten du bidegurutzeak, eta orduan tenkatuko dira kateak. Ziklistek dena beharko dute hor, pinoi handiena, edo gehiago: "Granpoiak eta piolet behar dira hor". Irizarrek esandakoa da; hark ez du aurten Aian sufrituko.

DEBAGOIENETIK IGAROKO DIREN HIRU ETAPAK

### Sei etapetatik hirutan, gurean

Astelehenean (lehenengo etapa), martitzenean eta egubakoitzean (bosgarren etapa) Debagoienetik igaroko da Euskal Itzulia. Guztira 114 kilometro egingo dituzte gure errepideetan, eta, duda barik, ibilbide aldetik egubakoitzeko etapa izango da ikusgarriena. Egun horretan Gorlara egingo duten igoera izango da Euskal Itzuliak utziko digun onena (14:00).








bigarrena- atzoko lansaioan, Gorlako maldak igoten hasi berri. XABIER URTZELAI

**TROPELA.NET ASTELEHENERA ARTE**
Euskal Herriko Itzuliko lehenengo etapa (Legazpi-Legazpi) hasi bezain laster itxiko dute *www. tropela.net* blogeko porra. "Lehenengo pedalkada ematen duten unean", antolatzaileen esanetan. Ordura arte, baina, txirrindularitzako zaleek ziklistak aukeratu eta porrak egin ahal izango dituzte.

**IRIZAR FLANDESEN**
Bestalde, Markel Irizarrek gaur bertan egingo du Flandeserako bidaia, besteak beste Flandesko Tourrean eta Paris-Roubaix lasterketa mitikoetan parte hartzera. Oñatikoak joan den hilean eskura izan zuen garaipena Paris-Nizako atarikoan, baina ordutik dezente aldatu dira gauzak: "Bigarren helmugaratu eta gero, bi etapetan hiru aldiz erori nintzen, eta belaunean ebaki ederra egin nuen. Otsailean oso baikor nengoen orain datozen lasterketei begira, baina egia ez nagoela sasoi berean. Dena dela, izugarri motibatzen nauten lasterketak dira, eta oso gustura noa". Harbide gainean egiten diren lasterketak gogoko dituztenek galtzerik ez dituzten zitak dira horiek. Alde horretatik Irizarrek badu desabantaila txikia, urte osoan ez dela harbide gainean ibili, alegia.




Iker Elortza > Ampo Ordiziako errugbi jokalaria

# "Aurten taldeak inbertsio handia egin du; Ordiziak ezin du kategoria galdu"

X.U. > BERGARA

**Iker Elortzak (Arrasate, 1984) laugarren urtea egingo du errugbiko maila gorenean jokatzen dabilen Ampo Ordizian. Neguan min hartuta ibili da, baina, ondo errekuperatuta, azken lau partiduetan zelaian izan da, taldeak gehien behar zuenean. Domekan (Ordizia, 12:00) hil edo biziko norgehiagoka jokatuko dute Madrilgo Alcobendas taldearen kontra. Galtzailea kategoriaz jaitsiko da.**



Iker Elortza hegaleko jokalaria, Ampo Ordizia taldearen zelaian. JOXE ELORTZA

**Zer moduz izterrondoan izandako lesioa?**
Ondo, ondo, dagoeneko errekuperatuta. Neguan bi hilabete egin nituen geldi, jokatu barik, baina azkeneko hilabetean normal jokatu dut, eta lesioa gainditua dagoela uste dut.

**Taldeak behar handien duenean itzuli zara.**
Egia da azken lau norgehiagoka hauek tentsio handikoak izan direla, batez ere azken bi partiduak. Txapelketa amaitzera doa, hiru final genituen mailari eusteko, eta dagoeneko hiru partidu horietako bi gainditu ditugu. Azkena geratzen da.

**Joan den astean irabazi zenuten etxetik kanporako lehenengo norgehiagoka, Bartzelonan.**
Etxetik kanpora taldeari ez dakit zer gertatzen zaion, ez dauka etxean jokatzen duen Ordiziarekin zerikusirik. Baina bai, joan den asteko norgehiagoka hil ala bizikoa zen, eta Bartzelonari euren zelaian irabazteko gauza izan ginen.

**Zer dela-eta dabil Ordizia horrenbeste sufritzen? Espero zenuten horrelakorik?**
Ezta pentsatu ere. Ordiziak aurten inbertsio handia egin du, batez ere kanpoko jokalariak ekartzen. Hori horrela, ezin daiteke onartu aurten kategoria galtzea, burutik pasa ere ez zait egiten hori. Kontua da, baina, gainontzeko taldeak ere ondo sendotu direla, eta horrek gogortu egin du txapelketa.

**Orduan, geroago eta profesionalagoa da errugbia?**
Bueno, etxekook berdin jarraitzen dugu, gasolina ordaintzen digute, eta noizean behin afariren bat edo beste [barre], baina kanpotik ekarri dituztenek soldata bat dute, etxea jarri diete...

**Taldean zenbat atzerritar dituzue?**
Gehienak euskaldunak gara, eta taldeko giroan igarri egiten da hori, familia moduko bat garelako. Baina Zeelanda Berriko bi jokalari daude, Australiako bat, ingeles bat eta Galesko bi. Taldekideekin berba egiteko ingelesez jakin behar!

> **"Kanpoko jendea etorri da aurten, ez genuen uste horrenbeste sufrituko genuenik"**

> **"Ez dakit zergatik, baina etxetik kanpora taldeak ez du bere maila erakutsi"**

**Lehenengo itzulian, Alcobendasen zelaian galdu egin zenuten.**
Bai, ez zen alde handiagatik izan, baina galdu egin genuen. Orduan min hartuta nengoen eta ezin izan nuen taldearekin bidaia egin. Baina orain dela bi urte ere egoera berdintsuan geunden, jaitsierako postuetan geundela jokatu genuen-eta elkarren kontra. Orduan irabazi egin genuen, eta domekan ere beste horrenbeste egitea espero dut.

**Ampo Ordiziak zelan jokatu behar du Alcobendasen kontra?**
Neuk ere ez dakit hori. Hasteko, garrantzitsua izango da hasieratik lasai zelairatzea, eta hasierako 20 minutuetan partiduari ondo eustea; horrek konfiantza emango digu. Baina ondoren asmatzen jakin behar dugu, azken minutuetan urduri ez ibiltzeko.

> **"Domekan lasai zelairatu behar dugu, eta lehenengo 20 minutuei eutsi"**

> **"Ikusle asko izango dira, igo gineneko azken partiduko ikusmina sortu da berriro"**

**Zale asko izango dira zelaian, infernua izango da Madrilgo taldearendako.**
Bai, uste dut kategoria gorenera igo gineneko ikusmina sortu duela domekako partiduak eta zelaia jendez beteta egongo dela. Gainera, hainbat beteranori omenaldia egiteko aprobetxatuko dutela uste dut, horrenbestez giro polita egongo da. Ea horregatik taldea ez den urduri zelairatzen.

**Eta, kategoria galduz gero, zer? Etxera bueltatzeko asmorik bai?**
Ez dut horrelakorik pentsatu, eta ez dut pentsatu gura ere! [barre]. Oraindik sinistu ere ez dut egiten Ampo Ordizia jaisteko moduan dagoen taldea dela, pentsa. Ez dakit zer egingo nukeen, baina hona etorri nintzenean taldea ez zegoen maila gorenean, eta berdin-berdin etorri nintzen. Kategoria galduz gero erabaki bat hartu aurretik taldekideekin berba egingo nuke, eta bakoitzak ze asmo duen ikusi. Pentsatzen dut Arrasatera itzultzeko oraindik badaukadala astia.

**ESKUBALOIA**> EUSKADIKO TXAPELKETA

# Bergarak irabazi egin behar du Gasteizen

Edu Orgaizen mutilek Euskadiko Txapelketan jarraitzeko derrigor hartu behar dute mendean kontrario zuzena den Gure Jorge Fernandez (zapatua, 20:00, Gasteiz)



**RUBEN SANCHEZ** Escolapios taldearen kontrako norgehiagokan. J.A.

**X.U.** > BERGARA

Bihar Gasteizko Divino Maestro kiroldegian jokoan egongo da, neurri handi batean, Bergararen etorkizuna –beste jardunaldi bat geratzen da–. Edu Orgaizen mutilak oraindik bizirik daude txapelketan, eta, urtea zelan joan den ikusita, ez da gutxi. Kategoria horretatik azken hiru taldeak zuzenean jaitsiko dira territorial mailara, eta hori da Bergarakoek baztertu gura duten aukera.

Horretarako, geratzen diren bi jardunaldietan puntu batera dagoen Gure Jorge Fernandez taldea aurreratu behar dute, eta, hain zuzen, talde hori da biharko kontrarioa; gehiago ezin da eskatu. Orgaizek argi dauka taldea partidua irabazteko gauza dela: "Itxaropentsu goaz; bestela, alferrik. Gainera, Labegaraietan berdindu egin genuen. Hegalean jokalari azkar bat dute, besteak baino dezente hobea da eta, neurri handi batean, jokalari hori geratzean egongo da gakoa". Hori dela eta, Bergarak jokalari hori geratzeko asmoz antolatuko du defentsa.

**ARRASATEK FABOREA EGIN DEZAKE**

Ford Mugarrik, bestalde, Urdanetaren kontra jokatuko du (domeka, 11:00, Iturripe). Eta, norgehiagoka hori irabaziz gero, zeharka, Bergarakoei faborea egingo diete. Izan ere, azken bi postuetan dauden Urola Lazti eta Urdaneta oraindik ere kontuan hartu behar diren taldeak dira.

Biek ala biek aukera txikiak dituzte datorren urtean Euskal Ligan jarraitzeko, baina matematikek oraindik aukerak diztuztela diote. Eta horrela den bitartean, kontuz ibili behar da.

## Sailkapena

| | |
|---|---|
| 1 Askartza Leioa | 42 |
| 2. Egia Servi Chap | 41 |
| 3. Calmec Barakaldo | 38 |
| 4. Balonmano Urduliz | 32 |
| 5. Romo Indupe | 28 |
| 6. Internacional Basauri | 27 |
| 7. Portugalete | 23 |
| 8. Lea Corazonistas | 23 |
| 9. Seyce Escolapios | 22 |
| 10. Ford Mugarri Arrasate | 19 |
| 11. Gure Jorge Fernandez | 12 |
| 12. Bergara | 11 |
| 13. Urola Lazti | 9 |
| 14. CD Urdaneta | 9 |

ITURRIA: WWW.FVASCABM.COM



GOIENKARIA

## Bihar, erdialdean dabilen Euskalduna hartuko du Mondrak Mojategin (16:30)

Preferenteko 27. jardunaldian Mondrak (41) baino ez du ibarrean jokatuko, Aloñak (29) eta Aretxabaletak (43) kanpora egingo dute-eta. Hala, Arrasateko taldeak hamargarren lekuan dagoen Euskalduna (32) hartuko du Mojategiko zelaian (16:30).

Aurreratu moduan, Aretxabaletak eta Aloñak etxetik kanpora jokatuko dute, baina ligako talde makalenen kontra. Aretxabaletak Errenteriara egingo du bidaia (17:00), azkeneko postuan dagoen Touringen (21) kontra jokatzera. Aloñak, berriz, azkenaurreko lekuan dagoen Zestoa (22) izango dute aurrean (16:00).

## aste bukaerako hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Hercules
Domeka. 17:00. Anoeta.

Eibar-Alaves
Zapatua. 18:30. Ipurua.

**Kadeteen euskal liga**
Aretxabaleta-Danok Bat
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Preferente maila**
Zestoa-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Iraeta.

Mondra-Euskalduna
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Touring-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Errenteria.

**Lehen erregionala**
Ilintxa-Bergara
Zapatua. 16:30. Bikuña.

Antzuola-Orioko
Zapatua. 16:30. Estala.

**Bigarren erregion. Igoera**
Oiartzun-Aretxabaleta B
Zapatua. 17:00. Ugaldetxo.

Mondra B-Landetxa
Zapatua. 18:30. Mojategi.

BTLS-Kostkas Miren
Domeka. 17:00. Bergara.

**Bigarren erregion. Kopa**
Elgeta-Segura
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Aretxabaleta-Sanse
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Bergara-Mariño
Zapatua. 18:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**
Hernani-Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Zubipe

Mondra-Euskalduna
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Aretxaba. Arizm. B- Lasarte
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Gazteak, Kopa**
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Hondarribia-Bergara
Domeka. 11:00. Ondartza.

Aloña Mendi-Zumaiako
Zapatua. 11:00. Ibarra.

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea**
Trintxerpe-Arrasate
Zapatua. 11:00. Trintxerpe.

Sto. Lizeoa-Aretxabaleta B
Domeka. 10:30. Berio.

**Kadeteak, Kopa**
Zestoa-Bergara B
Domeka. 10:30. Iraeta.

Mutriku-Arizmendi
Zapatua. 12:00. San Miguel.

**Kadete Txiki. Kopa**
Arrasate-Martutene
Zapatua. 11:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak**
Beasain-Bergara
Zapatua. 11:45. Igartza.

Reala-Aretxabal.Arizmendi
Zapatua. 11:30. Zubieta.

**Ohorezko mailako infantilak, Kopa eta jaitsiera**
Zarautz-Arrasate
Zapatua. 10:00. Asti-Txiki.

**Infantil txikien Kopa**
Aretxab.Arizm.-Hondarribia
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Añorga-Arrasate
Domeka. 15:00. Rezola.

**Emakumezkoen igoera**
BTLS-Zarautz
Domeka. 15:00. Ipintza.

**Emakumezkoen kopa**
Bergara-Mondra
Domeka.11:30. Ipintza.

Urola-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Almen.

Arizmendi B: atsedena.

**Emakumezkoen F8 Kadet.**
Ilintxa-Bergara KF
Domeka. 10:00. Bikuña.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapeldunak**
Arizmendi-Beasain
Zapatua. 12:15. Almen.

**Alebinak**
Arrasate-Anaitasuna
Domeka. 10:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Eibar
Domeka. 10:00. Ibarra.

Urola-Bergara
Domeka. 09:30. Argixao.

Aloña Mendi:atsedena.

**ARETO FUTBOLA**

**Lehenengo maila**
Buenetxea-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Lasarte.

**Hirugarren maila**
UDA Izotz-Oiartzun
Zapatua. 18:00. Aretxabaleta.

**Gazte maila**
Aloña Mendi-Denak Pizzak
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
Viajes Marfil-MU
Zapatua. 18:15. Iruña.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Cafes Aitona-MU
Zapatua. 18:00. Benta Berri.

Internacional-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mons.

**Gazte maila, emakumezk.**
MCM B-Eskoriatza
Zapatua. 09:00. Aldapeta.

Astigarraga-Bergara
Zapatua. 11:15. Astigarraga.

**kadete maila, gizonezkoak**
MU-SEIN Mutilak
Zapatua. 16:00. Musakola.

Aloña Mendi-Zarautz
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

MU-B-C-Krafft Atco. S.S
Domeka. 11:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**
Premank-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Antzitzar.

Aloña Mendi-Oiartzungo
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa**
Ford Mugarri-Urdaneta
Domeka. 11:00. Iturripe.

Gure Jorge-Bergara
Zapatua. 20:00. Gasteiz.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-BKL Leizaran
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Kadeteak, gizonezkoak**
Bergara-Urnietako
Domeka. 12:00. Labegaraie.

Pulpo- Berezao-Aloña
Zapatua. 11:00. Lubaki.

**Gazteak, emakumezkoak**
Verkol-Aloña-Leizaran
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Kadeteak, emakumezkoak**
Bergara-Egia Servi-Chap
Domeka. 10:45. Labegarai.

Verkol-Aloña-Leizaran
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**BOULDER**

**Oñatiko Zubikoa kiroldegian.**
Zapatua. 10:00. Oñati. Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatzen duen boulder ligako bosgarren proba puntuagarria da.

**PILOTA**

**Bergaran**
Zapatua. 20:00. Eskuz binaka:
Bergara 2-Bergara 4
Goierri 3- Aloña Mendi
Aretxableta-Bergra 5
Lagunak 1- BErgara 1
Eibar-Lagunak 2
Aretxabaleta 1- Bergara2

**Arrasaten**
Zapatua. 21:00. Eskuz binaka nagusiak:
Arrasateko-Usurbil 2

**Bergaran**
Martitzena. 19.30. Bergara Hiria txapelketa.
Jaunarena-Bergera
Epelde-Diez

Muguruza-Bengoetxea
Ollon-Linzoain



**Antzuolak Oriokoren aurka jokatuko du Estalan, bihar, 16:30ean**
Lehenengo erregional mailako 24. jardunaldiko norgehiagoka jokatuko dute. Antzuola 6.a da sailkapenean, eta 41 puntu ditu.

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



**> BERTSOAK**
Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa, finalean **> 45**



**> KOMUNIKAZIOA**
Ordenagailu-zaleek topaketak egingo dituzte apirilaren 25etik 27ra **> 51**

**> SERGI ROMERO**
'Goenkale' telesailean 'Sagu'-ren papera egiten duen aktorea da Sergi Romero bergararra; bidaiatzea gustatzen zaio, eta Islandiara joan gura du **> 50**



# Sentimenak pizteko moduko ikuskizuna

## Down sindromedunak dira dantza ikuskizuneko protagonistak



**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Gutxitu psikikoen zein fisikoen lana aitortzea helburu duen dantza ikuskizuna eskainiko dute domekan Elgetako Espaloia kafe antzokian, 18:00etan. Down sindromea edo gurpildun aulkian dauden dantzariak egongo dira agertoki gainean dantzan, musikak lagunduta.

*Despertar los sentidos* izeneko proiektua da Elgetan egingo dutena. Ordubeteko iraupena du dantza ikuskizunak eta 13 dantzarik euren artea, balioa, erakutsiko dute. "Ikusleak antzokitik axolagabe ez ateratzea lortu gura dugu, konturatzea urritasunak izan arren dantzari hauek profesionalak direla", dio Sarah Ramirezek, ikuskizunaren zuzendari eta koreografia egileak. Santurtzin, Donostian, Sestaon, Leioan eta Basaurin egin dute ikuskizuna, eta domekan Elgetara etorriko dira.

**PROTAGONISTAK** Argazkian, *Despertar los sentidos* dantza ikuskizuneko dantzariak.

AZALA: ALEX AZKARATE / JATORRIZKO ARGAZKIA: IÑIGO URBANETA



DANTZAN Down sindromea duten edo gurpildu aulkian dauden dantzariak hartzen dute parte *Despertar los sentidos* proiektuan. IÑIGO URBANETA

## Sentimenak pizteko moduko dantza ikuskizuna

(43. orrialdetik dator)

Ballet klasikoko irakaslea da Sarah Ramirez. Gutxitasuna duten pertsonekin lan egin gura zuen, eta, Madrilen bost urteko ikasketak egin ostean, Euskal Herrira bueltatu zen proiektua martxan jartzeko. 2001ean sortu zuen *Despertar los sentidos* proiektua eta harrezkero ikuskizun bat baino gehiago zuzendu ditu. Datorren ekainaren 7an, *Barreras* izeneko ikuskizuna estreinatuko dute. "Gure konpainiak profesional moduan onartua izateko dituen oztopoak salatu gura ditugu", dio Ramirezek. "Beste edozein taldek hartzen duen besteko lana izaten dugu guk ere ikuskizunak prestatzeko, baina emankizun gutxiago egiten ditugu, ez gaituztelako aintzat hartzen, ez dutelako gure lana onartzen", jarraitu du Ramirezek, "eta horixe da lortu gura duguna, jendeak gure lana onartzea".

**ORDUBETEKO DANTZA IKUSKIZUNA**

Elgetako Kafe Antzokian eskainiko duten emanaldiak ordubeteko iraupena izango du. "Dantzariak arropa sinplez jantzita aterako dira eta bidaietako musika entzungo da eurak dantza egiten duten bitartean. Makila batzuk, panelak, telak eta patineteak dira eszenategiko beste elementu batzuk. Ikaragarria da dantzarien eta ikusleen artean sortzen den komunikazioa, elkarrizketa. Dantzarietako batek, adibidez, hartutako burmuineko kaltea du, gurpildun aulkian dago eta ez du gorputza mugitzen, aurpegia bakarrik. Minutu bat bakarrik egongo da eszenategi gainean, baina aurpegiko espresioarekin ikuslearengana heltzea lortzen du", azaldu du Sarah Ramirez zuzendariak.

**DANTZARIAK BAKARRIK EZ**

Urtzi Urrutia, Javier Azpiritxaga, Saioa Larrea, Aritz Zubieta, Joanes Uriarte, Daniel Loredo, Zaloa Unda, Ana Mota, Iñigo Hermoso, Unai Ibañez, Mikel Martija, Alberto Hermoso eta Ana Alvarez dira *Despertar los sentidos* proiektuko dantzariak. "Egubakoitzetan egiten ditugu entseguak Leioako kultura etxean eta guztietara etortzen dira denak. Edozein profesionalek besteko interesa eta arreta jartzen dute lanean, dedikazio osoa dute", dio Sarah Ramirezek. Dantza egiteaz gain lana ere egiten dute euretako askok: Daniel, adibidez, Radio Euskadin dabil, Urtzi pizza denda baten, Zaloa museo baten eta Aritz Bilboko Corte Ingles dendan, arropa saltzen.

**ARRIAGAN ETA EUSKALDUNAN**

*Despertar los sentidos* proiektuarekin aurrera jarraitu gura du Sarah Ramirezek: "pertsona hauek asko balio dute eta gizarteak hori ikustea, onartzea, gura dut. Jendeak ez ditu gure ikuskizunak besteen parean jartzen eta emankizun kopuru txikia egitea mugatzen gaitu horrek, baina hauek ere profesionalak direla ikusi behar du gizarteak. Arriagan eta Euskaldunan egon gura dugu guk ere, eta ahal bada, gira bat egitea, gainerakoak bezala".

Saioa Larrea > Dantzaria

## "Asko balio dugu eta gura dut jendeak aitortzea nola antzezten eta dantzatzen dugun"

**O.E.** > BERGARA

**Saioa Larrea bilbotarrak 29 urte ditu eta zazpi daramatza *Despertar los sentidos* dantza taldean. Gogoz eta ilusioarekin dator Elgetara.**

**Nolako esperientzia izan da zuretako dantza konpainian parte hartzea?**

Oso esperientzia ona. Gorputz osoa jartzen zait mugimenduan, barrubarruan sentitzen dut dantza, eta konpainia horrekin errealitate bihurtu da txikitako ametsa.

**Non egiten dituzue entseguak?**

Leioako kultura etxean egiten ditugu, egubakoitzetan. Ni Bilbon bizi naiz eta Barakaldon egiten dut lan, eta batzuetan denbora aldetik larri samar ibiltzen naiz, baina saiatzen naiz entsegu guztietara joaten.

**Eta zertan egiten duzu lan Barakaldon?**

Pizzak egiten dituen denda baten. Dendan generorik ez faltatzea da nire ardura, apalak beti beteta edukitzea. Ia zortzi urte daramatzat han.

**Beste ze dantza ikuskizunetan hartu duzu parte?**

Santurtzin, Leioan eta Donostian.

**Txalo asko jaso zenituzten?**

Bai, jendeari asko gustatu zitzaion guk egindako dantza, eta txalo asko jaso genituen ikuskizun guztietan. Poza sentitu nuen.

**Zer erakutsi gura diozu Elgetara joango diren ikusleei?**

Gura dut jendeak ikustea gu nola moldatzen garen agertoki gainean, nola antzezten eta dantza egiten dugun. Uste dut asko balio dugula, eta jendeak hori ikustea gura dut nik, gure lana aitortzea.

**Nolakoa izango da Elgetako ikuskizuna?**

Mundiala izango da. Musikak lagunduta egingo dugu dantza. Gainera, sorpresa asko egongo dira.

**Beste ikuskizunik prestatzen ari zara?**

Bai. Ekainaren 7an dantza ikuskizun berria estreinatuko dugu, eta han ere egingo dut dantza. Jendeari esaten diot joateko ikustera.

**Dantza garaikideaz gain, beste zein dantza gustatzen zaizu?**

Denak, baina bereziki hip-hop eta reggaeton dantzak.



Saioa Larrea dantza ikuskizuneko une baten. IÑIGO URBANETA

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALA

# Arriolabengoa eta Agirre aramaioarrak biharko finalean

Sei bertsolari iritsi dira Gasteizeko finalera, tartean Oihane Perea azken txapelduna; finala Principal antzokian jokatuko da, 17:00etan hasita

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Bihar, zapatua, Arabako Bertsolari Txapelketako finala jokatuko da Gasteizeko Principal antzokian. Bi aramaioar daude finalisten artean: Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa. Haiekin batera Asier Otamendi, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre eta Zigor Enbeitaklehiatuko dira txapelaren bila. Manex Agirren zein Andere Arriolabengoa euren finalerdietan nagusitu ziren, Ondategiko Zigoitia aretoan (martxoaren 9an) eta Aramaion (martxoaren 16an), hurrenez hurren. Joan den urtean Oihane Perea gasteiztarrak jantzi zuen txapela.

Manex Agirre 1982. urtean jaio zen eta Aramaioko Bertso Eskolan irakasle dabil. Egun AEK-n lanean dihardu. Eskolarteko txapelketako txapeldun izan zen urte batez eta Arabako Bertsolari Txapelketan bigarren saria lortu zuen 2002an.

Arriolabengoa ere 1982an jaiotakoa da. Zuzenbidean lizentziatua da eta langileen abokatu bezala egiten du lan. Arabako Eskolartekoan, San Prudentzion eta Arabako Txapelketan parte hartu du. Arten lehenengoz iritsi da finalera.

Finalisten artean Asier Otamendik zortzi aldiz izan da Arabako txapeldun eta Zigor Enbeitak ere ondo daki irabaztea zer den: lau aldiz jantzi du txapela.

**FINALA, 17:00ETAN**
Biharko finalean Pablo Pagegi izango da gai jartzailea eta aurkezle lanak Rakel Anituak egingo ditu.

Emanaldirako sarrerak Gasteizeko Principal antzokian bertan eskuratu ahal izango dira zapatuan. 7 eurotan eta 3 eurotan (16 urtetik beherakoendako) salduko dituzte.

Finala 17:00etan hasiko da eta zalantzarik gabe Andere Arriolabengoak zein Manex Agirrek lagun askoren laguntza izango dute Principal antzokian.




**BI ARAMAIOAR** Andere Arriolabengoak etxean, Aramaion, eskuratu zuen finalerako txartela. JOSETXO ARANTZABAL



**TXALO** Jordi Galceranen lan arrakastatsua euskaratu dute Txalokoek. GOIENKARIA

**ANTZERKIA** > TXALO TALDEAREKIN

# 'Grönholm metodoa', Oñatin eta Arrasaten

Bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean, eta domekan Amaian, 19:30ean

**E.M.** > BERGARA
Txalo konpainiak *Grönholm metodoa* antzezlana ekarriko du Debagoienera. Carlos Zabala da lanaren zuzendaria eta Itziar Ituño, Ander Hormaza, Ramon Agirre eta Joseba Apaolaza dira aktoreak. Zabalak zera adierazi zuen lanaren aurkezpenean: "Gaur egungo neoliberalismoaren kritika zorrotza da, komedia garratza".

Jordi Galceran-en antzezlanak arrakasta handia izan zuen jatorrizko katalanezko bertsioan eta gaztelaniazkoan. Film bat ere egin zuten 2005ean, Marcelo Piñeyrok zuzenduta.

Multinazional batean, exekutibo-plaza bat betetzeko azken lau hautagaiak gela batean bildu dituzte, hautaketa-prozesuaren azken probak egiteko. Kosta egiten da sinistea lanpostuari berari dagozkion probak direnik, hain dira absurduak denak. Pertsonaiak jolasean dabiltza, baita publikoa ere haiekin batera, egia eta gezurra bereizteko ahaleginean.



## 'Sexo gratis', gaur Elgetan

*Meando fuera del tiesto* lanaren ostean, Kunka konpainiaren bigarren antzezlana da *Sexo gratis.* Josean Miguelek eta Eloy Beatok idatzitako antzezlana da, "komedia naturalista", egileen hitzetan. Voyeurismora gonbidatzen duten bost aktorek hartzen dute parte. Lan multiorgasmikoa omen da: bikoteak, hirukoteak, kuxkuxeroak... Eta bertara joateko gonbidatu nahi dituzte interesatuak. Hitzordua gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloian, 22:30ean.

KUNKA

**MUSIKA** > GAZTELEKUAN, APIRILAREN 13AN

# Sorkun & Vicepresidentes hurrengo domekan Oñatin

Sorkunek hirugarren diskoa kaleratu du Gasteizko talde horrekin



**E.M.** > BERGARA
Sorkun abeslariak eta Vicepresidentes taldeak kontzertua emango dute datorren domekan, apirilaren 13an, Oñatiko gaztelekuan. Errenteriako abeslariak eta Vicepresidentes hirukoteak Ameriketako Estatu Batuetan grabatu zuten azken lana, *Sorkun & Vicepresidentes* izenburukoa. Hain zuzen, Kanda (gitarra), Atxus (baxua) eta Home (bateria) gasteiztarrak ditugu Vicepresidentes.

**WAXY, GONBIDATUTAKO TALDEA**
Waxy taldeko Robbie Owenekin lehen kontaktua izan zuen Sorkunek Alemanian orain dela zenbait urte, Owen Europan zehar bira egiten ari zela. Hain zuzen ere, haren eskutik grabatu dute diskoa Ameriketako Estatu Batuetan. Owenen taldea izango da kontzertuko taldee gonbidatua. Atzo, osteguna, kontzertua egin zuten Sorkunek eta Vicepresidentesek Donostiako Egia auzoan, Gasteszena aretoan, euren lagun iparamerikarrekin. Datorren domekan, esan bezala, Oñatin izango ditugu.

Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai ohiko tokietan.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerreka 75 m². Eguzkitsua.
- Elusu baserria. Berritua.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berritua.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta.75m². Txokoarekin.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Berritua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- San Lorentzo, eraikuntza berria
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Koldo Elizalde, 87 m², oso ondo
- Artekale, 89 m², ondo
- Zubieta 70 m², ondo
- Urdangarin p., 132 m², berritzeko
- Irizar p., 89 m², oso ondo
- Matxiategi, 73m², berritzeko
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- Aranerreka, 80m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Lorategidun etxea salgai Errotabarrin. Inguru lasaia eta herritik oso gertu. Sartzeko prest. 685 71 35 63.

**Aretxabaleta.** Belorrietan. 110 m²: hiru logela, sukaldea, bi komun, egongela handia eta bi balkoi. Erdi jantzita. Igogailua eta garajea. Toki lasaia. 605 75 14 34 edo 649 47 50 75.

**Arrasate.** 60 m2-ko etxebizitza salgai Grupo San Juan auzoan. Bi logela, egongela, komuna eta sukaldea. Berogailua, igogailua, sotoa eta ganbara. Berrituta eta bizitzera sartzeko moduan. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

**Arrasate.** Maalako errabalan 72 metro koadroko etxebizitza salgai. 628 35 21 61.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berritua. 200.000 euro. 943 27 71 50.

**Arrasate.** Zigarrolan, 66 metroko etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komuna, ganbara eta kalefakzioa. Argitsua eta egoera onean. 180.000 euro. 685 72 83 24.

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Berritua eta sartzeko prest. Deitu 943 53 22 19 telefonora.

**Bergara.** 75 m2-ko etxebizitza salgai. 216.000 euro. Hiru logela, egongela, arropa esegitzeko lekua. Bi aparkaleku. Ganbara, terrazarekin. Deitu 943 76 07 50 zenbakira.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai. Hegoaldera begira. Hiru logela eta bi bainugela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea aukeran. 15 urte. 339.500 euro. 630 60 47 75.

**Elgeta.** Etxebizitza ia berria salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela-jangela eta bi bainugela. 205.000 euro. 664 79 64 97.

**Eskoriatza.** 73 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoia. Guztiz berritua eta eguzkitsua. Prezio interesgarria. 615 70 99 18.

**Nafarroa.** Urederra inguruan, 123 metro koadroko familia bakarreko etxea salgai. Bi solairu. 943 76 00 03.

**Oñati.** 63 metroko apartamentua salgai. Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukalde-egongela, bi logela eta komuna. Sukaldea guztiz jarrita, kalefakzioa, alarma... Dena berria, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

**Oñati.** 75 metro koadro. Hiru logela, egongela-jangela, sukalde berritua, trastelekua eta estudioa egiteko moduko bi ganbara. Oso argitsua. Prezioa negozia daiteke. 629 93 87 01.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean etxea salgai. 80 metro koadro. Igogailuarekin, hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta terraza handia. Ganbara eta garajearekin. 665 74 98 47.

**Soraluze.** Erdialdean kokatua. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainua. Eguzkitsua. 168.300 euro (28 milioi pezeta). 687 08 33 00.

**Zigarrola.** 70 metro koadro. Sotoa, ganbara eta atariko ganbara. Hiru logela, bainugela, sukalde egokitua eta berogailua. Bi balkoi. Eguzkitsua. Ganbara eta etxea bat egiteko aukerarekin. Eunate. 626 71 98 16.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Pertsona batentzat moduko logela ematen da errentan, sukalde erabiltzeko aukerarekin. 666 21 88 95.

**Bergara.** Martoko auzoan etxebizitza errentan ematen dut. Deitu 638 75 90 03 zenbakira.

**Chiclana-Costa Sancti Petri (Cadiz).** Apartamentua errentan La Barrosa hondartzatik gertu. Deitu 616 14 65 54 edo 678 78 39 10 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 686 99 59 41.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 664 38 49 76 zenbakietara.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. Deitu 650 62 12 94 edo 685 70 76 25 zenbakietara.

### 105. ETXEAK OSATU

**Gasteiz.** Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. 652 72 18 87.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aramaio.** Garajea salgai mediku kontsultako etxeetan. Deitu 656 70 35 57 telefonora.

**Bergara.** 37 metro koadroko garajea salgai Zubiaurren. Deitu 606 65 97 82 zenbakira.

**Bergara.** Marraz bereizitako garajea salgai Ozaeta kalean. 636 14 26 00.

**Garaje-trasteleku** txikia saldu edo alokatzen da Bergarako Zurradero kalean. 5.500 euro. 5,80x1,80. Motorra gordetzeko egokia. 678 43 31 07.

**Oñati.** Garaje itxia Kale Zaharrean. Deitu 635 20 64 18 edo 943 53 37 92 zenbakietara.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia errentan Larrea aldean. Bi autorentzako modukoa. Deitu 21:00etatik 22:00etara. 650 40 12 78.

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Espoloia kalean. 692 71 23 11.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean garajea alokatzen da. 695 75 85 26.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** 25 metro koadro inguruko garajea hartuko nuke errentan. 656 71 96 96.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Maalako errabalan 30 metro koadroko lokal komertziala salgai. 628 35 21 61.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Taberna bat errentan hartuko nuke. Jantzita egon behar du. 661 06 07 23.

**Oñati.** 25 metro koadro inguruko lokala. 656 71 96 96.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume bat behar da umeak zaintzeko bi orduz egunean (errelebuka). 686 24 68 92.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 652 75 79 71.

BERGARA

**Sukalderako laguntzailea behar da aste bukaeretarako 943 76 70 11**

LORAMENDI KIROLAK

**Neska bat behar da dendan lan egiteko. Euskara beharrezkoa. Ekarri datuak San Andreseko dendara.**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta** edo Arrasaten garbiketa lanak egingo nituzke. 646 50 83 59.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. 943 53 33 92.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 667 87 99 16.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Roxana. 697 20 00 86.

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. 686 99 59 41.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu pertsona edadetuak zaintzeko. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Bergara.** Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Martoko kalea 30, 1. ezkerra. 669 56 56 87.

**Debagoiena.** Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka egiteko. 669 68 38 36.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu 696 11 01 94 edo 943 77 16 73 zenbakira.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. 615 76 30 62.

**Debagoiena.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsaldez haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok deitu 699 74 98 13 zenbakira eta Leiregatik galdetu. .

**Debagoiena.** Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. Deitu 656 66 49 75 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Oñati.** Emakume arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Etxeak, elkarteak... garbituko nituzke. 635 71 12 88.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. 645 72 25 24.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Jeep Cherokee.** 2.5 CRD. 147 ZP (foku biribilduna). 70.000 km. Gehigarri ugari. Egoera eta prezio oso onean. 696 95 32 31.

**Mercedes Vito** 110 CDI salgai. 2001ekoa. 158.000 km. Toldoa, mahaia, ohea, hozkailua eta bizikletak eramatekoa dauzka. 12.500 euro. 626 89 15 94.

**Opel Vectra** GT autoa salgai. 130 ZP. 800 euro, transferituta. 615 00 84 49.

**Peugeot 205** autoa salgai. SS-X matrikula. 109.000 km. 450 euro. 606 21 72 56.

**Volkswagen Transporter** TDi salgai. 90 ZP. 2000koa. 210.000 km. Aire girotua. 7.000 euro. 685 78 62 64.

**Volvo autoa.** Egoera ezin hobean dagoen auto on baten bila bazabiltza, deitu eta ikusi. 656 74 95 03.

**Yamaha** Majestic Limited 125 motor beltza salgai. Ekainera arte Yamaha garantiarekin. Kilometro gutxi dauzka. Beti garajean. 2.000 euro. 619 52 75 87.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. 677 05 39 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Epiphone SG** gitarra elektrikoa salgai, maleta gogorrarekin, afinagailuarekin eta Marshall anplifikadorearekin. Dena 250 euro. Deitu 692 13 48 56 telefono zenbakira.

**Erlojua.** Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Deitu 943 79 68 18 zenbakira eta Nereagatik galdetu.

**Ileko plantxak** salgai. Gama Ceramic Ion Technology. Egoera onean. 50 eurotan. Deitu 645 72 58 41 telefonora.

**Txakurkumeak.** Ispanier arrazako txakurkumeak salgai. Deitu 664 46 06 45 zenbakira.

**Zigiluak.** 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. Deitu 657 10 90 78 zenbakira.

### 806. GALDU

**Betaurreko** graduatuak galdu nituen martxoaren erdialdean Arrasateko Uribe auzoan. Estutxe baten barruan. Deitu 943 77 08 19 telefonora.

**Erlojua** galdu dut Loramendi Kirolak eta Super BM artean. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. 630 75 44 19.

**Umeen betaurrekoak** galdu ditut Arrasaten. Norbaitek aurkitu baditu dei dezala, mesedez. 658 73 91 07.

**Urrezko belarritakoa** galdu nuen domekan Bergaran, Bolutik Labegaraietako bidean. Deitu 678 61 50 45 telefonora.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. 635 75 94 57.

**Gizonezkoa ezagutuko** nuke. 60 urteko emakumezkoa naiz, alarguna, eta gizonezko bat ezagutu nahi nuke edozein harremanetarako; 60 eta 70 urte bitartekoa. Bidaiatzea dut gustuko, baita dantzan egin eta zinera joatea ere. Feli. 650 06 00 68.

ULMA Packaging

Oñatin kokatutako,ULMA Packaging-ek, ontziratze sistema eta makinen eskaintzaren bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:

erref. 07/08

**SISTEMETAKO TEKNIKARIA**

**Informazio-Sistemak sailaren barnean, ondorengoetaz arduratuko da:**

- Konpainiaren konponbide teknologikoak, nazioarte ingurune batetan, diseinatu, ezarri eta administratzeaz.
- Sistema eta aplikazio berrien ezarpenean areako teknikari taldearekin elkarlanean aritzeaz.

**Bete beharreko baldintzak:**

- Titulazio Teknikoan lizentziatua.
- Microsoft inguruko sistemetan 3 urtetako gutxieneko eskarmentua, beharrezkoa izanik Active Directory eta Exchange server-en eskarmentua izatea.
- MS ingurunean, zerbitzari korporatiboen administrazioan eta segurtasun tresnetan (biruskontrakoa eta FW) aditua izatea, hala nola routers eta elektronika sarearen kudeaketaren inguruko ezaguera izatea.
- BBDD SQL-en administrazioan eta web zerbitzarien kudeaketan eskarmentua izatea baloratuko da, hala nola MS-ren MCSE ziurtagiria edukitzea.
- Ezinbestekoa ingelesa menperatzea.
- Nazioarte mailan bidaiatzeko prestutasuna.
- Taldean lan egiteko gai den pertsona, autonomo eta proaktiboa.

erref. 08/08

**DELINEATZAILEA**

**Eginbeharrak:**

- Delineazio eta dokumentazio lanak egitea.
- Instalazioetako lay-out-ak marraztea.
- Zailtasun txikiko proiektu teknikoak garatzea.
- Delineazio lanetan atzemandako hobekuntza proposamenak eta iradokizunak egitea.
- Egindako proiektu teknikoen informazio oinarriak (egiturak, etab.) eguneratuta izatea.

Diseinurako tresnak (Solid Edge eta Microstation) ezagutzea eta galdaragintzan esperientzia izatea baloratuko da.

Interesatuok bidali curriculuma honako helbidera: ULMA Packaging-eko GGBBetako Departamentua, Garibai auzoa 28-145 posta-kutxa 20560 OÑATI. Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

BERGARAKO UDALA

**Bergarako Udala laboralen lan taldean hutsik dauden 8 garbitzaile-peoi lanpostu betetzera doa lehiaketa-oposizio bidez.**

**Lehiakideen baldintzak:**
Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak.
a) 16 urte beteta izatea.
b) Eskolaratze ziurtagiria edukitzea.

**Instantziak**
Instantziak aurkezteko epea 2008ko apirilaren 21ean bukatuko da.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta *www.bergara.net* webgunean.

*Bergara, 2008ko martxoaren 31.*
*ALKATEAK*

BERGARAKO UDALA

Hornidura integralak
SETALDE

KOMERTZIAL ETA BILTEGI SAILERAKO
pertsonak behar dira.

Elektrizitate edo iturgintzan ezagutzak izatea baloratuko da eta berehala barneratuko dira lanpostuetan.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
189 posta–kutxa, ARETXABALETA.
Tel.: 943 79 88 33

## hildakoak

- **Juan Saiz Gartzia.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 86 urte.
- **Felisa Bolinaga Belar.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 92 urte.
- **Tomas Ugarte Lizarralde.** Oñatin, apirilaren 2an. 83 urte.
- **Josefa Lobato Madrigal.** Eskoriatzan, apirilaren 2an. 93 urte.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)**





Bergarako **Ainhoa Lazpiur** eta Arrasateko **Juan Lopez** bihar, apirilak 5, ezkonduko dira Azpeitiko Olatz ermitan. Ondoren bazkaria egingo dute Kiruri jatetxean. Ezkon bidaian Kubara joango dira. Familia eta lagunen partetik, ondo pasa, bikote!

---

2. URTEURRENA

## Maria Aguirre Leturiondo

Jose Inazio Larrañagaren alarguna

**Bigarren urteurreneko meza domekan, apirilak 6, 10:30ean San Prudentzio elizan.**

*Egunero pizten da zure argia gure bihotzetan; agur, ama eta amama.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

1. URTEURRENA

## Monika Kortabarria Kortabarria

## Bizenta Kortabarria Kortabarria



Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 6, 13:00etan, Azkoaga auzoko San Juan elizan.



Aramaion, 2008ko apirilaren 4an

---

1. URTEURRENA

## Javier Aranzabal Askasibar

**Elgetan hil zen 2007ko apirilaren 1ean, 68 urte zituela.**

Lehen urteurreneko meza, **domekan, apirilaren 6an,** 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Andre Mariaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

URTEURRENA

## Eugenio Zuazua Urrutia

2006ko abenduaren 7an hil zen.

## Timoteo Zuazua Urrutia

2007ko apirilaren 2an hil zen.



Urteurreneko meza zapatuan, apirilak 5, 19:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko Andre Mariaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

ESKER ONA

## Juan Juaristi Gurrutxaga

**Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 28an, 62 urte zituela**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko apirilaren 4an.

---

Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

---

ESKER ONA

## Mari Luz Ezenarro Arostegi

Joaquin Altuna 'Taiño'-ren alarguna

**Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 15ean**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko apirilaren 4an.

---

ESKER ONA

## Angelita Arizmendi Azpiazu

Luis Alberdiren alarguna

**2008ko martxoaren 20an hil zen, 90 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko apirilaren 4an.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Biluzik utzi
Zeharo
Gipuzkoako herria
Garaia
Langa
Elkartea
* Irudiko fruitua
Hauts hilgarri
Iragana
Ugazaba
Neguko jantzi
Emakume izena
Itxura
Aurkari
Anno Domini
Intsektu mota
Jardun
Kasik
Azkena eta lehena
(Infin.) Osatu
Musika nota
Atzizkia
Bokala
Sotoa
Bokala

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4 | 5 | | 9 | 2 | | 6 | |
| | | | | | | | | |
| 3 | | 8 | 4 | | | | | 7 |
| | 7 | | | 3 | | | 8 | |
| | 9 | | | | | | 1 | |
| | 6 | | | 1 | | | 5 | |
| 4 | | | | | 5 | 3 | | 2 |
| | | | | | | | | |
| | 5 | | 1 | 7 | | 6 | 4 | |

## hieroglifoa

Gipuzkoako herria

**OMEN + TABERNA**

## hizki salda

Ibarreko 6 futbol zelai

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | A | R | I | M | U | T | Z | A |
| Z | A | I | P | O | U | N | Z | Z |
| I | A | R | B | J | I | T | Z | K |
| P | E | S | T | A | L | A | A | O |
| I | H | K | G | T | R | P | T | A |
| N | S | R | O | E | U | R | N | G |
| T | U | R | I | G | N | T | A | A |
| Z | N | M | I | I | L | T | P | I |
| A | G | O | R | R | O | S | I | N |

## soluzioak



**Jeroglifikoa:** Eibar

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 4 | 5 | 3 | 9 | 2 | 8 | 6 | 1 |
| 9 | 2 | 6 | 7 | 8 | 1 | 5 | 3 | 4 |
| 3 | 1 | 8 | 4 | 5 | 6 | 9 | 2 | 7 |
| 1 | 7 | 4 | 5 | 3 | 9 | 2 | 8 | 6 |
| 5 | 9 | 2 | 6 | 4 | 8 | 7 | 1 | 3 |
| 8 | 6 | 3 | 2 | 1 | 7 | 4 | 5 | 9 |
| 4 | 8 | 1 | 9 | 6 | 5 | 3 | 7 | 2 |
| 6 | 3 | 7 | 8 | 2 | 4 | 1 | 9 | 5 |
| 2 | 5 | 9 | 1 | 7 | 3 | 6 | 4 | 8 |






## bono fotoa

**Bergarako epaitegiko *Doña Justa* 1870. urtean egin zuen eskulturgile bergarararrarenak dira Loiolako San Inazioren eskultura, Getariako Elkanorena edota Donostiako Okendorena ere. Nor zen eskulturgilea?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar



Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..........
IZEN-DEITURAK..........
TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Kasfruit zukua**
200 ml-ko 3 brik
**0,85 €**
Hiru eraman, bi ordaindu

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
**Satur Guridi**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Jaturabe (Araotz).**

Jatetxe txinatarra
東方龍
MON DRAGON

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
25 MINUTUAN

☎ 943 79 85 33
943 71 25 00

Araba etorbidea 3, San Andres auzoa
ARRASATE

Orain BERGARAN!!!

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea

Zabaldu berria!!!

WI-FI GUNEA

☎ 943 25 05 77

Fraiskozuri plaza, 7 (Frontoi parean)
BERGARA

Aurten ere
abian da Tropela!

Lehiaketak sarean, euskaraz,
doan eta sariekin...

Izen ematea dohainik.
Izena emateko epea: astelehena, apirilak 7, 13:40tan

Zatoz **tropela.net**-era eta gozatu gehiago txirrindularitzaz eta **Euskal Herriko Itzuliaz.** Aukera berriekin eta sari gehiagorekin gatoz lagunartean goza dezazun. Abian da Tropela!

tropela.net

GOIENKARIA
2008ko apirilaren 4a

**Sergi Romero** > Aktorea

# "Bergara kulturalki hilda dagoela uste dut, eta horrek mindu egiten nau"

Gazte arrunta dela dio, edozein gazte moduan gazte leihatsua. Zorioneko dago, lanean dihardulako ia ezinezkoa den sektore batean. Aktore bergararra Madrilen bizi bada ere, azkenaldian sarri ibiltzen da herrian. Izan ere, *Goenkale* telebista saioan dihardu *Sagu*-ren paperean. Aisialdirako ere arte eszenikoak ditu gogoko, musika batik bat; baita bidaiatzea ere.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Aktorea da ofizioz Sergi Romero, baina Al Paccinoren mailara iristen denean baino ez du aho zabalik esango aktorea denik; bien bitartean, proiektua baino ez da. Proiektu horretaz jardun dugu, besteak beste.**

**Azkenaldian *Goenkale*-n ikusi zaitugu. Nola sortu zitzaizun *Goenkale*-ko aukera?**

Madrilen egin ditut ikasketak eta bederatzi urtean bertan bizi izan naiz. Apur bat etsita nengoen; aukera asko dago, baina aktoreak ere asko gara. Probak egin eta beti atarian geratzen nintzen. Gero, bolada ona izan eta publizitatean lan batzuk egin nituen. Nire irakasle izandako batek Donostiako mintegi baten alde praktikorako laguntzeko eskaintza egin zidan. Horren harira, Euskal Aktoreen Biltzarrean sartu eta hortik etorri zait aukera.

**Zer moduzko esperientzia da?**

*Sagu*-ren papera niretzat gozoki bat da. *Goenkale* bezalako telesaio bat errealitatearen isla da, puztuta, noski. Pertsonaiak ere naturalistak dira, kalean aurki daitezkeenak. Ni naizen modukoa izanik, pertsonaia nigandik beste muturrean dago; hortaz, asko disfrutatzen dut, esperimentatzen eta jokatzen dut nire bizimoduan egingo ez nukeenarekin. Esperientzia oso polita da eta lankideekin oso ondo moldatzen naiz.

**Jendeak ezagutzen zaitu?**

Madrilen erabat anonimoa naiz, Bergarako jendeak, ordea, betidanik ezagutzen nau. Orain, telebistak gehiago eraman nau jendaurrera eta jendeak nitaz ondo edo gaizki berba egiten badu ez da txarrena. Nire pertsonaia gaiztoa izanik, jendeak ez ditu pertsona eta pertsonaia bereizten, baina hori eramaten jakin behar dugu, kontuan hartuta ikusleen etxeetan sartzen garela.

**Aurrez interpretazio arloan egin duzu beste lanik, ezta?**

Bai, publizitatean izozki marka batendako eta Antena3-rendako. Film laburrak ere egin ditut. Eva Hungriak zuzendu duen *No se preocupe* hemendik gutxira estreinatuko dute. Luis Tosar eta Lucia Jimenez daude aktoreen artean. Film laburren mundua oso gustuko dut, sormen handia dagoelako. Film luzeetan estra moduan egin dut lan. Antzerkian, berriz, eskolako lanak egin ditut.









JOSETXO ARANZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Interpretazio ikasketak. **Aktore bat?** Eduard Fernandez. **Film bat?** Michael Haneke-ren obra guztia. **Musika talde edo bakarlari bat?** Shanon Write entzuten nabil azkenaldian. **Bidaiatzeko toki bat?** Islandia. **Miresten duzun norbait?** Nire ama. Iritsi delako berak nahi duen lekura lan handia eginez, inor zapaldu gabe. **Zerk alaitzen dizu egun bat?** Eguraldi onak martxan jartzen nau. **Eta tristetu?** Notizia txar batek. **Amets bat?** Musika talde batean abestea edo jotzea.

**Nola sartu zinen interpretazio munduan?**

Txikitatik izan dut harra barruan. Gasteizera joan nintzen Geografia ikasketak egitera eta han hasi nintzen sarritan zinemara joaten eta zinema behar moduan sentitzen. Ikasketak utzi eta Ingalaterrara alde egin nuen lanera. Han nintzela, Madrilgo arte dramatiko eskola batetik deitu zidaten probak egiteko, eta hartu egin ninduten. Eskola horretan bi urte egin nituen, baina metodologia oso gogorra zen eta alde egin nuen beste eskola batera. Bitartean, lanean jardun dut Fnac liburu eta musika dendan.

**Musikazalea ere bazara.**

Zalea banaiz, baina ez dut musika tresnarik jotzen, eta hori da nire damuetako bat. Zalea naizen aldetik denetariko musika entzuten dut: 80ko hamarkadako popa eta rocka; gaur egun jazza, bluesa… baita flamenkoa ere.

**Grabazioak direla-eta Bergaran egoten zara, baina Madrilen bizi zara oraindik.**

Hilabetean gehienez zazpi edo zortzi grabazio saio egiten ditut, eta, bizimodua Madrilen eraikia dudanez, batera eta bestera ibiltzen naiz. Gainera, Bergara oso txiki geratu zait. Bergarak ez dit ematen Madrilek ematen didan eskaintza kulturala. Herriko bizitzak baditu gauza onak, baina kontzertuetara, antzerkira… joateko hona etortzen naizenean Donostiara, Bilbora, Durangora, Elgetara… joan behar dut; Bergara kulturalki hilda dago, eta horrek mindu egiten nau. Nahiko nuke garai bateko indarra berreskuratzea.

**Bidaiatzea da zure beste zaletasun bat, ezta?**

Dirua izanez gero bidaiatzen pasako nuke denbora. Nahi baino gutxiago bidaiatu dut, hala ere. Abuztuan Suedia eta Danimarkara joango naiz. Portugalera egindako bidaia ere asko gustatu zitzaidan. Bestalde, nire ametsa da Islandiara bidaiatzea.

**Aurrerako baduzu beste proiekturik esku artean?**

Proiektuak beti daude, iritsi zaizkit handik eta hemendik gauzak, baina dena airean dago oraindik. Zinema dut gogoko, baita antzerkia ere, eta, gezurra dirudien arren, telebista gustatzen zait gutxien. Antzerkitik bizitzea zaila da, eta denok erosotasunaren bila jotzen dugu.



ORDENAGAILUAK Elektrizitatea eta konexioa izango dituzte partaideek eskura, eta eurek eraman behar dute gainontzekoa. I.A.

**INFORMATIKA** > EUSKAL ENCOUNTER ETA GIPUZKOA ENCOUNTER

# Topaketak egingo dituzte ordenagailu-zaleek esperientziak trukatzeko

Apirilaren 25etik 27ra bitartean Tolosan izango da gipuzkoarren txanda; Euskal Herriko topaketa, berriz, Barakaldoko BECen egingo dute uztailean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ordenagailu-zaleen eta profesionalen bilera zabalak dira *encounter*-ak. Horietan, esperientziak, sormena, trebetasuna eta zorroztasuna partekatzeko eta egun batzuetan informatikarekin lotutako ekintzetan murgiltzeko aukera izaten dute. Apirilean Gipuzkoako zaleek Tolosan dute hitzordua 25etik 27ra bitartean. Euskal Herriko topaketa uztailaren 24tik 27ra izango da, Barakaldon, BECen .

Tolosako Usabal kiroldegian 400 leku ipiniko dituzte ordenagailuendako. Informatikaren inguruko hainbat jarduera izango dira han: arte digitalean egindako lanak; jokoak eta lehiaketak; software librearen eta hardwarearen inguruko jarduerak; eta hitzaldiak eta tailerrak.

Tolosako *encounter*-a honako datuok laburtzen dute: 400 partehartzaile inguru; 1 Gb/s-ko Internet konexioa; 2.500 metro koadro erabiliak; 10.000 euro saritan; eta hiru egun etengabeko ekinean.

Gipuzkoa Encounter-erako bi sarrera mota daude: hiru egunerakoa (32 euro aurrez eta 35 euro bertan) edo egunekoa, 10 eurotan akreditazio gunean. Bigarrenak ez du ordenagailua konektatzeko eskubiderik ematen.

**EUSKAL HERRIKOA BARAKALDON**

Euskal Encounter-a Barakaldo-BECen egingo dute uztailaren 24tik 27ra bitartean. Aurten ia 4.100 ordenagailu izango dira sarean konektatuta eta 5.700 partaidetik gora espero dituzte. Horiendako 8 Gb/s-ko Internet konexioa izango da eta lau egunean 50.000 eurotik gora banatuko dituzte saritan.

Erreserbak egiteko epea zabalik dago. Sarreraren prezioa 42 euro da ordainketa aldez aurretik eginez gero eta 45 eurokoa *party*-an bertan egiten bada.

Partaideek ordenagailuaren elementu guztiak eramatea gomendatzen dute antolatzaileek; eurek elektrizitatea eta sare lokaleko konexioa ipiniko dituzte.

Topaketen gaineko informazioa honako helbideetan dago: *www.gipuzkoaencounter.com* eta *www.euskalencounter.com*.

## teknologia berriak

> AUDIOA

### Burezur baten irudia dute iPhonearendako diseinuzko aurikular metalikoek

Skullcandy etxeak asko erreparatzen dio diseinuari eta estetikari, eta iPhonearendako egin dituen aurikularrak ere bitxiak dira oso; atzeko aldean burezur baten irudia dute estanpatuta.

*Full Metal Jacket* izena dute aurikularrek, material metalikoz eginak daudelako eta balen estalki metalikoa gogorarazten dutelako. 500 mw-ko potentzia dute eta hiru koloretan eskura daitezke: kromoa, zilarra edo beltza.

Salneurria: 51 euro.



Metala nagusi duten aurikularrek burezur irudia dute marraztuta alde bakoitzean.

> GPS-A

### Munduko GPS Bluetooth hargailu finenetarikoa merkaturatu du NCS etxeak

NCS Navi R120 munduko GPS Bluetooth hargailurik finenetarikoa da; 0,93 zentimetro zabal da. Dotorea izateaz gain, oso eramangarria da. Prestazio egokiak ditu: 159 dBm-ko sentikortasuna; energia kontsumo txikia; 15 orduko automomia; eta 51 katerekin lan egiteko gaitasuna. Aukerakoa da ordenagailu eramangarri gogorrak dituztenendako eta GPSa pantaila osoan ikusi nahi dutenendako.

Salneurria: 47 euro.




Dotorea izateaz gain, fina eta arina ere bada; 0,93 zentimetro ditu.

> ARGAZKILARITZA

### Edozein azaletara itsasteko gaitasuna duen polimero elastikozko tripodea kaleratu dute

Kamera digitalendako tripodeak polimero elastikozko oinarria duenez, edozein azaletara itsasten da eta egonkor mantendu horizontalean, bertikalean zein buruz behera.

*Monster Pod* tripodeak ez dauka hanka teleskopikorik, sokarik, engantxerik, kolarik edo bentosarik. 300 gramorainoko pisua duten kamerak eusten ditu hamar minutuz eta tripodearendako haria duen edozein kamerak erabil dezake.

Salneurria: 54 euro.



Ez dago kamera jausteko arriskurik, metal, egur, marmol, plastiko, zuhaitz eta harkaitzetara itsasten da-eta.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn /aiastui /arantxa /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak /BZ-sistemas /bolusukaldeak /denetik
/dragon-oriental /dukiena /ego /eguzkigraf /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi /ganesha /garaia /gertu /gorkataxi
/gorla /gurea /guztizeder /hamaikataberna /itxaseder /irudisport /ixaun /izeder /jcracing /lamaino-etxeberri /lorelan /korozabaleta /kizkur /markiegi
/maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark /optico /otzeta /pando /perfipar /puerta-ingles /richimaier /tabernaberri
/udalatx /udalaitz /urdeki /ugartearotza /urbieta /urko /vitoria /zainduz /ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net

Goiena.net



## berriak

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'

### 'Euskaldunak hizketan' saioan medikuntza mintzagai

*Euskaldunak hizketan* saioaren bigarren atala eskainiko du Goiena Telebistak datorren martitzenean, 22:15ean.

Medikuntzaz arituko dira. Ane Irazabal aurkezlearen zuzendaritzapean, medikuntzak XX. mende hasieran gure herrian zuen eragina aztertuko dute; nolakoa zen medikuen eta herritarren arteko harremana, besteak beste. Elkarrizketatu bat Oñatiko Gurutz Jausoro da.

> 'BERBAIRE'

### 'Berbaire' saioak dekoratua estreinatu du oraingo astean

Dekoratu berria ikusi ahal izan duzue dagoeneko aste honetako saioan. Lanbide Hastapenetako hainbat ikasleren laguntza izan dute Goiena Telebistan dekoratua muntatzeko.

Saioari itxura modernoa eman nahi izan diote eta logoa eta saioaren irudia ere aldatu dituzte. Jadanik ikusleentzat ezaguna den *berbaire* izenaren laburdura erabili dute: *brb,* hain zuzen be.

> ARRASATE IRRATIA

### Ume txikiei zuzendutako antzezlan berezia

Apirilaren 12an, Amaia Udal Antzokian Teatro Paraiso taldearen *Lorategian* antzezlana ikusteko aukera izango dugu. Antzezlan berezia da, 1 eta 3 urte bitarteko neskamutikoei dago-eta zuzendua. Eta antzezlanaren formatua ere berezia da, guraso eta neska-mutikoak agertoki gainean esertzen dira-eta. Bada, horixe landuko dute, besteak beste, datorren astean irratiko lankideek.

> ARRASATE IRRATIA

### Arantzazuko yoga kongresua eta sexologia kontuak

Askotariko gaiak landuko dituzte datorren astean irratian. Adibidez, apiril amaieran yoga kongresua egin behar dute Arantzazun; beraz, jardunaldi berezi horien gainekoak berbagai izango dituzte. Jardunaldiekin jarraituz, Jardunaldi Feministak Arrasaten aurkeztuko dituztelaeta, gai hori ere landuko dute. Eta horrez gain, hamabostean behin moduan, Udal Sexologia Zerbitzua bisitatuko dute, eguenean.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Karmele Jaio izango da 'Ilunpean' saioan gaur

Gasteizen jaio zen eta bertan bizi da; kazetaria da lanbidez eta idaztea da haren zaletasun nagusia

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Kazetaria da ikasketaz eta lanbidez Karmele Jaio. *Egunkaria*-n, Egin Irratian, Elkar-en eta *Gara*-n lanean ibili da. Gaur egun Emakundeko prentsa arduraduna da.

Kazetaria dela diogun arren, idazle moduan ere aurkez dezakegu Karmele Jaio. Dagoeneko bi ipuin liburu eta eleberri bat idatzi ditu (*Amaren eskuak*). Orain, *Amaren eskuak* eleberria gaztelerara itzultzen dihardu. Gasteizen jaio eta bizi bada ere, Lekeition du familia guztia. Musika eta zinemazale oso amorratua ere bada.



KARMELE JAIO Idazle eta kazetaria argazkian. IKER BARANDIARAN

**'OÑATIKO BERTSOLARI TXAPELKETA'** > ASTELEHENA, 21:47

# Oñatiko Bertsolari Txapelketako finala GOITBn astelehenean, 21:47an

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Oñatiko V. Bertsolari Txapelketako finala jokatu zen joan den zapatuan Arrano elkartean. Oñatiko bertso eskolak 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzetako bat izan da txapelketa. Arrano elkartea erabat bete zuten joan den zapatuan bertso finala entzutera joan zirenek; elkartea beteta, hainbatek tabernan ipinitako telebista baten ikusi zuten txapelketa.

Finalean aritu ziren Joseba Lasagabaster, Ander Lizarralde, Joseba Igartua, Beñat Alberdi, Endika Ruiz, eta Xabier Pascual bertsolariak. Gai jartzaile lanetan, berriz, Mirari Sagarzazuk jardun zuen. V. Bertso Txapelketako irabazlea Joseba Lasagabaster izan zen eta ikusleen saria, bestalde, Ander Lizarraldek eroan zuen.

Astelehenean Goiena Telebistak eskainiko duen saioan ikusi ahalko duzue sei finalistek egindako lana. Nor aritu zen finen, nork eragin zituen ikusleen artean barre algara gehien... Esandako moduan, bertso finala eskainiko dute astelehenean, 21:47an.

## telebegi

**Edorta Arana**

## Animalien pare

*Reality*-en gaia jorratzen duten filmetako bi dira *El show de Truman* eta *Ed TV*. Lehenengoan, *Gran Hermano* telebista saioan legez, propio sorturiko dekoratu *erreal* itxurakoetan jartzen dituzte partehartzaileak, ezkutuko kamerez eta mikroez inguratuta. Bigarrenean, aldiz, telebista ekipo bat doa, gau eta egun, Ed gaztearen atzetik, etxean zein kalean dabilenean.

Errealitate-saioak eta intimitatea: nola aldatu diren gauzak lehenengo *errealitiak* emititzen hasi zirenetik! Izan ere, gaur egun, irudi intimoaren eta ohorearen defentsa ahulduta dago eta duela gutxi arte norberarenak ziren eremuak telebistan ikusi ahal dira, barrabarra.

Eta, barregarria bada ere, jatorrietara jota, ez dago zergatik *¿Quién sabe dónde?* ala *La máquina de la verdad*-era egin beharrik, dokumentaletara baizik. TVE2n hain aipatuak baina gutxi ikusiak diren generoko saioetan animaliak erakusten zaizkigu lotan, jaten, larrutan, kaka eginean eta hiltzen. Horiena bai dela, eta ez filmetakoa, zelatatuak izatea.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Karmele Jaio idazlea, *Ilunpean* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 4**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Euskaldunok hizketan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Animalia. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 5**

**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Berbaire. **14:30**Errepor-ttipi ttapa. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Nafarroako bertso txapelketa. **21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 6**

**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Nafarroako bertso txapelketa. **16:00**Erreportajea. **16:30**Marrazki bizidunak.**19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 7**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusten. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 8**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Euskaldunak hizketan. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 9**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Euskaldunok hizketan. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Animalia. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Euskal artzainak. **22:15**ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **23:45**Gaurkoak.**23.47**Jazzmina.**00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 10**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Euskal artzainak. **14:45**Berriak. **15:15**Ikusmira. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta lur. **16:17**Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. 1**8:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Teknopolis. **00:15**Emisio amaiera

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Apirilak 4-10

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 12**

## Erakusketa



OÑATI
**> Diego Moiua oñatiarraren margolanak ikusteko aukera dago kultura etxean**
Diego Moiua margolari oñatiarrak bere lan batzuen erakusketa ipini du kultura etxean; surrealismoa eta abstraktismoa landu ditu. Zabalik dago apirilaren 16ra bitartean, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era bitartean.

## Antzerkia



ELGETA
**> 'Sexo gratis' komedia antzeztuko du Kunka konpainiak gaur Espaloia antzokian**
*Sexo gratis* Kunka konpainiak ekoizten duen bigarren antzezlana da. Sexuz betetako 80 minutu dira, ikuslea voyeur bihurtzera gonbidatzen dutenak. Gaur izango da emanaldia, 22:30ean. Sarrera 14 euro da, 11 bazkideendako.

## Kontzertua



ARRASATE
**> Alberto Urretxok eta Harizko Laukoteak kontzertua egingo dute bihar**
Udaberriko IV. Musikaldia hasteko, Alberto Urretxo tronboi jolearen eta Harizko Laukotearen musika emanaldia egongo da Kulturaten. Bihar, zapatua, izango da Kulturateko areto nagusian, arratsaldeko zortzietan.

## Musika

ARRASATE
**> Zea Mays eta Anger taldeen kontzertua egongo da**
Zea Mays eta Anger taldeek musika emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza. Zea Mays bilbotarrek *Morphina* delako diskoa aurkeztuko dute, euren bosgarren lana.
Bestalde, bihar, zapatua, DJ Xuban disko-jartzaileak emanaldia egingo du, 04:00etan.
Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

ESKORIATZA
**> Garage rocka egingo du Los Ajustadores taldeak**
Arabako Los Ajustadores taldeak garage rock estiloko emanaldia egingo du. Rock klasikoa bluesarekin edo rock garaikidearekin bateratzen dute taldekoek.
Aitzorrotz kultura taldeak antolatu du emanaldi hori.
Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:30ean.

BERGARA
**> Disko-jartzaileak egongo dira Ziripot tabernan**
Gaur, egubakoitza, Borja Smoking (Une, Vxlab, Ibiza) disko-jartzaileak egingo du emanaldia, eta bihar, zapatua, DJ KRC!!! disko-jartzaileak.
Emanaldiak 23:30ean hasiko dira.

ESKORIATZA
**> Petti eta Karratua borobila da, zuzenean Inkernu tabernan**
Petti kantautoreak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Inkernu tabernan. Berako kantautoreak *On* diskoa (Gaztelupeko Hotsak) kaleratu du orain azkeneko.
Lasarteko Karratua borobila da taldeak ere joko du: emanaldi akustikoa da, kantautore itxurakoa, baina instrumentalizatuta, txalaparta, ijito kaxa, pianoa, gitarra eta beste tresna batzuk erabilita.
Bihar, zapatua, Inkernun, 22:00etan.

BERGARA
**> Kogollo Party Krew taldeko disko-jartzaileak, GoJamen**
Kogollo Party Krew taldeko bost disko-jartzailek –Nemesis, Iñigo Dub, Javi Delove, Dubby eta Pako Kogollo– emanaldia egingo dute GoJam aretoan. Sarrera 10 euro da.
Bihar, zapatua, GoJam aretoan, 00:00etan hasita.

## Antzerkia

ESKORIATZA
**> Ikusi Makusi antzerki taldeak emanaldia egingo du**
Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi taldeak *Nos vamos de vacaciones* delako antzezlana egingo du gaur, egubakoitza; talde horren hirugarrena da, eta gaztelaniaz egingo dute. Sarrera doan da.
Gaur, Unibertsitatean, 19:00etan.

ESKORIATZA
**> Umeendako 'Sumatuz...' ikuskizuna egingo dute**
*Sumatuz...* delako ikuskizuna antolatu du Arizmendi ikastolak. 0-2 urte arteko umeei zuzenduta dago. Herritar guztioi zabalik dago. Ordu erdiko ikuskizuna da.
Gaur, egubakoitza, Jose Arana gunean, 18:00etan.

ARRASATE
**> Inprobisazio emanaldia egongo da Iamai kafetegian**
Ikatastrofen Teatro antzerki taldeak *4 razones para ser Jenny Monzón* delako antzezlana egingo du. Muntaia horretan, protagonistek, gazte batzuek, leku-aldaketa bitxi baten aurrean zer egiten duten azalduko dute.
Gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, gauerdian.

BERGARA
**> Helduendako ipuinak kontatuko ditu Itziar Rekaldek**
Itziar Rekalde ipuin kontalari gasteiztarrak *Ez sufritzeko erremedioak* delako ipuin kontaketa saioa egingo du. Helduei zuzenduta dago.
Eguenean, hilak 10, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

ARRASATE
**> 'Lorategian' haur antzerkia egingo dute datorren astean**
*Loratergian* delako haur antzerkia egingo dute hilaren 12an, zapatua, Amaia antzokian. 1-3 urte arteko umeendako ikuskizuna da. Antzezleen eta umeen arteko lehen harremanen garaia da. Umeek, gainera, hauxe dute lehenengo kontaktua antzerkiarekin, argiekin… Komunikazioa ekarriko duen konfiantza giroa sortzeko gertu dago dena.
Emanaldira joateko sarrerak salgai daude *www.kutxa.net* webgunean eta 943 00 12 00 telefono zenbakian, 4 eurotan. Leku kopuru mugatua dago, 90 bakarrik, gurasoak eta umeak eszenatokian jesarri behar direlako.
Hilaren 12an, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

## Erakusketak

ARRASATE
**> Hitz, irudi eta musika erakusketa eta poesia irakurketa**
Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekintzen artean, *Mugarri estaliak* delako erakusketa eta poesia irakurketa antolatu du Udal Liburutegiak. Hitza (Castillo Suarez), irudia (Koldo Arnantz) eta musika (Juan Miguel Arzelus) bateratzen ditu erakusketa eta poesia irakurketa horrek.
Bisita ordutegia: apirilaren 27ra arte, Kulturateko klaustroan; poesia irakurketa, gaur, egubakoitza, eta apirilaren 23an, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

BERGARA
**> Fernando Azkargortaren margolanak ikusteko aukera**
Fernando Azkargorta margolari bergararraren erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Bisitatzeko aukera egongo da apirilaren 20ra bitartean.
Azkargorta (1919-1973) Simon Arrietaren ikasle gogokoena izan zen. Bergarako herriaren izen onaren alde jardun zuen beti. Bere lanak Gasteizen, Donostian, Bilbon… izan zituen ikusgai.
Lanegunak: 18:00-20:30; zapatuak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeka eta jaiegunak: 12:00-14:00.

DONOSTIA
**> Manu Muniategiandikoetxearen erakusketa**
Manu Muniategiandikoetxea bergarararren *Behar gorria. Primavera azul* delako erakusketa bisitatzeko aukera dago. Art Basel Miami Beach delako azokarako 2004an egindako proiektua, Burgosko Kutxaren arte zentroko bakarkako erakusketa eta 2007ko Iruñeko Baluarten oraingo hamarkadako artista espainiarren taldeko erakusketa izan dira honako erakusketaren oinarri.
Koldo Mitxelenako erakusketa aretoan, martitzenetik zapatura, 10:30-14:00 eta 16:00-20:30; astelehen, domeka eta jaiegunetan, itxita.

PROPOSAMENA

ARRASATE, OÑATI
### > 'Grönholm metodoa' antzeztuko du Txalo taldeak bi herritan

*Grönholm metodoa* delako antzezlana egingo du Txalo antzerki taldeak Oñatin eta Arrasaten.
Itziar Ituño, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Joseba Apaolaza dira aktoreak. Multinazional batean, exekutibo plaza bat betetzeko azken lau hautagaiak gela batean bildu dituzte, hautaketa prozesuko azken probak egin ditzaten; probak zein baino zein absurduagoak dira.
Bihar, Oñatin (Santa Ana, 22:30); etzi, Arrasaten (Amaia antzokia, 19:30).



# Ikuskizunak

ELGETA

**> 'El despertar de los sentidos' dantza emanaldia**

Down sindromea duten edo gurpildun jesarlekuan dauden lagunek osatutako Hunkigarri taldeak *El despertar de los sentidos* delako dantza emanaldia egingo du Espaloia kafe antzokian.

Etzi, domeka, 18:00etan.

# Lehiaketak

ESKORIATZA

**> II. Margo Lehiaketa Aire Librean, etzi, domeka**

Ibarraundi museoak antolatuta, II. Margo Lehiaketa Aire Librean jokatuko da etzi, domeka. Oihalak 09:00etatik 11:00etara zigilatuko dituzte Herriko plazan, eta sari banaketa 18:30ean izango da, Ibarraundin.

Apirilaren 6tik 20ra bitartean, lanen erakusketa ipiniko dute.

BERGARA

**> Mendekoste jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa**

Bergarako Mendekoste jaiak laster iritsiko dira. Hala, jaietako programaren azala egiteko lehiaketan parte hartzeko azken egunak dira; hain zuzen, epea astelehenean itxiko dute.

Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, 13:00ak baino lehen. 24 x 34 cm-ko neurria izango dute kartelok; teknika librea da, baina *Pentekoste jaiak 2008 Bergara* testua derrigorrez agertu beharko da. Lehiaketa honetan Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte.

Argibide guztiak *www.bergara.net* webgunean daude.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 7an bukatzen da.

DEBAGOIENA

**> Ei Gazte! logotipo lehiaketa deitu du Eusko Ikaskuntzak**

Eusko Ikaskuntzako Gazteria sailaren logotipoa diseinatzeko lehiaketa deitu dute. 16-30 urte bitartekoek parte har dezakete. Maiatzaren 15a da lanak bidaltzeko azken eguna, eta 1.500 euroko saria emango dute.

Argibideak, *www.eusko-ikaskuntza.org* webgunean.

BERGARA

**> Mendekosteetako zapirako marrazki lehiaketa**

Jaietako zapirako marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du Jardun euskara elkarteak. A4 formatuan entregatu behar dira lanok eta, marrazkiarekin batera, euskararen erabilera bultzatzen duen lelo bat jarri beharko da. Jardunen bulegoan, Errotalde jauregian, edo *jardun@topagunea.com* helbidean aurkeztu behar dira marrazkiok.

Argibide gehiago, Jardunen; 943 76 36 61 da telefono zenbakia.

# Zinema




## Al otro lado ***

**Zuzendaria:** Fatih Akin.
**Aktoreak:** Hanna Schygulla, Patrycia Ziolkowska.
Alemania-Turkia, 2007.
122 min. 13 urtetik gorakoendako.

*Al otro lado* Alemania eta Turkiaren arteko ekoizpenak bi herrialde horietan kokaturiko istorioa kontatzen digu: Alemanian bizi diren turkoak, Turkian bizi diren alemaniarrak, eta, bi hilketa direla medio, Turkian topo egingo duten pertsonaiak. Istorioan pertsonaia batzuk beste batzuen bila ari dira, bidean elkar ikusi gabe gurutzatuko dira horretan, azkenean, bilaketa horren ondorioz eta zoriaren ala patuaren eraginez, batek daki, pertsonaia horiekin lotura duten beste pertsonaia batzuek elkar ezagutuko dute.

*Al otro lado*-k mundu sumindua erakusten digu, gobernu eta gizakion indarkeria, bizitzan gertatzen diren ezusteak, patuaren eragina… eta horrek denak gizakiok nahiko babesgabe egotea eragiten du. Hau dela eta, filmak dioskunez, bizitzako momentu askok gizakien ahalmena gainditzen dute, eta hori dena jasateko beharrezkoa da besteen laguntza, elkar ulermena eta barkatzeko ahalmena.

Fatih Akinen filmak baditu momentu latzak, hunkigarriak, eta momentu horiek guztiak modu neurritsuan filmatuak daude, modu zuzenean, bat-batean gertatzen dira gauzak eta gertakizun horiek pertsonaiengan efektua eta eragina dute. Eta, batez ere, hori da zuzendariak azaldu nahi duena: pertsonaien sentimenduak islatu nahi ditu eta, horretarako, horiengana errespetuz eta epeltasunez hurbiltzen da.

Horrela, *Al otro lado* ikusterakoan, alde batetik, pertsonaien sentimenduak gertukoak egiten zaizkigu, eta, beste aldetik, gidoiak kasualitateari eta bidean eta denboran ematen diren pertsonaien gurutzaketari emandako tratamenduak distira ematen diote istorioaren egiturari. Gertukoa eta kontrolatu ezineko gertakariak bateratzen dira filmean.

Antonio Zabala

**ARAMAIO**
**KULTURA ETXEA**

**Asterix Britainian**
Domeka: 17:00.

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**En el valle de Elah**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Astérix en los Juegos Olímpicos**
Zapatua: 17:00.

**Preguntas sin respuestas**
Eguena: 20:30.

**BERGARA**
**AROZTEGI**

**V. Film Laburren Zirkuitua**
Eguena: 20:00.

**ELGETA**
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**El taxista ful**
Domeka: 17:30.

**Algo salvaje**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Juno**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**27 vestidos**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Love sick**
17:30, 22:30.

**El último mago**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**The contract**
17:30, 20:00, 22:30.

**Juno**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Mi monstruo y yo**
17:30.

**No es país para viejos**
20:00, 22:30.

**Cometas en el cielo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Horton**
17:00, 18:45.

**Papá por sorpresa**
17:30, 20:00, 22:30.

**Despierto**
20:30, 22:30.

**Pozos de ambición**
19:00.

**FLORIDA-GURIDI**

**Betizu eta urrezko zintzarria**
17:00.

**LT 22 Radio La Colifata**
18:30, 20:15, 22:30.

**La familia Savages**
18:00, 20:15, 22:30.

**Seda**
18:00, 20:15, 22:30.

**Los falsificadores**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mirando al cielo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cometas en el cielo**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**10.000**
19:30, 21:45, 00:00.

**Casi 300**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La noche es nuestra**
15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

**En el punto de mira**
20:20, 22;20, 00:20.

**Las hermanas Bolena**
22:25, 00:45.

**El último gran mago**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**No es país para viejos**
19:45, 22:10, 00:35.

**27 vestidos**
12:15, 16:00, 18:10.

**Franklin (infancia)**
12:15.

**Las crónicas de Spiderwick**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

**Despierto**
18:45, 20:40, 22:35, 00:30.

**Juno**
12:15, 15:45, 17:45.

**Astérix en los Juegos Olímpicos**
12:15, 16:30.

**Rastro oculto**
12:15, 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Papá por sorpresa**
12:15, 15:35, 17:50, 20:05.

**La guerra de Charlie Wilson**
21:55, 23:55.

**Alvin y las ardillas**
12:15, 16:00, 17:45.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:30, 17:40.

**Como la vida misma**
22:20, 00:20.

**Seda**
19:50, 21:50, 23:50.

**Horton (infancia)**
12:15, 16:05, 18:05, 20:05.

**El territorio de la bestia**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**The contract**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**10.000**
19:30, 22:20, 00:30.

**Mi monstruo y yo**
17:00.

**En el punto de mira**
20:10, 22:35.

**27 vestidos**
15:50, 18:05.

**Las hermanas Bolena**
20:30, 22:45.

**Horton**
16:15, 18:15.

**Casi 300**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**La noche es nuestra**
17:00, 19:30, 22:15, 01:00.

**Papá por sorpresa**
15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

**Llamada perdida**
20:25, 22:20.

**Rastro oculto**
16:00, 18:05,m 20:20, 22:35, 01:00.

**Las crónicas de Spiderwick**
16:00, 18:10.

**The eye**
20:30, 22:30.

**El último gran mago**
16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:45.

**Como la vida misma**
16:10, 18:20.

**The contract**
16:05, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**El territorio de la bestia**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**No es país para viejos** ***
AEB, 2007. Zuzendariak: Joel eta Ethan Coen. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Javier Bardem.
122 min. 18 urtetik gorakoendako.
Llewellyn Moss-ek kamioi txiki bat aurkitzen du. Barruan, heroina kargamentu bat eta bi milioi dolar daude.

**En el valle de Elah** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Haggis. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Charlize Theron, Jason Patric.
121 min. 13 urtetik gorakoendako.
Iraken gudari egon eta etxean ematen duen lehenengo aste bukaeran, Mike Deerfield desagertu egiten da, eta baimenik gabe joan izana leporatzen diote.

**Buda explotó por vergüenza** ***
Iran, 2007. Zuzendaria: Hana Makhmalbaf. Aktoreak: Nikbakht Noruz, Abdolali Hoseinali.
81 min. Denondako.
Bakhtay neskatila afganiarra da eta 6 urte ditu. Bizilagunen semeak alfabetoak irakurtzen ditu, eta eskolara joatera bultzatzen du Bakhtay.

**Seda** **
Kanada-Frantzia-Italia-Erresuma Batua-Japonia, 2007. Zuzendaria: François Girard. Aktoreak: Michael Pitt, Keira Kinghtley, Alfred Molina.
110 min. 7 urtetik gorakoendako.
Protagonista Herve Joncour da, XIX. mendeko frantses bat, zetarren merkataria. Japoniara bidaiatzen du, eta harreman bat hasten du emakume misteriotsu batekin.

**La noche es nuestra** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: James Gray. Aktoreak: Joaquin Phoenix, Eva Mendes, Mark Wahlberg.
177 min. 13 urtetik gorakoendako.
Bobby Green-en familiakoak poliziak izan dira beti, baina Bobbyk ez du halakorik entzuterik ere nahi; errusiarrek Brooklyn-en daukaten Karibe diskotekako harreman publikoen arduraduna da.

**Juno** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: Jennifer Garner, J.K. Simmons.
92 min. 13 urtetik gorakoendako.
Juno MacGuff nerabeak bere buruari ezarritako arauak bakarrik jarraitzen ditu. Bizitza zeharo aldatuko zaio haurdun geratzen denean.

**Al otro lado** ***
Alemania-Turkia, 2007. Zuzendaria: Fatih Akin. Aktoreak: Hanna Schygulla, Patrycia Ziolkowska.
122 min. 13 urtetik gorakoendako.
Sei lagunen bizitzaren zati bat kontatzen du filmak, hainbat topaketa, harreman eta heriotzatik abiatuta.

**Como la vida misma** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Peter Hedges. Aktoreak: Steve Carell, Juliette Binoche.
98 min. Denondako.
Dan Burns-ek aitzakia gisa ematen du hiru alabak zaindu beharra beste edozein egoeratik ihes egiteko.

## nire aukera



**Jesus Mari Plazaola**
Bergarako Udal Mendi Brigadako kidea

## "Ganadu-lanetan nabil asteburuan"

Egubakoitzean, 14:30 aldera lanetik irten eta etxera noa, Udalara. Bazkaldu eta atseden hartu eta gero, ardiak jezten ditut, behorrak zaindu… Elorrion ere ardi batzuk ditut, eta handik buelta bat ematen dut; izan ere, orain umegintzan daude. Zapatuan eta domekan ere ardi-lanean ibiltzen naiz; aste barruan, goizetan, Bergaran lan egiten dut, eta aste bukaeretan, gauden sasoian, lan handiagoa dago.

Hala ere, etzi, zerbait berezia egingo dugu, nire urtebetetzea oraintxe pasatu delako, eta familia eta lagunekin bazkaria egingo dut.

**Oso lanpetuta ibiltzen zara; zuretako astirik ez duzu faltan igartzen?**
Ganadu-lanean gustura ibiltzen naiz. Emazteak esaten dit, orain alabatxoa dugunez, harekin denbora luzeagoa egoteko, eta horretan ere saiatzen naiz.

**Artzain txakur txapelketetan ere ibiltzen zara. Bazabiltza prestatzen?**
Bi txakurrekin ibiltzen naiz, eta orain beste bat daukat, gaztetxoa; horrekin banabil, bai, nahiz eta asti handirik ez izan, oraingoz.

**Mendian bizi zara eta han egiten duzu lan ere… Kalegoserik badaukazu?**
Gaztetan, parrandazale izandakoa naiz; baina orain, familiarekin eta elkarteko lagunekin gustura nago, eta kalean tabernarik taberna ibiltzea ez dut faltan igartzen.

**Eta elkartean batzen zaretenean, sukaldari ibiltzen zara zu ere?**
Normalean, merienda txiki bat bakarrik hartzen dugu, eta horretarako ez da gauza handirik egin behar: arrautzak txorizoarekin, xerra… Baina gauza zailagoak egiteko ere ez daukat arazorik; 17 urterekin joan nintzen etxetik eta orduan neuk egindakoa jan behar izaten nuen egunero, eta orduan ikasitakoa ez da sekula ahazten.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-04-04

# Bi zaldi lau gurpilen gainean

**IBILALDIA** Donostiako Bi Zaldi elkarteko kideek Debagoienean barrena egingo dute ibilaldia domekan

**ELKARTEA** Autoak kontserbatzeko lana egiten dute elkartean, eta baita ibilgailuekin irteerak ere

**IBARREAN** Erroldarik eginda ez badago ere, bi zaldiko hiru edo lau ibilgailu daude Debagoienean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Bi zaldi elkarteak ibilaldia antolatu du Debagoienean barrena zapaturako, eta iluntzean Bergarako plazan egingo dute geldialdia. Ez dihardugu animaliez, bi zaldiko autoez baizik. Autoak jendearen bistan ipini arren, ez dute utziko barrura sartzen.

Donostiako elkartea da Bi Zaldi, eta irteerak sarritan Donostia aldean egiten dituzte; udaberrian hasi eta udazkenera bitartean hilabetean behin. "Pentsatu genuen gure ibarra ezagutzera emateko Debagoienean egitea irteera", esan digu Jose Ramon Larrañaga elkarteko kide bergararrak.

Elkartean 40 lagun inguru daude eta Bergaran, zapatuan, 25 izango dira hamar bat autotan.

**AUTOAK KONTSERBATZEKO LANEAN**

Auto bereziak dira bi zaldikoak. "Berezi egiten du guretzat gustuko izate hutsak", esan digu Jose Ramon Larrañagak. "Nire lehen autoa horrelakoa izan zen eta gero hainbat urtean ahaztuta izan ostean, orain dela hiru urte inguru parera etorri zitzaidan erosteko aukera eta aprobetxatu egin nuen. Nolabait gazte denborako oroitzapenak berreskuratzeko-edo. Bada jendea erosi zuena autoa orain dela 30 urte eta orain-dik kontserbatzen duena", esan digu Larrañagak.

Gutxi batzuk dira autoa egunero erabiltzen dutenak. Larrañagak hauxe dio: "Gure elkartean bada bat ohiko ibilgailu moduan erabiltzen duena, eta iaz Suedian izan zen. Nik neuk horrelako auto batekin urrutien egin dudan bidaia Kataluniara izan da".

Elkartean autoak kontserbatu egiten dituzte. "Horretarako, kontu handiz ibiltzea da gakoa. Apurtzen diren gauzak konpontzea. Pieza eros daitezke Frantzian eta baita Bilbon ere. Batzuek autoak kontserbatzen dituzte, baina beste batzuek goitik behera berritu", azaldu digu Larrañagak.

Bi zaldiko autoen bolantean askotariko gidariak ikusiko ditugu: zaharrak, gazteak, aberatsak eta maila ertainekoak. Auto modelo adina gidari, hain zuzen.



AUTOA Bi Zaldi elkarteko Jose Ramon Larrañagak Bergarako Elorregi auzoan dauka kapritxoz erositako autoa. I. AGIRREAZALDEGI

## ahobero

### "Futbola enpresa bat bezala da; erabakiak hartu behar dira, eskuak ezin du dardararik egin"

**Iñaki Badiola** >
Realeko presidentea

Badiolak hartu zuen bere garaian Jose Ramon Eizmendi entrenatzailea izendatzeko ardura eta orain, dardararik egin gabe, haren lekuan Juanma Lillo ipini du. Azken hori egongo da beharbada orain dardarka, zer gertatuko zain.

## iturri onetik

### Debagoieneko dantzari nagusien eguna apirilaren 26an izango da Antzuolan

Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitz, Soraluzeko Urrats, Oñatiko Oñatz eta Antzuolako Oinarin dantza taldeetako kideak apirilaren 26an, zapatua, Antzuolan elkartuko dira Debagoieneko dantzari nagusien eguna ospatzeko. Olaran etxearen atzeko aldean elkartu ostean, herrian barrena kalejira egingo dute eta dantza erakustaldiak egingo dituzte bai goizean eta baita arratsaldean ere.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Adreilua eta patua

Arrasate. Zigarrolan, 66 metroko etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, ganbara eta berogailua. Argitsua eta egoera onean. 180.000 euro. 685 72 83 24.

Arrasaten etxebizitza erosteko ordua etorri zitzaidanean, oso garesti zeuden eta sasoirako sekulakoa zen prezioa ordaindu behar izan nuen. Handik zazpi bat urtera saltzea tokatu zitzaidanean, krisi galanta egokitu zen parean eta nekez lortu nuen kostatutakoa berreskuratzea, parra egitea. Denbora tarte horretan, ezagutu nituen urte bakarrean erositako prezioaren doblean saldutako etxebizitzak Arrasaten.

Badirudi patua ez dudala alde adreiluarekin negozioak egiteko orduan. Izan ere, merkatua guztiz jota dagoen honetan, ez zait ba tokatu senitarteko etxe bat saltzea?

## ai, ene!



### Labirinto itxurako kisketa etxeko atean

Etxea babestu behar dela, baina... Lapurrek zaila izango dute atea zabaltzea, baina etxeko jabearendako ere ez da erronka makala.

http://es.engadget.com



Denentzat...
Maalako
Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76
UNITED COLORS
OF BENETTON.